# HANDITZEN-HANDITZEN

## Herria ezagutzen



3. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA




# HANDITZEN-HANDITZEN

## Herria ezagutzen

## LEHEN HEZKUNTZAKO

## 3.MAILAKO

## IRAKASLEENTZAKO

## GIDA PEDAGOGIKOA




# 3.UNITATEA: HANDITZEN, HANDITZEN.

## 1.- SARRERA. GURE AUZOA.-

Aurreko unitatean, errementarien zalaparta artean hauek guztiak ezagutu genituen: herri harresitua, gaztelua, burdingintzak herrian izan duen garrantzia, gertaera historikoak eta tradiziorekin loturiko hainbat pasarte.

Gaur arte iraun duten eraikuntzak aztertu genituen eta herria handitu baino lehen zein egitura eta nolakoa zen irudikatu, grabatuei, marrazkiei eta argazkiei esker.

Burdingintza/altzairugintzari esker, industriaren puntan izan zen herria hainbat mendetan, baina burdingintzan industria krisialdi sakona gertatu zen, mearen falta, produkzio sistema zaharkitua erabiltzeagatik eta eskari-eskaintzaren aldaketengatik. Horrek guztiak burdinolak desagertzea ekarri zuen eta XIX. mendearen erdialdean burdinolak desagertzen joan ziren eta haietako batzuk errota bihurtu ziren eta beste batzuk lantegi.

Herriak zuen produkzioan lan egiteko ezagutza historikoari esker, haren baliabide naturalei esker (egurra, ura, eta abar) ondorengo industria iraultza (XIX. mendearen bukaeran) ekarri zuen eta industriaren hastapen haiek sendotzen joan ziren.

Horrek eta herriak eskaintzen zituen azpiegiturek (hezkuntza, osasungintza, merkataritza, eta abar) erakargarri egin zuten herrian bizitzea. XIX. mendearen bukaeran, trenaren etorrerarekin (1919. urtean) eta batez ere XX. mendeko 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, jende ugari etorri zen bizitzen eta hazkunde handia izan zuen.

Unitate honetan ikusiko dugu harresietatik kanpora herriak izan zuen garapena. Herria zergatik, nola eta norantz handitu zen. Ibilbide horretan baserriak bete zuen funtzioa, industriaren eginkizuna, udalaren egitura zein zerbitzuak, eta herrian garatu diren kultura adierazpen historikoak.

Ezer baino lehen, ahaleginduko gara batzen ikasleek herriaren antolaketa eta osaketari buruz dituzten jakintzak.

Norberaren auzotik hasiko gara. Eskatuko diegu auzoaren izena eta haren deskribapena egiteko. Eskatuko diegu saiatu daitezela ematen ahalik eta informazio gehien: deskribapena, zein zerbitzu dituen, biztanle kopurua, eta abar.

***JARDUERA 1: Nire auzoa…………………da. Honelakoa da nire auzoa.***
***JARDUERA 2: Marraztu zure auzoan gustuko duzun txokoa.***
***JARDUERA 3:Adierazi hemen agertzen diren auzoen izenak, zure iritziz, Arrasatekoak diren edo ez.***
*Koadernoko 3. orrialdea.*




## 2.- BADIRA AUZO GEHIAGO

Norberaren auzoez gain, herrian ezagutzen dituzten gainontzeko auzoen berri jakiteko aukera izango dute ariketaren bidez. Hor Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko auzo batzuk daude eta ikasleek herriaren osotasunari buruz duten informazioaren berri emango digu.

***JARDUERA 1: Ezagutzen al duzu Arrasateko beste auzorik?***
Koadernoko 3. orrialdea.

## 3.- HERRIA SUNTSITU

Bi mendetan hiribilduaren eta Ferrerias kalearen erreketen ostean suntsituta gelditu zen herria, baina errauts horietatik indartsu irten zen eta hiribildua berritu zuen, XVI. zein XVII. mendeetan egindako eraikuntza dotoreen bidez: Bañez Artazubiagako, Okendo, Monterron eta Andikano-Loiola jauregiak, udaletxea, hiribildura sartzeko ateak edo San Frantziskoko komentua.

Hauek izan ziren hiru mende eta erdian gertaturiko triskantzarik handienak:

**a) Arrasateko erreketa (1448)**
Herria hiribildua eta sortzen ari ziren errebalak ziren gehienbat, baina Guraia (oñaztarrak) eta Bañez (ganboatarrak) leinuen arteko gertaturiko ekintza historiko honen ondorioz, hiribildua erabat erre zen. Hiribilduko eraikinen egitura zurezkoa zen eta garrek lan erraza izan zuten hiribildu osoak suak hartu zuelako. Garibaikoak dioenez bi etxe bakarrik salbatu ziren sute hartatik eta eliza ere erre egin zen" con sus organos, campanas, relox y retablos y ornamentos", ikaragarria izan zen herria zelan gelditu zen eta erreketa bukatzean, ganboarrrak sartu ziren hiribildura etxe guztietan triskantzak eta ahal zutena arpilatu zuten

**b) Ferrerias kalearen erreketak**
Bi sute handi gertatu ziren kalean 1516 eta 1666 urteetan. Gorosabel historiagileak dio 1666. urtean kalean 14 etxe erre zirela, non 28 familia bizi ziren eta sutea gerarazteko etxe asko eraitsi behar izan zituzten. Ferrerias kalean altzairua lantzen zuten eta hiribilduaren egitura egurrezkoa zenez, su hartzeko arriskuan bizi zen herria.

**c) Gerra diputazioa ( " Diputación a guerra") eta "Independentzia"ren gerra**

*Frantsesen etorrera Gipuzkoa eta Arrasatera, Frantzian gertaturiko iraultzaren garaipenarekin dator (1789. urtean).
Frantsesen inbasioa 1794ko uztailaren 24an eman zen eta Getarian zegoen Gipuzkoako gobernua atxilotu eta preso eraman zuten Baionako gotorlekura.

Horren ondorioz, hamazazpi herri elkartu ziren Arrasaten, 1794ko irailaren 1ean eta Espainiak Gipuzkoarekiko zuen burujabetasuna berriro onartutakoan, herrian Diputazio berria edo Gerra Diputazioa izendatu zuten elkartutako herriek.
Diputazio hori 1794ko azaroaren 28ra arte gelditu zen gure herrian, hau da, frantsesak Bergaran sartu arte. Gero, lekuz aldatzen joan zen Gatzagan jarri zen arte.
Frantsesek hamaikatxo hondamendi egin zuten Arrasaten eta Gipuzkoan, baina 1795eko uztailaren 22an Basileako bakea sinatu ondoren, Espainian konkistaturiko lurraldeak itzuli zituzten. Getariako gobernua askatutakoan, bi diputazio zeuden Gipuzkoan, baina Arrasatekoak irten zuen garaile.
Horrela, bada, amaitutzat eman zuten gerratea, baina frantsesek egindako hondamendiak luzaroan jarraitu zuten.

Halaber, Lisboa konkistatzeko asmoz 1807ko urriaren 19an Napoleonen tropak sartu ziren Gipuzkoako hainbat herritara, tartean Arrasatera, gero Madrilera joan eta bereganatzeko.
Frantses gunerik handiena Arrasaten egon zen eta haien eragina eta gehiegikeriak nabaritu ziren: arropak, janariak, diruak, ondasunak... desagertu ziren hemendik, 1813ko abuztuaren 31n Donostiako erreketaren ekintza gertatu zen arte, gertaera hark frantsesen derrota ekarri baitzuen.

Frantsesak Euskal Herrian zeudenean, tifus izurritea izan zen bertan eta hilkortasuna handia izan zen.Garai hartan, herrian lurperatzeak herriko parrokian egiten ziren eta elizatik kanpoko lehendabiziko kanposantua parrokiatik gertu egin zuten baina frantsesek debekatu zuten lurperatzeak elizan egitea eta hilerri berri bat egitea erabaki zuten Santa Marinaren terminoan ( Aldain). Hala jaso zuen parrokiako Manuel Maria Upategi parrokoak berak sinatutako dokumentu batean 1809ko azaroaren 5ean, non berak hilerri berriari bedeinkapena eman ziola jasotzen den.

## 4.- HERRIA ERAIKI

Leintzen Oñatiko jaunak(Gebara) agintzen zuen;bere lurrak Arrasateko harresietaraino iristen ziren. Ugaran bailarak muga egiten zuen Aramaio jaurreriarekin eta bertako ahaide nagusiek Gebaraterrekin jurisdizio kontuengatik gatazka ugari izan zuten.

Leintzek herriez, elizateez eta tokiez osatua zegoen, eta arazoei buruz erabakitzeko antolakuntzaren ikuspegitik elizateen bidez egiten zuten.

Alabaina, Erregeak Arrasateri hiri-gutunean aitortzen zitzaizkion "pribilegioak" eskuratzeko,1.353an Ugaran bailarako -aldeek-elizateek (Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga tokiek proposamena egin zuten Arrasateko "kontzejuan", sartzeko eta auzotartasun kontratu baten bidez sartu ziren.



Kontratu haren bidez, herrixka eta toki hauen bizilagunek ondasunen eta pertsonen jurisdikzioa ematen zioten kontzejuari herriko babesa eta auzotar estatusaren truke.

Horrek berarekin alkatea(e)ren autoritatearekiko menpekotasuna zekarren, zergak ordaindu beharra eta diru zigorra, auzotartasun horri egunen batean uko eginez gero. Halaber, horrek herrixken eta tokien azaleren mugak aitortzen zituen eta baita herriko lurrak zein mendiak guztiek erabiltzeko eskubidea ere.

Harrezkero, lur, mendi eta erreken aprobetxamenduaren inguruan enfrentamendu ugari izan ziren Leintz eta Arrasate artean

Auzotartasun kontratu hau San Juan Batzatzailearen Parrokian sinatu zen 1353ko otsailaren 17an Alfonso Lopez Altzibarrekoa eta Antso Martinez Urrupainekoa Arrasateko alkateen aurrean.

Meategien ustiatzearen ondorioz biztanleak ugaritzen ari ziren eta ez ziren sartzen harresien barruan. Herriak handitu beharra zeukan eta harresietatik kanpo errebalak eraikitzen hasi ziren: Zarugalde, Gazteluondo eta Maalakoak.

Errebal hitzak arabiar jatorriak dauka eta harresitik kanpoko "auzoa edo kalea" esanahia dauka. Arrasateko erreketaren historian(1448) eta kantuetan Maalako erreferentziak agertzen dira. Errebal horretan izan ziren ermita, ospitala eta Zarugaldeko errebalari buruzko informazioa Garibaikoak sarri aipatzen du hainbat liburutan.

Errebalak biztanlez betetzen hasi ziren eta herria arian arian eraikitzen joan zen.

Hemen planteatzen den 1.jarduerak 1353.urtean gertaturiko auzo horien atxikipenarekin zerikusia duenez gero, ondo legoke 2.unitatean landutako "Herria osatzen " izeneko apartatua errepasatzea edo apartu honen hasieran jarri den testua irakurtzea.

***JARDUERA 1: Zergatik atxiki zitzaizkion herriari?***

***JARDUERA 2: Bi errebal Aramaio errekaren ondoan eraiki zituzten, baina bat, Gazteluondokoa, ez. Izenari erreparaturik, non ote zegoen? Badakizu?***

***JARDUERA 3: Egin ditzagun hipotesiak: ezagutzen dugu herria nola zegoen eraikia harresien barruan. Nola imajinatzen duzu joan zela hazten gaur egun ezagutzen dugun herria izan arte? Zer eraiki ote zuten lehenago, zer ondoren?***

*Koadernoko 5. orrialdea.*




## 5.- HERRIA HANDITZEN.

Arrasaten burdingintzak eta altzairugintzak garrantzi handi izan zuten, meatoki eta burdinola ugari zegoen-eta, XVI. mendetik XVIII. mendearen erdialdera arte (1780), Arrasate oso herri ezagun bilakatu baitzen eta Gipuzkoako bigarren herririk handiena izatera iritsi zen, baina burdingintza industria gainbehera joan zenetik industrializazioa –industria iraultza- eman arte populazioa galtzen joan zen.

XIX. mendearen bukaera aldera iritsi ziren Arrasetera eta hasi ziren erabiltzen Europako industriaren iraultzak ekarritako aurrerapen teknikoak.

"Vergarajauregui, Resusta y Cia" sortu zen 1869ko abenduaren 4an eta denbora gutxian bailara eta herriko tailer batzuk bereganatu zituen eta 1894an 550 langile zeukan, 22.000 metro koadroko azalera batean.

Mendearen hasieran Union Cerrajera lantegia, 1906. urtean "Vergarajauregi Resusta y Cia" eta "Cerrajera Guipuzkoana" enpresak batzetik sortu zen eta hori izan zen lehen mugarria herria garatzeko, Arrasateko langile gehienak hartzen baitzituen enpresak. 1906an 800 langile inguru zeukan enpresak eta Arrasatek 3.200 biztanle zuen.

Ekonomia eredua aldatzearekin batera, hobekuntza eta berriztapen ugari eman ziren herrian: 1894an herrian sartu zen elektra indarrezko argiztapena (sarrailagintzarako ekarria), 1896an edateko ur sarea; 1900ean udaleko frontoi berria eta azoka ; 1902an Biteri eskolak inauguratu ziren; 1902an udal hiltegia, eta 1906an estolderia sarea, 1910ean musika kioskoa, udaletxe aurreko plazan.

## 6.- MIGRANTEAK

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran lantegi ugari sortu ziren Arrasaten: "Vergarajauregui Resusta y Cía"(1869), "La Cerrajera Guipuzkoana"(1901), "Unión Cerrajera" (1906) , "Ugarte y Cía ( 1917), " la Industrial Mondragonesa" (1917), "Elma" (1924), "Asam" (1928), "Roneo" ( 1929) eta lantegi horiek eskulan ugari behar zuten. Horregatik, jende asko etorri zen bizitzera herrira. 1900-1916 denbora tartean bostehun langile etorri ziren Arrasatera, gehienak aldameneko herrietatik eta gero, Gipuzkoako beste herri batzuetatik zein Aramaiotik.

Trenarekin batera (1918. urtean iritsi baitzen herrira) herrira lan egitera etorri ziren gehienak Nafarroatik, Arabatik, Errioxatik, Burgostik ....etorri ziren. Sarri entzun diegu gure herriko aitajaun eta amandreei migrante haietaz berbetan, "trenarekin etorri ziren, bai, baina askok euskara ikasi zuten". Garai hartako hizkuntza egoeraren isla zen hori; oraindik ere soziolinguistika egoera ona zuen herriak, euskaldunak asko zirelako.
Pixkanaka, atzetik, langile horien familiak ere etortzen joan ziren herrira.




XX. mendeko 1960ko eta 1970eko hamarkadetan -1936ko gerraren ondorengo urteak, alegia- izan ziren migrante kopururik handienak.

Ez zegoen nahikoa etxebizitzarik eta auzo eta bizileku berriak eraikitzen hasi ziren, erreken ubidean eta mendien maldetan. Garai hartan sortu eta handitu ziren hainbat auzo: San Antolin, Roneo etxeak, Musakolako Antso Abarka, Maisu Aranbarri, Elkano, Kristobrero, Santa Teresa, San Andres, Erguin, Uribarri, Santa Marina... Enpresek beraiek bultzatu zuten etxe haiek egitea, sustatzaile pribatuek ere bai, eta kasu batzuetan erregimen politikoaren ministerioak.

Kulturalki migrante andana haren etorrerak eragina handia izan zuen herrian, urte gutxitan herriak aldaketa handia jasan behar izan zuen, maila guztietan: kultura, hizkuntza, hezkuntza, itxura.

Hortaz, 31 urteetan soilik herria pasatu zen 10.014 biztanle izatetik (1950ean) 26.045 biztanle izatera (1981an). Kontuan hartzen badugu 1900. urtean herriak 3.713 biztanle zeukala, atera ditzagun hortik eratortzen diren ondorioak.

Biztanleen garapenaren datuak dituzue jarraian. Lehen datua 1556. urtekoa da, Garibaikoaren garaikoa, (1.900 biztanle) eta azkena 2009. urtekoa (22.064)

***JARDUERA 1: XIX. eta XX. mendeetan biztanleen kopuruek gorabeherak izan dituzte. Batzuetan hamarkadaz eta beste batzuetan egindako erroldeen datuen bidez eskaintzen dizkizugu taula osatzeko. Osatu taula, alboan dituzun hainbat urtetako datuekin. Aztertu, eta gero marraztu biztanleen garapenaren marra.***

***Zenbaki horiek, ordea, izen-abizenak dituzte. Interesgarria izango litzateke ikasle bakoitzak bere familiaren jatorria ikertzea: nondik etorri ziren, noiz, nola?***
***Aztertu daiteke ere familia bakoitzak herrian zenbat belaunaldi daraman.***
***Ikusten duzuenez, informazio handia eta aukera aparta dugu migrazioaren gaia bertatik bertara aztertzeko. Nahi adina sakondu dezakezue. Informazioa ere landu dezakezue: taulak, eskemak, multzoak, horma-irudiak, eta abar osatzeko.***

***JARDUERA 2: Zer gertatzen ari da XXI. mendean? Mende honetan biztanleen gorabeherak txikiak izan arren, horietaz ondorioak atera daitezke eta ikasleekin landu.***
***Gero, interesgarria izango litzateke ondorioak ateratzea eta ikasleek zein hausnarketa egiten duten entzutea...***

***JARDUERA 3: Eta noiz heldu ote ziren herrira gure etxekoak?***




***JARDUERA 4: Egun, XX. mendearen 1. hamarkadan munduko hainbat herrialdetatik (Amerika, Afrika, Europatik) etorkinak etortzen ari dira gurera eta ikastetxeetara. Gelan ziur asko berriki nazio hauetatik etorritako ikasleak izango direnez, bi egoera hauek alderatzea, ikasle batzuen guraso eta aiton-amonen egoera gaurkoarekin eta horretaz hausnartzea proposatzen da.***

*Koadernoko 6.orriladea.*

## 7.- HERRIARI BERTSOTAN.

Historian Arrasatek, berez, ez du izan bertsolari ospetsurik, nahiz eta azkeneko urteotan zaletasuna handitzen joan den. Gaur egun, atzera begira eginez gero, zaila izaten zaigu irudikatzea lehengo Arrasate, hamarkada batzuetan sekulako eraldaketa jasan zuelako. Eraldaketa horren lekuko pertsona egokitzat jo dugu Joxe Manuel Arriola udaleko kalezaina. Deba herrian jaioa, "Goikoetxe " baserrian 1916ko ekainaren 15ean, eta 1939. urtez geroztik lanean hasi zen Arrasaten, jubilatu arte.2015eko apirilaren 28an hil zen.

**Joxe Manuel Arriolak** ehunka bertso egin zituen, Arrasateko arazo, kultura ekintza, pertsona ospetsu, festa, sozio-politikako aldaketen inguruan, bertsolari kronika egilea izan zen. Baina Arrasate ez ezik, Euskal Herri osoa kantagai zuen Arriolak. Hona hemen berak egindako bertso sail ezagunenak, "Nekez baere" izeneko liburuan jasoak:
Parroko zanari (1976), Pelotariak (1975), udaberriari (1978), Don Jose Maria-Arizmendiarrieta (1976), festa nagusiak Arrasaten (1978), Kalezainak (1968), 1980 euskaldunak Everest gallendutako urtea (1980), Frai Rufinori (1981), Arrasaten Gurutzetxiki mendia hamar urtean bitan erre (1974), Gazte ezkongaiak (1978), Uribarri (1971), Ateak itxi Ferrari (1971), Ezbeharrak opor garaian (1979), Gure gazteak euskerarik ez dute aberastuko (1971), Diruari (1971), Autopixtari (1973) Salerostegiak (1979), Neska mutillak asko eztala (1974), Oporrak ikastetxeetan (1979), Joxe Letonari (1976), Musikako banda desegindu zanekoa (1974), Naparroari (1977), Santomasak Arrasaten (1978), Managua (1973), Heriotza atzeratu (1972), Don Calixto (1981), San Antonio (1977), Hauteskundeak (1980), Joxe Arriaran, Arriaran Ilari (1972), Santa Ageda eroetxea (1974), Gurasoen kezkak (1977), Barandiaran-Aranzadi (1975), Mendizaleak (1975), Ibarretako olaetan hilketa, Perurena indartsuari (1977) eta Udalaitzko gurutze jartzeari (1981).

Ikasleekin lantzeko liburuxkan esanguratsuenak iruditu zaizkigun bertsoak aukeratu ditugu. Euskara frankismo garaian kinka larrian izan zen Arrasaten. Eskoletan, berrogei urtez jarraian, eskola gaztelaniaz ematen zuten, gurasoengandik seme-alabetara hizkuntza transmisioa ematen bazen ere, gazteek eta kuadrilek, orokorrean, gazteleraz hitz egin zuten beti. Gainera, kanpotik etorkin asko etorri berriak ziren Arrasatera eta hizkuntza egoera, euskararen etorkizunari dagokionez, oso ezkorra zen. Lan asko aurretik egiteko bazegoen, baina egoera horren isla moduan jasotzeko 1971. urtean Arriolak egindako bertso batzuk hautatu ditugu.




Beharbada bertso guztiak erakustera animatuko zaretenez, hementxe dituzue guztiak.

**Doinua:**
"GURE GAZTEAK EUSKERARIK
EZ DU ABERASTUKO"

| | | |
|---|---|---|
| I<br>Ala beharrez gure<br>Lurrean ainbeste<br>Euskaldunengandikan<br>Sortutako gazte.<br>Ez dakit eurak ala dutenikan uste,<br>Baña hizkuntzarekin<br>Zorrak badituzte | V<br>Erbestekoak izan<br>Ohi duten **antzera**<br>kapritxotzat bakarrik<br>arturik **euskera,**<br>Irixsten ez bada ere<br>Zearo **galtzera**<br>Aurrera bearrean<br>Jungo da **atzera** | **IX**<br>Gai onetzaz mintzatzen<br>Ni ez naiz lenena<br>Ta nekez<br>izango naiz<br>Gañera azkena.<br>Onenara jota ere<br>Esango dutena:<br>Gixajo lelu orrek<br>Esaik nai dekena |
| II<br>Eurari lotsagarri<br>Egiten zaiete,<br>Euren izkuntzarik ez<br>Jakitea bate.<br>Baña jakin ezkero<br>Zerbait nolabaite,<br>euskera sendotzeko<br>Kezkarik ez dute | VI<br>Gaitz txarrak zapaltzeak<br>Ez genezke poztu<br>Euskera gaxotua<br>onla ezin piztu<br>il zorian ez badago<br>Ere ,dabil estu.<br>Baiña txikia dala.<br>Beste errurik ez du | X<br>Ezer ere ez dago<br>Kostatzen ez danik,<br>Gai onetan ez degu<br>Euskaldunak lanik.<br>Jainkoak guretzako<br>Diguna emanik,<br>Nola ez pozik gorde<br>Polita izanik? |
| III<br>Gazteak edonun da<br>Edonoiz alkarte<br>Erdera barra-barra<br>Erabiltzen dute.<br>Amak esan:euskeraz<br>Hitzegin zazute.<br>Aguro erantzuna:<br>Zu,ixildu zaite | VII<br>Zorionez Jainkoak<br>Emana **guretzat,**<br>Euskaldunok euskera<br>Danok degu **ontzat**<br>Txikia dala eta<br>Ez artutzen **aintzat**<br>Ez daigun iltzen utzi<br>orregatik **behintzat** | |
| IV<br>orrela ari gera<br>Ez dakit noiz arte<br>Gero bete bearrak<br>Nola ondo bete?<br>Etzan, ez, gertatuko<br>Beste onenbeste,<br>Izanikan euskera<br>Behar ainbat maite | VIII<br>Maitasun guztiakin<br>Eginik alegin,<br>Ez gaitezen jokatu<br>Iñoiz erdi arin<br>Baldin albalitzake<br>Aundiago egin<br>Jarritako mugarik<br>Iñun ez du berdin | |

(1971ko irailean egindakoak)



Bertsolariari buruzko azalpenak eman eta bertsoak landu eta ikasi ondoren, ikasleak prest izango ditugu jarraian proposatzen diren jarduerak egiteko. Datorren ikasturtean 4. mailan, hain zuzen ere, hasiko dira lantzen bertsolaritza geletan. Beraz, ikasleek bertso mundua aurrez ezagutzen ez badute, komenigarria izango litzateke bertsoen ezaugarri nagusienak aipatzea: errimak, oinak, doinuak.

***JARDUERA 1: Ipiniko al zenuke oin bakoitza bere lekuan?***

***JARDUERA 2: Zergatik uste duzu…***

***1.- Gazteek ez zutela euskaraz egiten***
***2.- Azaltzen du euskara zelan zegoen?***
***3.- Bertsolariaren ustez, euskaldunok nola hartzen dugu euskara?***

***JARDUERA 3: Nahi izanez gero, errima lantzeko aproposa da hauxe. Ez badira inoiz sekula errima bila aritu binaka edo hirunaka jar ditzakegu.***
***Errima bat eman eta hitz katea osatzeko eskatu diezaiekegu edo librean osatzeko hitz katea.***

***Lehiaketa moduan ere antolatu dezakegu. Hitz eman eta txandaka errima bera duten hitzak esateko eskatu, errepikatu gabe.***
***Ariketa hau ahoz zein idatziz egin dezakegu, unean lantzea, lehenesten dugunaren arabera.***

***JARDUERA 4: Bukatzeko, eskatu diezaiekegu ikasleei beraiek ere bertsoak egiteko bizi diren herriari. Errazagoa izateko, doinu berbera erabili dezakete. Nahi izanez gero, ikasleak binaka edo hirunaka jarri daitezke, sorkuntza lan hori egiten.***

***Animatuz gero, bertso saio ederra antolatu dezakezue ikasgelan.***

*Koadernoko 7.orrialdean.*

## 8.- AUZOKA ANTOLATUTA.

Azken mendeotan herria handitzen joan da. Garai batzuetan neurririk gabe, gainera. Auzoetan murgilduko gara buru-belarri eta auzook sakonean aztertzeari ekingo diogu.

Herria auzoka antolatuta dago, eta auzoak kalez. Kaleak, berriz, zenbakiz: bakoitiak alde batean eta bikoitiak bestean.
Gelan auzo bat baino gehiagoko ikasleak izango ditugu, seguruenik. Beraz, egoera horri baliatu dezakegu ikasleak auzoka taldekatzeko, sailkapenak egiteko, eta abar.

Liburuxkan auzo bakoitzaren gainean informazioa zehatza eman baino nahiago izan dugu ikasleek beraiek auzoen inguruko informazioa jasotzea.




Lan hori errazteko, informazio biltzeko fitxak eta galdetegiak eskainiko dizkiegu. Bestalde, auzo bakoitzaren inguruko informazioa duzue material osagarrian eta baita alkatearekin harremanetan jartzeko kontaktua ere (beste baliabiderik ez badago).

**Atal hau lantzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak duen htttp://b5m.gipuzkoa.net/b5map/1/es/mapa/lekutu/M_055/geruza/ortofotoa helbide elektronikoan landu dezakezu auzo bakoitzaren kokagunea. Helbide honetan aurkituko dituzue Aldundiak dituen txoribista eta baita mapak ere.**
**Horrela topatzen ez baduzue, bilatzaile baten bidez, Googleren bidez edo, "Arrasate ortofotoa" testua jarriz gero topa dezakezue.**

Sistemak eskaintzen dituen tresnei esker, nahi adina handitu dezakezue aztertu nahi duzuen zonaldea. "Bisore klasikoa"aukeran, hainbat urtetako mapak gainjarri ditzakezue urteen joan-etorrian eremuak izan duen eraldaketa alderatzeko.

Arbel digitala erabiltzen baduzue, material ona da taldean lantzeko, irudiak oso erakargarriak eta adierazgarriak direlako. Aintzat hartu, bestalde, ikasleak papereko mapan kokatzeko zailtasunak izan ditzakeela oraindik, handia baita egin behar duten abstrakzio lana. Horientzat aukera errazagoa da beste hau.

Arbel digitalik ez baduzue, ikasleak binaka jarri ditzakezue ordenagailuan eta talde txiki horietan lan egin dezakezue.
Hortaz, lehenik eta behin mapekin jolas egitea proposatuko genizueke, ikasleak maparekin trebatu daitezen.

Auzoak definitzerakoan wikipediak jasotzen dituen auzoetan oinarritu garen arren, oro har Arrasateko historiak, erreferentzialak direnak, hautatuko ditugu.

Hala ere, beste sailkapen bat egin daiteke auzo txikiagoena edo arian-arian eraikitzen ari direnena, Hala, San Josepe, Munar, Santa Teresa, Kristobrero, Makatzena, Altamira, Aldai, Zerrajera... esate baterako.

***JARDUERA: Nor da nongoa? Irakurri argibideak eta ea asmatzen duzun!***
NOR DA NONGOA?

**MUSAKOLA**
Gure auzoa toki lauan dago,
muga egiten du Bergararekin
eta futbol zelaia du.

**SAN ANDRES**
Auzoak etxe altuak ditu, erreka



ondoan dago eta bederatzi
letra ditu

**SANTA MARINA**
Gure auzoa aldapatsua da,
ez da erreka pasatzen eta
liburutegia eta ludoteka ditu

**ZALDIBAR**
Lehen Zerrajera fabrikaren zati
handi bat zegoen, eta orain
ospitalea dago.

**UDALA**
Baserri auzoa da, goien dagoen
auzoa da eta Arrasateko mendirik
altuena du

**MEATZERREKA**
Antzina meategiak zituen,
jende gutxien bizi den auzoa da
eta Udalatx mendiaren magalean dago
**ERGUIN**
Gure auzoa toki aldapatsuan dago,
kale askoren izenek agertzen
dituzte lehengo baserrien izenak.
Ikastetxe bat dago bertan.

**URIBARRI**
Auzorik handienetakoa da,
Unibertsitatea dago eta
kiroldegia du.

**GESALIBAR**
Auzo honek muga egiten du
Aramaiorekin eta ospitale psikiatriko
ospetsua du.

**GARAGARTZA**
Aramaio errekak zeharkatzen du,
Lezetxiki kobazuloa dago
eta plazan lamia baten estatua dago




**BEDOÑA**
Toki garaian dago baserri auzo hau, lehen Aretxabaletakoa zen eta auzoan Loramendi idazlea jaio zen.

**ERDIALDEA**
Eraikuntza historiko gehienak daude eta Monterron parkea dago

***JARDUERA 2: Auzoak kaleka daude antolatuta. Kaleek lehengo baserrien, tokien, pertsonaia historikoen izenak hartzen dituzte. Zein auzotan daude kale hauek?***

*Koadernoko 9. orrialdea.*

## 9.- GURE AUZOA. IRTEERA DIDAKTIKOA. LANDA LANA

Bost ariketa sail proposatuko dizkiegu ikasleei auzoen inguruko informazioa lantzeko:

1.- Gure auzoa. Auzoen datu orokorrekin alderaketa egitea (GURE AUZOA/ ALDATZEN DOA/ZER OTE ZEGOEN AUZOA DAGOEN LEKUAN)
2.- Irteera didaktikoa. Ikastetxearen kokalekuaren arabera egingo du irteera didaktikoa eskola bakoitzak.
3.- Irteera didaktikoan, auzotar bati ELKARRIZKETA egingo dio ikasleak bost galdera eginez.
4.- Ikasle bakoitzak ZUK ZEUK apartatuaren barruan (IDATZI AUZOAN GUSTUKO DITUZUN ETA EZ DITUZUN LEKUAK /AUZOA HOBETZEKO PROPOSAMENAK).
5.- Irteera didaktikoan INKESTA: Gustura bizi da jendea auzoan?

***GURE AUZOA**
Herriko auzoak orokorrean landu ondoren, ikasle bakoitzak berea sakonago lantzeari ekingo dio.

Ondoren proposatzen diren jarduerak ikasleak banaka egin ditzake edo nahiago baduzue, talde lana lehenesten baduzue, auzo berean bizi diren ikasleen artean landu dezakete.
Mapan norberaren auzoa kokatu dugu aurreko jardueretan.
Lana errazteko, auzoaren behaketa errazteko material osagarria aurkituko duzu galdetegian.

Datu horiekin guztiekin, gero, auzoa gelakideei aurkezteko eskatuko diegu.



Gero, kontuan izanik auzo bakoitzaren antzeko datuak izango ditugula, bilduta, auzoen arteko alderaketa egin dezakegu: Orokorra izan liteke edo zehazki landu nahi dugun arlo batekoa.
Informazioa horma-irudietan jarri dezakegu, informazioaren arabera multzoka sailkatu ditzakegu auzoak, taulak osatu, jasotako informazioaren ondorioak atera. Ikusten duzuenez, jarduerok egokiak dira hainbat arlo lantzeko.

***JARDUERA 1: Lortu zure auzoari buruzko ahalik eta informazio gehien. Horretarako, lagungarria izango zaizu taulan jasotako datuak osatzea. (Eranskinean).***

1.- Gure auzoa. Auzoen datu orokorrekin alderaketa egitea.

***ALDATZEN DOA**.
Auzoa ez da izan beti orain ezagutzen dugun bezalakoa. Gertatu liteke aztertzen ari garen auzoa berria izatea. Haren ordez, lehenengo interesgarria izango litzateke zer zegoen jakitea.

Gertatu liteke ere auzoa aspaldi eraikitakoa izatea. Urteen joanean aldaketa asko jasango zituen, seguruenik.

Kasu batean zein bestean, ikasleari proposatzen diogu lehengo eta oraingo argazki bana itsastea.
Gurasoei eskatzea, aldizkari zaharretan begiratzea, Interneten... aurkitu daitezke argazkiak. Berria, berriz, beraiek egin dezakete.

Gero, nahi izanez, gero, ikasleek ekarritako argazkiekin erakusketa moduko bat egin dezakegu, auzoka.

***JARDUERA: Auzoak ez du beti izan gaur egun duen itxura, aldatzen doa. Liburuxkan Uribarri auzoko antzinako argazki eta gaurko argazkiak daude, baina ikasleei eskatuko diegu atxikitzea beraien auzoaren (edo auzoa egon aurretik zegoenaren) argazki bat eta gaur egungo argazki bat.***

*Koadernoko 10. orria.*

Urteen poderioz eta hobekuntzen ondorioz, aldaketa fisikoak izaten dira auzoetan eta kaleetan. Kaleen izenetan ere aldaketak izan dira, tartean gobernu politiko edo garai desberdinak bizi izan dituelako herriak. Hona hemen hainbat adibide:

| Gaurko izena | Errepublika garaia | Frankismoa |
|---|---|---|
| Herriko plaza | Plaza de la República | Plaza de España |
| Erdiko kalea | Calle de Arano | Calle del General Franco |
| Ferrerias kalea | Calle Pablo Iglesias | Ferrerias |

| | | |
|---|---|---|
| Zarugalde kalea | Galán y García Hernandez | Zarugalde |
| Biteri plaza | Jardines de Viteri | Plaza del Maestro Arano |
| Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea | Plaza del frontón Antiguo | Calle General Mola |
| Seber Altube plaza | Plaza de San Francisco | Plaza de los mártires del 5 de octubre |
| Nafarroa etorbidea | Paseo de la estación | Avenida de Navarra |

*** ZER OTE ZEGOEN AUZOA DAGOEN LEKUAN?**
Herriko eta auzoko historian sakontzea proposatu gura diegu jarraian. Ba ote dakite auzoa eraiki zuten lekuan aurretik zer ote zegoen?

Aukera bat, liburuetan edo Interneten Arrasateri buruzko dagoen informaziora jotzea. Bestea, ordea, auzoari buruzko gauzak dakien norbaitengana jotzea da. Horretarako auzoko alkatearengana jo dezakete, auzoko historia aztertu duen norbaitengana edo auzoan luzaroan bizitzen daraman norbaitengana .

Gelako ikasle guztiak auzo berekoak badira, edo dituzun ikasleak auzo gutxi batzuetatik baldin badatoz ikasgelara gonbidatu ditzakegu lagun horiek.

***JARDUERA: Zer ote zegoen auzoa eraiki aurretik? Ikertu eta kontatu.***

# UNITATEAREN IBILBIDE DIDAKTIKOA

**BISITA DIDAKTIKOA**. Lehendabiziko unitate didaktikoan erdialdeko hiribilduari egin genion bisita didaktikoa. Oraingoan ikastetxe bakoitzak bere kokalekuaren arabera bisita didaktiko bat egitea proposatzen dugu. Bisita didaktikoa oinez eta ikastetxearen eragin esparrutik gertutik egiteko, proposamen hau egiten dizuegu:

**SANTA TERESA GUNEA.** -1.- Musakola / Makatzena-Santa Marina-Santa Teresa-Kristo Obrero.

**GAZTELUONDO GUNEA**.- Bi irteera egin daiteke aukeran 2.- San Andres / San Josepe edo
3.- Erdialdea (Hiribildua- San Juan-Jokin Zaitegi-Zerrajera-Kontzeziño-Uarkape/Altamira)

**ARIMAZUBI GUNEA.** Bi irteera egin daiteke aukeran**.** 2.- San Andres / San Josepe edo 4.- Uribarri /Erguin.

**AHEko ERGUIN ESKOLA**. 4.- Uribarri/Erguin

Bisita didaktikoak egin aurretik ondo legoke **ortofotoen bidez lantzea** egitera goazen ibilbidea.




**1.- MUSAKOLA .**
**2.- MAKATZENA-SANTA MARINA-SANTA TERESA-KRISTO OBRERO.(KIROL INSTALAZIOAK/ LUDOTEKA, LIBURUTEGIA ETA JUBILATUEN ETXEA.)**

Arizmendiko Santa Teresa gunetik irten eta Kristo Obrero auzoko Galizia kaletik abiatuko gara **Santa Marinako jubilatuen etxea, ludoteka eta liburutegira**.

Aldamenetik pasatu eta aldapatxoa igo ondoren, Santa Marina auzora iritsiko gara. Eskuinetara joango gara eta errotondan geldituko gara, han elkartzen dira Santa Marina (lehenengo etxeak 1963. urtean egin zituzten) eta Kristo Obrero auzuneak. Hortik ikusi daitezke han goian mendiaren maldan **Makatzena auzoko** etxeak, 1980. urtean egindakoak, kooperatiba bat osatutakoan. Santa Marina eta Makatzena bi baserri ziren eta auzoek hortik hartu dituzte izenak.

Errotondatik eskuinetara joan gara Agerre kaletik, Santa Teresa kalerantz. Santa Teresa kalera iristean han behean Santa Teresa ikastola ikusiko dugu eta eskailera batzuetatik jaitsiko gara bertara, Santa Teresako lehendabiziko etxeak 1964. urtean hasi ziren egiten eta Espino etxegileak etxeak egiteaz gain, eskola bat (**gaur egungo Arizmendik ikastolako Santa Teresa gunea**) eraiki zuen eta geroago, **eliza (Santa Teresa**). Ikastolatik abiatuko gara elizarantz eta handik Elkano kalera joango gara.

Hortik Gebarako Errando kaletik beherantz, hemen aldamenean **Laboral Kutxa** eta Gipuzkoa etorbidearen ertzean **Kutxabank,** eta Antso Abarka kalea gurutzatu eta Gipuzkoa etorbidera iritsiko gara. Handik gasolindegia ikusiko dugu eta haren atzealdean industrialde handi bat dago, A-20 deritzana. Industrialde horretan sarrailagintzan diharduten hainbat enpresa dago ( Altuna, Ifam…). 2015ean JMA enpresa bota dute eta orube horretan bi merkataritza zentro handi erakiiko dute.t

Gipuzkoa etorbideari beherantz jarraituz industrialde horretara sartuko gara eta ikusiko dugu **Tanatorio zerbitzu** bat dagoela. Gure irteera didaktikoarekin jarraituz aurrera joango gara eta erreka gure eskuinaldean izanik **Jubilatuen etxera eta San Isidro elizara**(1945. urtean egina) iritsiko gara. Errepidea zeharkatzeko, zebrabidetik joango gara eta **Musakolako kiroldegirantz** abiatuko gara (1977. urtean egina, igerilekuak, kantxa, frontoiak).

Sarrera ingurutik **Institutuko bi eraikin** ikusiko dugu; behekoa, Musakola herri eskola izan zen eta goikoa, sorreratik, batxilergoa emateko erabilia, hain juxtu ere. Igerilekua inguratuz

errekaldera joango gara, errekaren ezkerraldeko paseotik **Mojategi baserrirantz** joango gara eta han gure ezkerrean **2007. urtean egindako errugbi eta futbol zelaiak** ikusiko ditugu. Mojategi baserriraino joango gara, baserriaren zurezko fatxada ikusteko eta errekaren beste aldean **Eroski hipermerkatuaren instalazioak** ikusiko ditugu. 1989. urtean eraiki zuten Maxi Eroski, Arruenea baserria zegoen tokian eta urte batzuk geroago (1997. urtean) handitu zuten eta hiper Eroski bihurtu zen.

Atzera itzuliz zubiraino joango gara eta handik pasatuko gara **Arruene parkera**, berdeguneaz gozatzeko. Parke ederra, arbola ugarirekin eta ondoan erabilera anitzeko gune bat bertan kokatzeko herrira etortzen diren ikuskizunak, zirkua...eta aparkaleku gisa erabiltzeko. Parkearen erdian auzoko elementurik adierazgarriena ikusiko dugu, **brontzezko asto bat** dago bertan, zenbat ume igo diren gainera! auzoko elementu esanguratsua da.

Ingurura begiratuz gero, auzoko hainbat baserri ikusiko dugu, **Agirretxebarri, Antoniñaetxebarri, Arbe, Altzibar, Axerikoa, Aranguren** baserrira joateko bidea errotondatik ikusten da. Ikusten ez dena **Barrenazar** baserria, Epele errekatxoaren altzoan baitago. Hortik ere, errekaren eskumaldean, **Etxezarreta baserriaren aztarnak** ikus daitezke araztegiaren aldamenean, historia duen baserria da eta berdegune garrantzitsua.Hortik, han goian, Arbeko tontorra eta mendearen 1990.ko hamarkadan eraikitako **Egiandi** "baserria", txakolina ekoizten duena, malda horietan mahasti ugari landatuta duena. Hemendik errepide ondoko espaloitik itzuliko gara kiroldegira eta handik joan ikastolara.

**3. /4.- ERDIALDEA ( HIRIBILDUA- PORTALOITIK-SAN JUAN-ZALDIBAR-ZERRAJERA-KONTZEZIÑO-JOKIN ZAITEGI-UARKAPE/ALTAMIRA/ ALDAIGAIN/ALDAI (ELMAKO ETXEAK).**

Gazteluondo gunetik irten eta Portaloira joango gara.Lehendabiziko unitate didaktikoaren irteera didaktikoa hiribildua eta Goikobalu bisitatu genuen. Portaloitik beraz abiatuko gara Biteri plazarantz. Pasatuko gara tokitik hainbat urtetan **Biteri eskola** izan zen, Pedro de Biterik eraikitakoa1902.urtean eta XX. mendearen 60.hamardaren bukaera arte zutik izan zen baina eraitsi zuten eraikina. Eskola laikoa eta doakoa zen eta Biterik fundazio bat sortu zuen 200.000 pezetarekin eta Gipuzkoa osoan bederatzi eskola gehiago eraiki zituen.

Garibai etorbidetik eskubitara joan gara **Laubide plazaraino bus geltokitik** pasatuz eta eskumaldean pertsona nagusien Iturbide egoitza utziz. Plaza horretan 1936-1939 gerran Debagoienako fusilatu eta desagertuen omenez Iosu Murguizuk diseinaturiko monolito bat




dago eta 2003ko ekainean inaguratu zen. Plaza horretan egun azoka txikia "merkadilloa"egiten da hilean birritan eta **San Juanetan zezen plaza** egoten da bertan eta **Santamasetan** ganadu feria bertan jartzen da.

Plazatik hainbat eraikin ikus ditzakegu : errepidearen bihurgunean zurezko balkoiak dituzten etxe batzuk, Kontzetzinokoak, bertan zegoen konbentua bota eta gero 1980.urtean egin ziren. Erreka aldera begiratuz gero, **antzinako fabrika baten eraikina** (Zerrajera) ikusiko dugu eta harantza, zubirantza zebrabidea pasatutakoan, abiatuko gara.

Handik, Etxaluzetik (lehen zubian Igelaren iturria zegoen) ospitaleraino **Union Cerrajeraren lantegiaren instalazioak** zeuden, baina egun esparru horretan ez dago industria instalaziorik. Plazatik ezkerretara dauden etxeak **Jokin Zaitegi plazaren** inguruan daude eta hemen zeuden **Roneo enpresaren instalazioak**. Hemen zeuden enpresak Kataide industrialdera joan ziren 1990. urtean libre utziz esparru hau etxeak egiteko. Gaur egun **Roneo enpresa desagertu da eta Union Cerrajera, Arrasate, enpresa txikia da**. Inguru horretan ere, XX. mendearen 1979ko urrira arte, Guardia Zibilaren kuartel bat zegoen.

Laubide plazatik Jokin Zaitegi plazara joango gara eta handik **Zaldibar frontoira**, 1900. urtean egindakoa, zenbat futbito txapelketa egin diren bertan!!! eta haren ondoan umeentzako ziburuak daude. Ziburuen tokitik **erlojua duen eraikina** ikusiko dugu, lehengo **Union Cerrajera lantegiaren sarrera historikoa,** errekaren gainean dago eta erabilera asko izan ditu. Iragan industrialaren lekuko fidela da eta egun Eusko Jaurlaritzako SPRIrena da.

Haren ondoan, lehengo lantegiko bulegoen eraikinean, hotel bat eraiki zuten. Nafarroa etorbidetik abiatuko gara ezkerretarantz, **Zaldibar auzotik**, eta errekaren beste aldean eraikin zahar bat ikusiko dugu, 1939. urtean Union Cerrajerak sorturiko **Escuela de Aprendices** ikusiko dugu. Eraikin horretan, **Arrasate Musikal elkartearen egoitza** izan zen.2016an berriztatu nahi dute Kultura arloko taldeak bertan kokatzeko.

Lehen, Erdi Aroan, Oñatiko Kondearen jabetzak Zaldibar auzoraino iristen ziren eta komenigarria da horren gainean 2. unitate didaktikoan landutakoa gogoratzea (doke jokoa, Arrasateko erreketa...). Nafarroa etorbidetik errotonda bateraino joango gara eta han bi errekak **Deba eta Aramaio errekak** non elkartzen diren ikusiko dugu, eta ondoan **Debagoieneko Mankomunitateko bulegoak daude eta Lanbide hastapena, Udaltzaingoa eta Txatxilipurdiko bulegoak**.



Jarraituko dugu espaloitik **Gizarte Segurantzako anbulatoriorantz** eta errepidearen beste aldean, lehengo **Tren Vasco Navarroren geltoki historikoa** ikusgai izango dugu, gaurko egunean Instituto Nacional de Empleo INEM erakundearen bulegoa (Lanbide). **Anbulatorioaren ondoan Debagoieneko ospitalea** dago eta atzean ospitale berriaren instalazioak daude. Haren ondoan **Gelma enpresaren** instalazioak, lehengo Elma enpresaren oinordekoak eta kooperatiba baten instalazioak (Lehengo Gamei enpresaren instalazioak). Antzinako tren geltokitik buelta emango dugu atzera, errekak batzen diren tokiaren errotondaraino eta handik Etxetxikiak kaletik abiatuko gara, ezkerraldean etxe txikiak, XX. mendearen 1920ko hamarkadaren bukaeran Cerrajerak bultzatutako etxeak eta eskuma aldean Elmako etxeak (zabalgunea), 2006. urtean hasitako etxebizitzak, non-eta lehen enpresaren instalazioak zeuden.

Kale horretatik Gipuzkoako etorbidera eta handik Maalako errotondaraino, Ferixalekurantz, **Amaia antzokia** eskuma aldean utzi eta **Ferixalekua gunea.** Uarkape frontoi ondoraino joango gara, igogailuaren sarreraraino. Frontoia 1999. urtean inauguratu zen eta haren atzealdean Udaleko **Emakume txokoa eta Gaztetxea** daude. Igogailutik igoko dugu eta irteeran, behatokian geldituko gara une batez herria ikusteko: behean Ferixalekuko etxeak, **Kulturate, San Frantzisko eliza**, **Uarkapeko etxeak**, erdigunea. Behatokitik **Gernika ibilbideraino** joango gara, egun ibilbide hau ia Garagartzatik Musakolako kiroldegiraino doa. Handik eskumatara joanez gero, **Aldai parkera** eta **Aldaigaineko etxee**tara joango gara, eta ezkerretara joanez gero, hortik **Altamira auzunerantz.**
Gernika ibilbidetik joanez **Monterron parkerantz** abiatuko gara. Han sequoia erraldoiak ikusiko ditugu eta handik jauregi ondotik Arbolapetara. Gaur egun Monterron jauregian Arrasate Musikal elkarteak musika eskolak ematen ditu, instalazio propioak izan artean. **Arbolapetan,** (1900. urtean Canuto Aranzalabalek indigaztainondoa landatu zuen bertan baina gaixorik zegoenez, bota zuten eta 2015ean haritz bat landatu zuten) koadrilen elkargunetik **Kulturatera (kultura etxera**) abiatuko gara, Seber Altube plazatik pasatuz. **Kulturate ekipamendua** 2007. urtean inauguratu zen eta bertan kultura zerbitzu asko daude; haur, gazte eta helduentzako liburutegiak, Hemeroteka, Bideoteka, Fonoteka, ikasteko gelak, Klaustroa-erakusketa aretoa eta hainbat erabilera anitzeko gela). Seber Altube plazatik Gazteluondo gunera.

**5.- SAN ANDRES (Bedoñabe) / SAN JOSEPE**

**Bedoñabe eskolatik** irten eta Cordoba y Oro plazara abiatuko gara, handik parketik eskumatara ikusiko ditugu hainbat tailer, hortik aurrera industrialde handi bat, enpresa

txikiak eta **Fagor Elektronika,** beste batzuen artean.

Handik errepide aldera joko dugu Araba etorbiderantz eta eskuma aldera joango gara lehengo Polmetasa lantegiaz zegoen bihurguneraino. Apurtxo bat aurrera joanda Gasteizko norabidean ikusiko dugu **kooperatiben industrialdea** hasten dela, bertan **1956. urtean Ulgor izeneko enpresa sortu zuten**, hortik **Mugarrietaraino** (ikus mapan) eta gero beste industrialde bat dago Aretxabaletako mugan.

Hortik errekaren beste aldean, **Intxausti** baserria ikusiko dugu, industrialdeak egiteko bota zituzten baserrietatik zutik gelditu den bakarrenetarikoa (errepidearen beste aldean dauden Takolo-Bedoñabehirugarrena- eta Muzibar izan ezik). Handik bueltatuko gara atzerantz eta zebrabide baten bidez pasatuko gara errepidearen beste aldera, bus geltokiraino joateko.

Markesinaren atzealdetik errekaren gainetik dagoen zubitik pasatuko gara errekaren beste aldera eta hortik han goian **San Josepe "auzoa"** ikusiko dugu, 1959. urtean inauguratuta, Nuestra Señora de la Blanca izeneko ermita zegoen (harrobiaren ondoan bere aztarnak daude) eta erromeria ospetsua egiten zuten bertan.

Etxebizitzetatik gertu, saihesbidea egiterakoan 1988. urtean aurkitu zuten labeko koba (1. unitatean landutako gaia). Gora igo barik, nahi izan geroz aukera dago etxebizitzetaraino igotzeko, ezkerretara joko dugu, handik **Etxaluze eraikin berriraino** iristeko. 2006. urte arte baserri bat zegoen eta atzetik pasatuko gara handik errekaren gainetik dagoen zubitik pasatzeko eta handik ikusiko dugu eraikina. Eraikinak ditu **jubilatuen etxea, auzo alkatetzaren bulegoa, ikasgelak, hainbat areto**, eta berriki inauguratu da, 2010eko irailean.

Eraikinaren ondoan, hainbat enpresa (akademia, jatetxeak, zentro erregional baten egoitza, BM supermerkatua ...) daude industria pabiloi batean. Handik irtendakoan, zebrabidetik errepidearen bestaldera pasatuko gara, **Maiatzaren 1eko plazara** hain juxtu ere. Hemen herriko jaietan normalean barrakak izaten dira eta ziur asko ikasle guztiak hortik pasatu dira noizbait. Hortik atzera begiratuz eskola ikusiko dugu bukaeran, eta hara doan Dr. Bañez kalearen bi aldeetan **etxe dorretzarrak** ikusiko ditugu, ezkerraldean bat eta eskuma aldean beste bat eta eraikin altuak bertan.

Hiri aldeko San Andres (Bedoñabe) ia osotasunean XX. mendearen 1960oko hamarkadan

sortu zen eta azalera txikian etxebizitza asko eta altuak egin zituzten. Plazatik eskuma aldera hartuz General Garro kaletik joango gara Gipuzkoako Foruen plazaraino, eta atzean utziko dugu Errebuelta kalea. Lehen errekaren ibilbidea hemendik zihoan eta bihurgune handi bat egiten zuen bertan; horregatik kalearen izena.

Auzoa egiten hasi zirenean errekaren ibilbidea aldatu zuten, eskolaren albotik ere pasatzen baitzen erreka. Hortik Kurtzetxiki plazara joango gara, ziburuetara eta hortik eskuma aldean eskola ikusiko dugu eta aurrez aurre egindako etxebizitzak kaleetan (**Leintzibar, Maisu Guridi, Andaluzia, Navas de Tolosa eta Aramaio kaleak).** Etxebizitza horien barnealdean, auzoko bi plaza dugu, Gudarien plaza gertu eta apurtxo bat urrunago **Hiruki plaza.**

**6.- URIBARRI**

**Arrasate Herri eskolako Erguin eskolatik** irten eta ezkerraldean "Malvinas"(Gorostiza auzoa) esaten dioten auzoa dago, ia kale guztien izenak bertan zeuden baserrien izenak hartu dituzte **(Olaran, Etxeazpia, Etxeostea, Larragain kaleak**..).

Udala auzora doan etorbidetik jaitsi eta Anboto kalearen pareraino joango gara, gero ezkerretara, Kalealdetik joateko. Jaitsiera hasi bezain pronto **Gorostitza baserria** ikusiko dugu eskuma aldean, ondare historiko-artistikoko izendapena duen eraikuntza, bere inguruan dena aldatu da, baina zutik jarraitzen du eta eder iragan baten lekuko fidel, eta orainean eusten aldaketa guztiei. Hortik Munarrerantz abiatuko gara eta eskuma aldean **Usaetxe eta Larreako et**xeak ikusiko ditugu, 1992. urtean egindakoak, behin hor zeuden baserriak botatakoan.

**Munarrera** iritsi eta gero, eskuinetara joango gara **Udala plazarantz**, han gure aurrean Arrasateko etxeorratz lehenetarikoa, **Izarra dorrea**, Arrasate pasealekutik jarraituko dugu eta ezkerraldean **Arizmendi ikastolako Arimazubi gunea** ikusiko dugu, errepidearen eskuma aldetik eskumarantz Uribarri auzoa. Handik eskumatara hartuta joango gara **Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikora**, han daude bere hezkuntza instalazioak eta Biteri ikastetxearen egoitza. Errepidea jarraitu eta **Unibertsitateko liburutegiaren** ondotik pasatuko gara, han bidearen bukaeran **Eguzki dorrea** agertuko da gure aurrean.

**Iturripeko kiroldegira** joateko eskuma aldera joko dugu, han ikusiko ditugu kiroldegia, atletismo pistak eta frontoiak, eta **Aramaio erreka** pasatzeko zubia pasatuko dugu, eta




ezkerrantz joko dugu **Uribe auzo aldera**. 1977. urtean egindako etxeak dira; gure ezkerraldean utziko ditugu, auzoko elizara abiatzeko.

**Itxaropen amaren eliza** da eta handik, behean, ikusiko dugu **MUko kanpus berria,** eta Garagartza aldera begiratuz gero **Garaia berritzegunea** sumatuko dugu harago eta **Markulete industrialdearen** hasieran, horren sarrera moduan Ederlan enpresa. Elizatik Uriburu kaletik itzuliko gara abiatu garen tokira, ezkerraldean utzita Erguin, Elizalde, Anboto eta Udalpe kaleak. Hor zegoen Erguin baserria bota zuten etxeak egiteko eta toponimia irizpideari jarraituz kale baten izenak hartu zuen izen hori, eta **jendea hasi zen Erguin auzoa esaten, baina auzoa eta terminoa Uribarri da**. Auzoa Arrasateri atxiki zitzaion
1353. urtean. Arrasateko auzorik handiena da; Uriburu kalea zeharkatu ostean, eskaileretan gora egingo dugu eta ikastetxerantz joango gara.

***JARDUERA: Auzoka eta ikastetxeka proposaturiko bisita didaktikoak egitea***
***Koadernoko 10., 11. eta 12.orrialdeak.***

*** AUZOTAR BATI EGINDAKO ELKARRIZKETA**

**"Denek kazetari**" Bisita didaktikoan, ariketa hau egitea planteatu dugu, auzoaren inguruko informazioa lantzeko. **Ikasle bakoitzak unitatean dagoen galdetegia (behean**) eraman beharko luke prestatuta, gero kalean izan daitekeen auzotar bati galderak egiteko. Ondo legoke ahal bada, pertsona bati baino gehiagori galdetzea (pertsona nagusiak/gazteak/, emakume/gizona, jarrita dagoen bati edo martxan dagoen bati, edo posible bada dendaren batera sartu).

Behin informazioa jasotakoan, gero arbelean galdera bakoitzaren behealdean idatzi daitezke erantzun guztiak eta azkeneko emaitza edo ikuspegiaz hausnartu, ikuspegi zabala izateko. Bosgarren galderaren erantzunak baliatuko ditugu hurrengo ariketa egiteko, kontrastatzeko batetik, auzotarrek auzoa hobetzeko egin dituzten proposamenak eta, bestetik, ikasleek egingo dituztenak.

**GALDETEGIA**

1) Noiz etorri zinen bizitzen auzora?

2) Auzoak badauka kale nagusiren bat? Aipatu auzoko hiru kale. Eta plazarik?

3) Auzo honetan badago parkerik eta umeek jolasteko zaburik?

4.- Zer zerbitzu dago auzoan?

**a.- Kultura guneak (**Liburutegiak, ludoteka, gazte txokoak).

**b.**- **Kirol instalazioak.**

**c.- Ikastetxeak.**

**d.- Osasun zerbitzuak.**

**e.- Merkataritza zentroak.**

**f.- Industria guneak**

5) Zure ustez, zer hobetu daiteke auzoan?

* Auzoa arakatzen jarraituko dugu. **Orain gustuko dituzten lekuak eta gustuko ez dituztenak zerrendatzeko eskatuko diegu.**

***JARDUERA: Idatzi auzoan gustuko dituzun eta gustuko ez dituzun lekuak.***

*Koadernoko 11. orrialdea*.

*** ZUK ZEUK. AUZOA HOBETZEN**.
Gustukoak dituzten eta ez dituzten lekuak izendatu ondoren, beste hausnarketa bat proposatuko diegu. Auzoa hobetzeko zer jarri eta zer kenduko luketen, hain zuzen ere.

Hausnarketaren ondoren, auzoa hobetzeko hiru proposamen egiteko eskatuko diegu.
Herriko auzo asko ez ziren hasiera batean ezagutzen ditugun bezalakoak. Eraiki zituztenean etxeak bata bestearen gainean pilaturik, berdegunerik eta parkerik gabe, espaloirik gabe egin zituzten. Etxeen arteko espazio asko hiritartu gabe zeuden eta denboraren poderioz arian-arian gauzak aldatzen joan ziren.

Betidanik auzotarrek bizimodua hobetzeko proposamenak egin dizkiete auzoko alkateei edo batzordeei eta udalari, eta horrela joan gara eraikitzen gaur ezagutzen ditugu errealitateak.

Bi aro alderatze aldera, lehen eta orain berdegune eta ume parke gehiago auzoetan eta erdigunean egiteko eskaera egin duten auzotarrek eta **duela urte batzuk auzo altuenetara igotzeko igogailuak** jartzeko eskatu zuten. Bada, bi igogailu jarri dira herrian, bata




Ferixalekutik Altamirara doana eta hortik lehengo Mesedeetako Andra Mari ikastetxera, handik joateko Makatzenara eta Santa Marinara, eta beste bat, Bizkaia etorbidetik Gorostitzara joateko (Olaran kalea, Etxeostea kalea, Etxeazpia kalea, Maitena kalea....)

Oro har, auzoek asko hobetu dituzte itxura eta zerbitzua, baina etengabeko hobekuntza beharrezkoa da horretarako, eta auzotarren ekarpenak oso garrantzitsua dira.

Zalantzarik gabe informazio piloa bilduko zuten auzoei buruz. Horrekin guztiarekin erakusketa antolatu dezakezue ikastetxean bertan edo ahal bada eta nahi izanez gero, auzo alkatearekin harremanetan jarri eta bildutako informazioa bidali. Ziur asko auzotarrentzat oso interesgarria izango da gure lana.

***JARDUERA: Auzoa hobetzeko proposatzen ditudan hiru neurri*.**

*Koadernoko 11. orrialdean.*

***INKESTA. GUSTURA BIZI DA JENDEA AUZOAN?.**
Jarduera honetan auzotarrek auzoari buruz duten iritzia biltzen jarriko ditugu ikasleak.
Horretarako, galdera erraz bat proposatuko diegu:
“ **Gustura bizi da jendea auzoan?**

Inkesta itxia proposatuko diegu; hau da, 30 laguni egitekoa, adibidez. Hainbat auzo izango ditugunez, interesgarria izango litzateke ondoren emaitzak alderatzea. Nahi badugu gehiago zehaztu dezakegu, inkesta egiterakoan emakumeak/ gizonak, gazteak / adinekoak eta abar bereizteko eskatuko diegu.

Ehunekoak menperatzen badituzte, datuak ehunekotara ere pasatu daitezke. Liburuxkan baiezko eta ezezko erantzunak adierazteko barrak doaz. Lortutako emaitzen arabera, bakoitza koloreztatzeko eskatuko diegu.

**JARDUERA: Galdetu auzokideei ea auzoan gustura bizi diren edo ez. Erantzunak bildu eta gero koloreztatu, BAI edo EZ barrek izan duten erantzun kopuruaren arabera.**
*Koadernoko 11. orrialdea.*

## 10.- GURE BASERRIAK.

Ezagutzen diren baserri zaharrenak XVI. mende ostean eraikitakoak dira. Garai oparoa izan zen hau Euskal Herriarentzat eta zalantza barik, Arrasatearrentzat. Bandoen arteko gudak amaituta zeuden, burdinoletan jarduera izugarria zen eta Udalatxeko altzairua beste herrialdeetan ospetsu egin zen. Itsasoak europarrentzat zabaltzen ari ziren eta euskal kostaldean untzigintzak ateak zabaldu zizkion aberastasun ekonomikoari, eta artoa



bezalako elikagaiak ekarri zituen. Herrialdea aberastu egin zen eta eraldaketa prozesu garrantzitsua eman zen XVII. mendean.

Hura lantzen hastearekin eta harekin batera hasi ziren teknika berrikuntzek ere (laia, luberritze sakonagoa dakarrena; karea ongarri gisa erabiltzea) zerikusia izan zuten nekazaritzak pairatu zuen aldaketa sakonarekin. **Garai hartan burdingintzan, nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen ziren arrasatearrak.**

Garai hartan bertan eraiki zituzten lehen baserriak, baina ez aurretik egondako eraikinen garapen edo jarraipen bezala, ukazio moduan baizik. Baserriak eraiki zituzten osotasun bat bilatzen zuten; eraikinak behar familiarrak, ekonomikoak, sozial, kultural eta espiritualak ere bete behar zituen. Baserritarrak luzerako proiektu bati begira jarri ziren.

Eraikuntzarako teknologia ona eskuragarri izan zuten baserritarrek XVI. mendean. Adituek diote eraikitako lehen baserriak arkitektonikoki ondoen eraikitakoak eta funtzionalenak direla. Garai hartako eraikuntzari buruz zegoen jakituria guztia erabili zuten baserri horiek eraikitzeko. Profesionalek egin zituzten, arkitektoen aurrekariek, aurrez katedralak eraiki zituzten hargin, zurgin eta maisuek. Arkitekturaren ikuspegitik, ostean egindako baserriak aurrekoen ereduari jarraituta eraiki zituzten, baina baliabide gutxiagorekin.

VIII. mendean, baina, artoarekin hasitako garapena bere mugara iritsi zen. Ekoizpen handiagoaren beharrak arriskuan jarri zituen larreak, eta haren ondorioz, abeltzaintza. Mende amaieran patata lantzen hasi ziren eta horrek nolabaiteko arnasbidea ekarri zion nekazaritzari.

XVIII. mendearen bukaeran burdingintza sektorearen gain behera etorri zen eta jendea arian-arian baserrietara itzultzen joan zen, han lana eta bizirauteko bitartekoak bilatzeko. Garai hartan baserriari begira jarri zituzten aberatsek begiak, kapitala arriskurik gabe inbertitzeko.

Azkeneko baserriak XIX. mendean egin zituzten eta XX. mendean ez dute egin baserririk. Gipuzkoako 11.000 baserrietatik 1.500 familia baino ez dira maizterrak(alokairua ordaintzen dutenak) eta Arrasaten ere ia ez dago maizterrik.

Normalean, azaroaren batean, **Domu saindu egunean**, maizterrak nagusiaren edo administratzailearen etxetzarrera joaten ziren hitzartutako errenta ordaintzera. Errenta hainbat ataletan banatzen zen. Gehienetan eskudirua ordainketa osoaren zati txikia izaten zen, edo zatirik handiena gari anega kopuru aldakorra emateak osatzen zuen: baserri emankorrenetan 1.500 kilo baino gehiago eta txiroenetan 400 kilo eskas. Horrez gain, "kariziak" edo derrigorrezko opariak zeuden: kapoiak, ahariak, sagarrak, arrautzak, gazta, eztia eta beste zenbait janari gozo.




Euskal Herrian handia da mantendu diren baserrien aniztasuna. Hogeita bost mota ezberdin bereiz daitezke. Udala edo Bedoña bezalako auzoetan sei-zazpi aurki daitezke.
Artzaintza bezala nekazaritza Neolitikoan heldu zen Euskal Herrira, duela 5.000 urte. Hasiera batean lautadetan zabaldu zen; gainerakoan, menditsua eta oihanez josita, artzaintza bizibiderik nagusiena bilakatu zen.

Lurra lantzeko erak ematen dio duen itxura nekazaritza inguruneko paisaiari; nola erabili, halako aztarna lagatzen du lantzean.

Nekazaritzak inguruneko paisaiaren eraketan zeresan handia du, erabiltzen diren teknikek (laborea txandatzeak, lurgorri uzteak, eta abar), etxaldeen neurriak (minifundioak, latifundioak...) lantzen dituzten sailekin dituzten loturak (jabetzakoa, maizterretan hartua, partzuergokoa) eta joera ekonomikoak edo etekina ateratzeko moduak.

Nekazaritzaren txirotasuna betidanik azpimarratu izan dute Euskal Herriko isurialde atlantikoan, eta berdina gertatu izan da Arrasaten. XVIII. mendearen bukaerako giroaz "Real Academia de la Historia"k eginiko liburuan adierazten dute nekazaritza giroan produkturik garrantzitsuenak zirela garia, artoa (arta xehea), babarruna, baba, arbia eta patata.

Arrasateko baserriaren ezaugarriak:

- Klima hezeak eta mendiak baldintzatutako nekazaritza
- Baserria da unitate ekonomikoa eta hortik bertatik antolatzen dira baratza, soroa, sagastia...
- Landa irekiduna eta merkatura begira.
- Zuzenekoa ez den ustiapena: industriarekin tartekatuta
- Askotariko produktuak: baratza, belardiak, fruta arbolak...

Mendez mende baserritarrak garai historiko bakoitzera egokitu dira. Euskal Herriko ingurune honetako baliabideen urritasuna kontuan hartuta, baserritarrek dibertsifikazio ekonomikora jo dute.

Lan banaketari dagokionez baserrietan lanak eta ardurak sexuen eta adinaren arabera banatu dira, lan harremanen irizpide nagusi bezala.

Emakumeak:
- Nekazari lana (baratzeko lana, belarrak biltzea, esnea batzea...)
- Etxeko lana (janaria prestatzea, arropa garbitzea eta jostea, umeak zaintzea...)
- Baserriko produktuak merkaturatzea (batez ere, barazki txikiak, behi esnea eta animalia txikiak)

Gizonezkoak:
- Nekazari lana (baratzeko lana, belarrak biltzea, esnea batzea...)
- Baserriko produktuak merkaturatzea (animalia handiak, batez ere)

Seme-alabek ere oso gaztetatik parte hartzen zuten baserriko lan banaketan. Arruntena aitari edo amari laguntzea izaten zen.

Etxeko kide bakoitzak lagundu izan du baserriak biziraun dezan, baina egoera sozio-ekonomikoa zeharo aldatu da joandako mendean eta, horren ondorioz, baserrien egitura eta eginkizuna ere aldatzen joan dira.

XX. mende erdialdean, ordura arte mantendutako sistema ekonomikoa nazioarteko kapitalismoarekin uztartu zen. Eragin handia izan zuen eskualdean eta herrian eta, beraz, baserriaren garapenean.

Baserritarrak lantegietara hurbildu ziren eta garapen ekonomikoa tarteko, baserriak merkatuarekin zuen harremana aldatu zen, egitura ekonomiko industrialera egokitu zen eta hiri kontsumora bideratu. Ekoizpen ereduak zeharo aldatu ziren aurrerapen teknologikoak tarteko. Eskulana ere nabarmen gutxiagotu zen. Nekazaritza intentsiboa nagusitzen joan da azken hamarkadetan eta gaurko egunean ezagutzen dugun eredua indartu da.

Baserri tradizionalaren ordez eredu berriak nagusitzen doaz, antzinako funtzioak alde batera utzi eta beste bide batzuk jorratzen ari dira, hala nola, turismora bideratutakoak eta etxebizitza baino ez diren baserriak.

Hauek dira eredu nagusiak:

- Baserri mistoa: jarduera ekonomiko bat baino gehiago aldi berean aurrera eramaten dituztenak. Normalean industrian lan egiten dute "sobera" duten denboran baserri lanetan aritzen dira.
- Baserri-etxebizitzaren eredua: baserriaren izaera eraikuntzan soilik mantentzen da. Etxebizitza arrunta da.
- Zerbitzuetara bideratutako baserriaren eredua: nekazaritza turismoak, tabernak, sagardotegiak...

Industriak, 1960. urtetik aurrera, eraikitzeko eta etxebizitzak egiteko, uzkurtze handia ekarri zuen lehen sektorean, eta larreak eta baratzeak desagertzen joan ziren.

Industria iraultzak, teknologiaren etengabeko bilakaerak, fabrikak agertu izanak (1860,1906, 1920, 1956) mekanizazioaren aroaren hasierak (1960ko hamarkadatik aurrera), komertzializazioaren etengabeko bilakaerak (1970urtetik aurrera) eta egungo globalizazio-aroak (1990ko hamarkadatik aurrera), hasieran pixkanaka-pixkanaka eta gero abiadura geldiezinean, bizimoduari dagokionez, erabat eraldatu dute baserriaren kontzepzioa denbora tarte laburrean, ustiakuntza unitate moduan, eta kinka larrian utzi dute baserriaren geroa.




1990. urtean , 235 baserri zentsauta zeuden Arrasaten, baina hauetan soilik 50 pertsona bizi ziren dedikazio osoarekin baserriaz, langileen poblazioaren %0´5 hain zuzen ere.Hamar urte beranduago, 15 pertsona aritzen ziren nekazaritza arloan enplegaturiko pertsonen kopurua, eta 2001. urtean 13 pertsona ziren. Halaber, Tomas Madinabeitia ingeniariak Arrasateko Udalarentzat egindako lan batean, 1989 eta 2001 bitartean kultibatzeko terrenoaren % 52 galdu zen Arrasaten eta tarte horretan, baserritarren oinarririk handiena abeltzaintza bada ere, ia % 30eko jaitsiera izan du. Gainera, ez zegoen esne behien ustiakuntzarik Arrasaten 2001. urtean, eta azken hamar urte hauetan progresioa ere, modu negatiboan, handia izan da eta sektorean belaunaldi erreleborik ez badago, sektorearen etorkizuna kinka larrian egongo da...

***JARDUERA: Liburuxkan udalerriko mapa duzue. Herriko baserri batzuk kokatu ditugu. Honekin batera doan zerrendan duzue izena, kokapen zenbakiarekin. Horietako batzuk botata daude; ikur batez daude adierazita.***
***Haien lekuan, auzoak, industrialdeak eta abar egin dituzte, eta askok izena hartu dute desagertutako baserri horietatik.***

| |
|---|
| **1. Aranguren (Musakola)** |
| **2. Altzibar (Musakola)** |
| **3. Zigorrolaazpikoa (Musakola)*** |
| **4. Mojategi (Musakola)** |
| **5. Etxezarreta (Musakola)*** |
| **6. Itsasondo (Musakola)*** |
| **7. Kataide (Musakola)*** |
| **8. Agirretxebarri (Musakola)** |
| **9. Agirre edo Agarre (Musakola)*** |
| **10. Meatzaga (Meatzerreka)** |
| **11. Salturri (Meatzerreka)** |
| **12. Kostobal (Meatzerreka)*** |
| **13. San Balerio (Meatzerreka)** |
| **14.- Etxaldebarri ( Meatzerreka)** |
| **15. Antzarrigartu (Zaldibar)** |
| **16. Santa Marina (Zaldibar) *** |
| **17. Loo (Zaldibar)** |
| **18. Makatzena (Zaldibar)*** |
| **19. Dolara (Udala)** |
| **20. Kabuena (Udala)** |
| **21. Txukurrillo (Udala)*** |
| **22. Beaskoa (Udala)** |
| **23. Artazubiaga (Bedoña)** |
| **24. Andra Mari Zuri (Bedoña)** |



| |
|---|
| 25. Magalbe (Bedoña)* |
| 26. Gorostitza (Uribarri) |
| 27. Markulete (Uribarri)* |
| 28. Larratxu (Uribarri) |
| 29. Olarantxiki (Uribarri)* |
| 30. Oleaga (Uribarri) |
| 31. Ekutio (Uribarri) |
| 32. Usaetxe (Uribarri)* |
| 33. Bastergaingañekoa (Uribarri) |
| 34. Miraballes (San Andres/Bedoñabe) |
| 35. Intxausti (San Andres/Bedoñabe) |
| 36. Bedoñabeerdi (San Andres/Bedoñabe)* |
| 37. Etxaluze* (San Andres/Bedoñabe) |
| 38. Otamendi (San Andres/Bedoñabe) |
| 39. Satorretxe (San Andres/Bedoñabe) |
| 40. San Jurgi (Gesalibar) |
| 41. Arroaga (Gesalibar) |
| 42. Imendi (Gesalibar) |
| 43. Erenuzketaaldekoa (Gesalibar) |
| 44. Emaldi (Garagartza) |
| 45. Bostate * |
| 46. Akiso (Garagartza) |
| 47. Aizpekoa (Garagartza) |
| 48. Korreoena (Garagartza) |

*JARDUERA 1: Zerrenda horretan hainbat baserri izen duzu. + Ikurra dutenak botata daude. Koloreztatu itzazu mapan gorriz.*
*Koadernoko 14. orria.*

*JARDUERA 2: Baserrietako hitz asko galdu dira, berez lanbideak edo erabiltzen ziren tresnak galdu edo erabili ez direlako. Beste berba batzuk, berriz, gorde egin dira eta gure egunoroko hiztegian erabili ditzakegu. Lehen ogia zelan egiten zuten gogora ekarri nahi izan dugu, alderatzeko zein hitz erabiltzen diren eta zeintzuk ez. Ogia baserrietan normalean ez da horrela egiten, baina oinarrizko hainbat osagai eta prozedura daude hor. Banan-banan irakurri behar dituzu emandako pausuak, eta gero, xedea da galdetzea hitz horietakoren bat erabiltzen dugun gaur egun.*
*1.-Ehotu (ixotu, moler) erabiltzen da. 2.- Oremahaia (eromaixe, artesa), bahea (baie-cedazo), eralgi iragazi, cribar), zahia (zaixe, salvado); birzahia (birzaixe, salvado menudo). 3.- Azkarria (azkarrixe-legamia, levadura). 4.- Orea (masa). 6.- Ipiskia (ipiskixe, paleta). 7.- Labesua (horno-fuego del horno).*
*Koadernoko 15.orrialdea.*



## 11.- INDUSTRIALDEAK.

XIX. mendean lantegiak zabaltzen hasi zirenean, lehenak ibaiaren inguruan finkatu ziren. Urte haietan industriak izan zuen bizkortze ikaragarriak biztanleak ugaritu zituen.
XX. mendean, jada, etxeak eta lantegiak anabasan ugaritzen ari ziren. Etxepe asko, gainera, tailerrak eta lantegi txikiak ziren.

XX. mendeko 1980oko hamarkadak krisi ekonomikoa eta birmoldaketa industriala ekarri zituen eta lantegi eta tailer asko itxi egin behar izan zituzten.

XX. mendearen amaieran, batetik, Udalak zehaztutako Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorraren eraginez, bizi kalitatea hobetzeko, industriak etxebizitzen esparrutik aldentzen joan dira eta industrialdeak, industria multzo bezala, ordenatzen joan dira, eta gehienak herriaren kanpoaldean kokatu dira. Horrela, San Andres auzoan, herriaren kanpoaldean, 1956. urtetik aurrera **kooperatiben industrialdea** sortzen joan da eta Aretxabaletako mugan **Mugarrieta industrialdea.**

Uribarri auzotik Garagartzaraino aspalditik zegoen **Fagor Garagartza enpresaren industrialdea,** baina geroago **Markulete industrialdean** joan dira kokatzen hainbat enpresa, eta azkeneko urteotan, nahiko gertu auzoko etxebizitzetatik, **Garaia berrikuntza gunea** arian-arian eraikitzen ari da.

Musakola auzoan bi industrialde daude, bata, kanpoaldean, Bergarako irteeran, **Kataide industrialdea,** 1989. urtean egina, erreka bidea desbideratu eta gero industria berriak sortzeko; eta bestea, auzo barruan, errekaren aldean, Jubilatuen etxearen egoitzatik Osiñaga baserriraino, **A-20 izeneko eremuan,** hainbat industria kokatu eta "ordenatu" dira.
**Zaldibar** (Zalduspe) auzoan beste industrialde bat dago, industria batzuk gelditzen dira ospitalearen ondoan, saihesbidearen aldean, eta beste batzuk erreka aldean.

Nabarmentzeko da hainbat hamarkadetan Union Cerrajera auzo honetan egon zela, "Igelaren iturritik" -Etxaluze ondotik- gaur egungo ospitaleraino, baina 1988tik 2006ra arte apurka-apurka desegin eta gero, enpresa eraman zuten esparru horretatik, eta etxeak egin dituzte eta egiten ari dira gaur egun.

Lehen Meatzerreka auzoan industrialde bat zegoen, baina egun ia ez dago enpresarik bertan kokaturik.




**2.unitatearekin batera banatu genituen mapez baliaturik, arbelean jarrita industrialdeak non dauden adieraziko dizkiegu ikasleei eta gero bi jarduera hauek lantzea proposatuko dizkiegu**:

***JARDUERA 1: Baserri asko erreken ubidean zeuden, baina industrialdeak hartu ditu nekazaritza eremu horiek. Argazki honetan, etxetresna elektrikoen enpresa handi batek lur eremu zati bat hartzen du gaur egun. Zein izen du enpresa horrek?***

***JARDUERA 2: Erdialdean zeuden enpresen lur eremuetan, gehienetan, etxebizitzak eraiki dituzte. Begiratu plano honetan ea asmatzen duzun Union Cerrajera enpresa non zegoen. Margotu arkatzez argazkiaren gainean.***

*Koadernoko 16.orrialdea.*

## 12.- UDALA. UDAL ZERBITZUAK.

Udala, estatuaren administrazio maila beherena; udalerria administratzen duten pertsonen multzoa, alkateak eta zinegotziek osatua. Gure garaian hauteskundeak egiten dira lau urtean behin, udal ordezkariak aukeratzeko. Ez da horrela izan, ordea, garai guztietan.

Hiri Gutuna izan aurretik, kontseju irekiak gobernatzen zuen herria. Herritar guztiak biltzen ziren eta erabakiak hartzeko orduan denek parte hartzen zuten. Bilerak kanposantu aurrean edota herriko elizan, parrokiako kanpaiak joz. Adostasunik ez zegoenean, herriko zaharrenek esandakoa entzun ondoren hartzen zuten erabakia.

Hiribildua sortu zenean, batzar irekiak desagertzen hasi ziren eta “kontzeju itxiak”; hau da aukeratutako ordezkari gutxi batzuk -normalean herriko aberatsenak- bakarrik batzen ziren. Batzar horiek 1757 arte -udaletxea egin zuten arte- Olarte kaleko 21. zenbakian egiten zituzten. Arrasaten, Guraia eta Bañez leinuen arteko ikusiezina zela-eta kontzejukideak batean eta bestean izaten ziren.

(1382-1490) denbora tartean hauxe zen banaketa: Guraiatarrek 3 fiel, alkate bat, eskribau bat eta epaile bat, Bañeztarrek ere 3 fiel, alkate bat, eskribau bat eta epaile bat, eta elkarrekin epaile bat zeukaten. Hauek ziren gobernuburuak:

- Alkatea. Urtebeterako herritarrek aukeratua. Justizia eman, ordena zaindu, salneurriak kontrolatu...
- Erregidoreak. Alkatearen zerbitzuan. Ordena publikoa, merkatuen zerbitzua...zuten betebehartzat.
- Epaileak edo fielak. Ekonomiaz arduratzen ziren.
- Eskribaua. Idazkaritza.
- Sagramenteroa. Alkatearen erabakiak jendeari betearazteko aukeratua.
- Prebostea. Zerga biltzailea.
- Prokuradorea. Probintziako batzarretara joateko aukeratua.



Ahaide nagusien eta leinuen indarra neurtzeko esanguratsua da nola 1454. urte arte bando bakoitzaren buruek zituzten herriko giltzak eta ez alkateek.

Garai hartan ordenantza ugari egin zituzten, benakeroena 1434. urtean, masukeroena 1455an, harakinena 1484an eta hainbat suteren ostean hiribildua berritzeko hainbat neurri artesa eta herri lurretara bisita egitea (1463).

1490. urtean Errege-erregina katolikoek leinuen abolizioa gauzatzeko agindua eman zuten " *Que de aquí en adelante para siempre jamás no ayan ni se nombre las dichas parentelas ni parcialidades ni bandos dellas de Guraya e Bañes…más que todos juntamente hos llameys de Mondragón*". Lehen hainbat gobernuburu biltzen ziren bando edo leinuaren izenean, baina 1490. urtetik aurrera, "a campana tañida", ezkilak jo eta komunitate osoaren izenean, hau da , "a voz de concejo".

Udala osatzeko moduari dagokionez, udalaren osaerak beste aldaera sakon bat izan zuen diktadura garaian, XX.mendeko Gerra Zibilaren ondoren. Herri bozketaren bidez aukeratutako udalak berehala desegin eta, haien ordez, probintziako Gobernadore Zibilak zuzenean beste udalbatza batzuk inposatu baitzituen.

Udalak hainbat eginkizun ditu. Haien inguruan aritzea proposatzen dizuegu. Nortzuk osatzen duten udala, nola hautatzen diren, zer egiten duten, eta abar.
Gainera, hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie herritarrei.

Jarduera honen bidez, ikasleei eskaini nahi diegu udalaren eta udaletxearen gaineko oinarrizko jakintza.

***JARDUERA 1:- Badakizu nola dagoen osatuta udala? Osatu eskema, hitz egokia aukeratuz.***

***JARDUERA 2: Badakizu nortzuk aukeratzen dituzten zinegotziak?***

***JARDUERA 3: Eta alkatea?***

***JARDUERA 4: Azaldu hitz gutxitan zertarako diren zerbitzu hauek.***

***JARDUERA 5: Gelako taldea da, seguruenik, antolatu behar dugun gertueneko taldea. Hausnartu dezakegu ikasleekin gelaren antolaketaren inguruan: arduradunak edo gelako ordezkariak izanez gero, nola aukeratzen dituzuen, nola aukera daitezkeen, zein beste antolaketa modu erabili daitekeen, eta abar.***

***Ezagutu dugu udala nola osatzen den. Zer iruditzen zaizu udala osatzeko modu hori? Bururatzen zaizu beste moduren bat herritarrak hobeto ordezkatzeko?***




***Eta gela? Nork agintzen du gelan? Nola aukeratzen duzue? Gustura zaude antolaketa horrekin? Proposatuko zenuke beste moduren bat gela antolatzeko, eta arduradunak, koordinatzaileak edo ordezkariak aukeratzeko modua?***
*Koadernoko 17. eta 18.orrialdeak.*

## 13.- MUSIKA.

Oraingoan asmoa dugu herrian ditugun hainbat kultura adierazpenetara hurbiltzeko. Koadernotxoan hainbat datu eman ditugu: **Seber Altube** gaiteroa eta bandako zuzendaria izan zela.

Udalak ere txistulariak izan zituen eta kendu zituen arte igandero, herrian zehar, itzulia egiten zuten musika jotzen. **Musika banda 1974**. urtean kendu zuten
**Juan Arzamendi** (1927-2004) Arrasate Musikaleko ikasleen orkestra sinfonikoaren zuzendaria izan zen eta Danok abesbatza sortu zuen. Hainbat musika obra konposatu zuen; "Udalamendi" poema sinfonikoa, "Maria Errauskin" opera, San Viator ikastolako gurasoekin eta ikasleekin antzeztu zuena "Gora Arrasate" martxa eta "Requiem para tenor, coro y organo".

**Albina Madinabeitia** (1910-1996) urtean jaio zen Arrasaten. Solfeo eta biolina jotzen aitak erakutsi zion, oso goizetik. Zortzi urte besterik ez zituela Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka bat lortu zuen Bartzelonan ikasteko, Clemente Ibargurenerekin. Ibargurenek Leintz Gatzagan igarotzen zituen udak biolina jotzeko zituen dohainak eta trebetasunak erakusteko. Ibarguren harri eta zur geratu zen haurraren musikarako erraztasunarekin eta Bartzelonako etxean tokia eskaini zion. Bost urte igaro zituen Albinak Bartzelonan. Gero, Madrilera jo zuen, hango Musika Kontserbatoriora.

Hogeita hiru urte zuela, 1932an ezkondu zen eta albo batera utzi zuen jardun artistikoa. Gerra Zibilaren ondorioz senarrak Frantziara ihes egin behar izan zuen 1937an. Albina Bilbon gelditu zen.

Gerra bukatu eta Turina maisuak Madrileño Orkestra Nazionalerako deitu zion. Madrilera egin zuen, beraz, gurasoekin eta semearekin batera. Hogeita bost urtean jo zuen orkestra berean erretiroa hartu zuen arte.
Aurkezturiko sari eta oposizio guztietan lehen saria lortu zuen.

**Arrasate musikal elkartea** 1972. urtean sortu zen, 360 ikasleekin, eta gaur, 576 ikaslek, 34 irakaslek eta 700 bazkidek osatzen dute elkartea.
1981. urtean ofizialak ez ziren eskolen artean, Euskadiko lehena izan zen oinarrizko mailara arte irakasteko oniritzia jasotzen. Gerora, berriz arautitako erdi mailako ikasketak burutu ahal izan ziren herrian. 1992. urtetik aurrera, Arrasate Musikal arautu gabeko musika eskola da.Gaur egun talde hauek ditu: **Banda txikia, banda handia, orkestra gaztea eta orkestra sinfonikoa, Big banda, perkusio taldea, talde mistoak eta dantza taldea.**

"Arrasate Musical" sortu zenetik, eskolak ematen eta gazteen orkestran parte hartzen lagundu zuen.

Musikari horiez gain, azken urteotan **Jose Ramon Vitoria** arrasatearra ari da nabarmentzen musika arloan, Arrasate Musikaleko eta MUko Haur Hezkuntzako eta HH bereziko musika irakaslea da eta azken urteotan Aschero musika sistema lantzen hasi zen, behar bereziak zituzten haurrekin. Bere lan pedagogikoaz gain, "Errementari dantza"ren kantaren musika sortzailea da eta baita "txerri dantza"ren kantua ere.

Udaleko txistulari banda desagertu zen, baina betidanik irakatsi dute txistua herrian eta biribilketak zein kalejirak egiteko txistulari gaituak izan dira beti herrian. Egun, **Udalaxpeko txistulari taldeak** tinko jarraitzen du bere jarduera kulturala arrasatearron gozamenerako. **Trikitixa eskolak** ibilbide musikal polita hasi zuen duela urte batzuk pandero eta trikitixa eskola irakasten arrasatearrei, **Txalaparta talde**koek hainbat belaunaldirekin egin duten bezala txalapartaren soinu "magikoa" irakasten.

Duela 31 urte "**Arrasateko gaiteroak**" taldea sortu zen Esteban eta Enrique Dolara anaien eskutik. Iruñean ikasi zuten gaita jotzen, hango gaiteroekin eta gaitekin batera atabala ere jotzen dute.Anaiekin batera gehienbat: E. Abarrategi, Lander Lorenzo eta Iñaki Barrena ibili dira eta normalean, herrian San Juanetan, Musakolako jaietan, eta Kiliki eta buruhandien konparsaren irtereetan jotzen dute.

Beste arlo batzuetan gertatu eta gertatzen den bezala, Arrasate herri oparoa da rock musika eta taldeei dagokienez. 80. hamarkadatik hasita gure herrian etengabekoa izan da rock taldeen eta berauen doinuen presentzia, gaur egun ere abestiak astintzen eskenatoki nahiz entsegu lokaletan talde asko ditugularik. Ugariak eta askotarikoak ere badira, herriko taldeek atera dituzten maketa eta diskak, gaur egun talde horietako asko ikusteko aukerarik izango ez dugun arren, badaukagu euren a bestiak entzuteko parada.

XX.mendeko 60.hamarkadan dantzaldietako musika talde ugari sortu ziren herrian, "berbenak" dantzaldiak hasi ziren antolatzen gazteentzat eta **Los Iris** (1964), **Orkesta Arrasate** (1965), **" los Dragones**" (1966), " **los Ray**" eta " **Los Frater Boys**" (1967) . " **Jaguar, "Cactus", " Los Idolos" (1970), " Los Delfines"(1970), " Lortu**" , " **Eguzki"** musika taldeak ibiltzen ziren herriz herri musika jotzen. Hauetariko askok azoka estalian " Berdury hall"en jotzen zuten eta zabaldu berri zen " Otamendi "jai aretoan.

Frankismo garaiaren azkeneko urteak ziren, baina Zaldibarko frontoian, Juventud Deportiva de Mondragon taldearen barruan sorturiko "**Danok" elkarteak** antolatu zuen lehendabiziko aldiz euskal kantarik onena hautatzeko jaialdia 1971ean. Arrasaten. Hemen antolatzeaz gain, Bergaran, Iruñean eta Donostian antolatu zituzten jaialdi haiek, euskal kantak suspertzeko eta kanturik onena hautatzeko; hemen sekulako arrakasta izan zuen jaialdi hark, garai beltz hartan. "Ez dok amairu" taldea sortu berri zen Euskal Herria eta ematen



zuen euskal kantak bere lehenengo pausuak ematen ari zela berpizteko. "Guria" izeneko kantua, Donato Larrañagak kantatua, izan zen irabazlea.

Halaber, rock taldeak gure herriaren historiaren parte dira eta izango dira, besteak beste:

**RIP**: Euskal Herriko talde mitikoetako bat, oraindik ere haien kantuak edozein lekutan entzuteko aukera daukagu. Musikari eta hitzei dagokienez, dudarik gabe, Euskal Herriko punkaren oinarria.
**Puñetazo:** arrasatearron artean haien lana oso ezaguna ez den arren, azken hamarkadetan eta gaur egungo taldeengan zuzenean eragin du
**Zakarrak**: Kaleko punkaren edo oi! musikaren Euskal Herriko erreferentea.
**SS77**: 1980oko hamarkadako nortasun handiko rock taldea.
**Iskanbila:** Euskarazko oi! musika joeraren talde garrantzitsuenetako bat.
**Ekon**: Metala eta joera berriak maisuki nahastu zituen Arrasateko taldeak. Hiru lan kaleratu zituen eta benetan azpimarragarria izan zen kontzertuetako eszenografia.
**Brutal Melody**: Metala, hardcorea eta muturreko beste hainbat doinu eta erritmo jorratzen zituen talde arrasatearrak. Aipatzekoa da ere haien zuzenekoa.
**La Txusma**: 1990eko hamarkadatik herrian izan dugun rock-a eta heavy-aren erreferentea.
**Bad f-Line**: Euskal Herrian musika industriala jorratu zuen lehen taldeetako bat, disko ugari kaleratu zuen.
**Des-Kontrol**: 1990eko hamarkadaren amaieratik Arrasateko talde esanguratsuenetako bat, disko eta kontzertu ugari, Europa eta AEBetan ere birak egin dituena.
**Kañeria** 13: Garagartza auzoko taldea
**Numen**: Euskal black metalaren aitzindariak, muturreko erritmoak eta euskal mitologiaren erritmoak uztartzen dituzte, gaur egun alde batera utzita dituzte eszenatokiak.
**Arkada Social**: Arrasateko punk rock-aren beste talde esanguratsu bat, 1990eko hamarkadaren bukaeran sortua; lan bakarrarekin herrian zale ugari izan du.
**Never Surrender**: Belaunaldi berriko Arrasateko punk rock-aren ikurretako bat dugu, bi disko eta zuzeneko ugari; gaur egungo erreferente bilakatu dira.
**Gose:** Euskal Herria proposamen guztiz berritzailearekin seduzitu duen taldea, trikitia, elektronika, eta rock-aren nahasketarekin norabide berria eman dio euskal musikari.
Duela 4 urte Goiena enpresak musika talde berriak ezagutarazteko eta lehiaketan parte hartzeko antolatu zuen **"Danbaka "** izeneko lehiaketa, Debagoineko esparruan. 2010. urtean 4. edizioa antolatu du Debagoienean, Debabarrenean eta Durangaldean.

Aspalditik herrian izan dira herriko musika taldeek entseatzeko udal lokalak, lokal zaharra, Musakola auzoan lehengo ur depositatuaren ondoan eta berriak Gaztetxearen gaineko solairuan.




## 14.- KANTATZEN DUEN HERRIA

Eliza organo joleak funtsezkoak izan ziren abesbatzen fenomenoa gureganatzerakoan. Haiek hezi zituzten haur kantariak, tipleak, eta gero kantari heldu bilakatu ziren: tenoreak, baritonoak. Ospetsuak izan ziren garai hartako parrokiako organo jotzaileak: Dionisio Isasmendi, Frantzisko Arrizabalaga eta David Arzamendi, azken hori 1993az geroztik parrokiako organo jotzailea.

Hainbat hamarkadetan parrokiako koruak iraun du eta pertsona haiek epe luzerako plangintza egin zuten eta, egun, oraindik batzuek beren ekarpenak egiten dituzte elizkizunetan.

*Zartzuela.**

Ohitura lehenagotik bazetorren ere, zartzuelen aro berria 1950eko apirilaren 24an hasi zen. Egun hartan "La Marcha de Cádiz" deritzan zartzuela antzeztu zuten ofizinista arrasatearrek (haien zaindari egunean). Geroago, "La banda de trompetas", biak David Artzamendiren ardurapean.

Lortutako arrakastagatik, zartzuelekin jarraitu zuten eta lau antzeztu zituzten lehengo Gurea zineman:" La dolorosa", "Los claveles", "Marinaren brindisa" eta "La alegría del huerto". Geroago etorri ziren "Katiuska", "la tabernera del Puerto", "los gavilanes", "El caserío", sortzailea Arrasaten izan zen, eta obra guztiak David Arzamendik zuzendu zituen. 1960. urtean Jesus Aranbarriren zuzendaritzapean "Mirentxu" obra antzeztu eta kantatu zuten Parrokiako abesbatza osatzen zuten artista arrasatearrek (mutilek eta neskek).

Garai hartako lekukoa, 2000. urteaz geroztik, **Izaskun Murgia elkarte lirikoaren** talde arrasatearrak hartu du, gogoz eta indartsu, zartzuela obren antzezpena, eta urtero, abendu partean, gaztelaniaz edo euskaraz kantatu dituzte zartzuela hauek.

Obren izenak: 2001. urtean; "Katiuska"; 2002. urtean: "Los Gavilanes"; 2003: " Luiasa Fernandez" 2004: " El huesped del sevillano"; 2005: "Baserria"; 2006: " la Leyenda del beso"; 2007: " El duelo de la africana"; 2008: El barberillo de Lavapies"; 2009: " la corte del faraón"; 2010: " La gran Vía".
1999. urtean, SUCDek antolatuta, Goikobalurekin batera, "El caserío" antzeztu zen Amaia antzokian.
Opera ere azkeneko urteotan indarrarekin sustatzen ari da herrian: 2012an "LA Boheme", 2013an "la Traviata", 2014an "Madame Butterfly" eta "Don Giovanni" eta 2015ean "Rigoletto".

**ABESBATZAK**

1950. urtean **Coral Mondragonesa** izeneko abesbatza sortu zen herrian. Hasiera batean gizonezkoen ahotsekin bakarrik osatua, baina geroago emakumeen ahots eta presentziarekin osatu zen abesbatza.




Tradizioak agintzen duen moduan, urtero **Santa Ageda egunaren** bezperan koroak irteten dira kalera kantatzera, baserriz baserri, etxez etxe, kalez kale, eta Arrasaten egun berezia izaten da.

Juanito Arzamendik sortutako **Danok abesbatza** urte askoan izan zen kontzertuak eskaintzen herriz herri denon gozamenerako eta asetu zuen hainbat arrasatearrek kanturako zuten zaletasuna.

Parrokiako koruan, Danok abesbatzan eta zartzueletan aritutako pertsonekin **Goikobalu abesbatza** sortu zen 1989. urtean, eta ibilbide oparoa egin du bere jardunarekin, nazioartean eta Euskal Herrian. 1992. urteaz geroztik, Orfeon Donostiarrarekin parte hartzen du, hainbat kontzertutan. Lausardi koru sinfonikoa osatu du Oñatiko eta Bergarako abesbatzekin, eta hiru talde ditu bere baitan: Goikobalu izartxoak, Goikobalu txiki eta Goikobalu gazte.

Duela urte batzuk **Portaloi taldea** sortu zen herrian herriko kantak kantzatzeko zaletasuna bultzatzeko ekitaldi desberdinetan , kalean eta jaietan.
Duela gutxi **Txorbela otxotea (zortzikotea**) sortu da.

***JARDUERA1 : Zuetako batzuk koruren bateko kantariak izango zarete, agian. Badakizue zein koru dauden herrian?***
***JARDUERA 2: Ezagutzen duzue herriko musika talderik, musikagilerik edo musikaririk?***
***JARDUERA 3: Badakizu gure herriaz diharduen kanturik?***
*Koadernoko 19.orrialdea.*

## 15.- BERTSOLARITZA.

**Patxi Goikolea arrasatearrak**, Juanito Akixu eskoariatzarrak eta Xanti Iparragirre errenteriarrak  Euskal Herriko lehendabiziko bertso eskola sortu zuten 1974ko otsailean, Almen bertso eskola, hain zuzen ere. Garai hartan Arrasatera etorri berri zen Abel Muniategi Bizkaiko bertsolariak lagundu zuen lehendabiziko bileretan.
Hasiera batean 125 ikaslek eman zuten izena eta hilabete batzuen buruan, 40 inguru gelditu ziren.
Labekada hartatik, Sarasua anaiak, (Jon, Aitor, Xabier), **Jon Iñaki Izarzelaia eta Danel Goikolea** arrasatearrak eta Felix Iñurrategi irten ziren, eta 1981eko maiatzean jokatu zen 1. eskolarteko txapelketara joan ziren, eta sari ugari lortu zuten.

Bailaran bertsolari mundua oso ezezaguna zen, eta gutxi zeuden: Joxemari Errota, Osina baserrikoa, Aita Demetrio Garmendia fraidea eta Apotzaga auzoko bertsozale giroan zebiltzanak, Jabier San Miguel, Isidro San Miguel, Jose Luis San Miguel, Anjel San Miguel, Julian Oianguren, Felix Oianguren, Kepa Urain, Jose Ramon Beitia, Maximo Letona eta Iñaki Plazaola.




2002-2003 ikasturteaz geroztik, eskoletan "**Ahozkotasuna eta Bertsolaritza**" izeneko programa jarri zuen martxan **Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak**, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin bertsolaritza sustatu eta lantzeko. Programa horren finantzaketa bailarako udalen kontura da eta hasieratik Leintz bailarako udalak (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) sartu ziren programa honetan eta aitzindari dira Gipuzkoan.Arrasaten. Ikasleen irakasle gisa, hainbat urtetan **Nerea Urra** arrasatearrak dihardu.

Azkeneko urteotan **Jokin Labaien** arrasatearra nabarmendu da bertsolaritza lantzen herrian eta plaza ugari egin ditu eta hainbat txapelketatan parte hartu du.

Duela urte batzuk, **Arrasateko bertso eskola** sortu zen herrian eta indartsu bezain gogotsu dabil bertsolaritzaren "euskal kirola" lantzen.

## 16.- DANTZA

Betidanik egon da sustraituta herrian dantza zaletasuna, eta antzinatik hartu dute parte dantzari taldeek herriko eta elizako festetan. Folklorea, sentimendua, adierazteko modua. Dantza beti da herri baten nortasunaren zati bat, folklorea baino gehiago da.

Gerra aurreko inauterietan, martitzenean bakarrik, eguerdian dantzatzen zuten: lehenengo umeek dantza txikia edo aurreskuak, eta gero, nagusiek aurreskua dantzatzen zuten. Dantzak jende asko mugitzen zuen.

Unitate didaktikoan aipatu dugun moduan, gure herrian bi erromeria ospetsu egiten zuten**:** **Santa Barbarakoa (Goikobalukoa),** musika bandaren eta txistularien laguntzarekin, eta **San Josepekoa**. Gaur egun, ordea, ez dira egiten. Bi erromeria horiez gain, jaietan, **Santamasen bigarren egunean** (abenduaren 22an) erromeria ospetsua egiten zen, baina galtzen joan zen.

Erromeria arratsaldean egiten zuten, Biteri etorbidearen aldean, eskolen aurrean, geroago oraingo Garibai etorbidea dagoen tokian eta azkenean Biteriko lorategietan, estatuaren inguruan.

Beste erromeri ospetsu bat ere **Gesalibarren** egiten zuten, otsailaren 5ean, Santa Agedaren egunean. Errepidean egiten zuten eta hara Arrasateko, Aramaio eta beste herri batzuetako jendea etortzen zen, korro askotako erromeria egiteko. Kotxeen trafikoa handitu ahala, Diputazioak XX. mendeko 1930eko hamarkadan debekatu egin zuen erromeria eta, harrezkero, ospitalearen atzealdean egiten hasi ziren dantzaldiak.

2013an auzolan kulturalaren bidez **Goikobalu erromeria** berreskuratu da etairailean egiten da.




Gerran garaian euskal kulturako gainerako alorretan gertatu zen antzera, dantzak ere geldiune garrantzitsua ezagutu zuen. Geldiune hori, ordea, jendaurrekoa izan zen, zeren dantzak erakutsi eta ikasten zituzten. **Lore gazteak** dantza taldea 1965. urtean sortu zen, Xeli eta Itziar Arregi ahizpek bultzatuta. 1970. urtean, berriz, Marga Mercader-ek, Eugenio Garciak, Iñaki Lizarraldek eta Kepa Urangak, beste batzuekin batera, **Txikitxu** dantza taldea sortu zuten eta 1990. urtean **Arrostaitz** taldea sortu zen herrian. Talde bakoitzak bere txistulariak zituen eta horrela saioak egiten zituzten. Dantza egiteko jantziak errekuperatu dituzte eta Euskal Herri osoko dantzak dantzatzen dituzte.

Gaur egun Arrasate Musikalen dantza talde bat osatu dute, dantza egiteko, baina, egun, herrian talde ugarik eskaintzen du hainbat eta hainbat dantza egiteko aukera. **Udalaren Gazte zerbitzuak** aspalditxotik antolatzen ditu gazteentzat askotariko dantza ikastaroak (euskal dantzak, sabel dantza,...). **Udaleko Emakume Txokoak** ere dantza ikastaroak antolatzen ditu emakumeentzat (gaur egungo dantzak, funky, hip-hop, ekialdeko dantzak...), **Al Andalus eta Corazon de Encina** elkarte erregionalek eta beste talde batzuek tango, pasodoble eta horrelako dantzak.

Hemen proposatzen dugun jarduera hauen bidez helburua da jakitea ikasleek zenbat dantza eta dantza talde ezagutzen duten. Behin dantza motak aipatutakoan, ikasleren batek jakinez gero dantza egiten, dantza egitea proposatuko diogu, gainerako ikasleei erakusteko. Jarduerarekin bukatzeko, aurreskua, ezpata dantza edo beste euskal dantza bat (larrain dantza, errementari dantza, txerri dantza, mutil dantza... ) egingo dugu. Dantzatzen jakinez gero, dantzatzeko eskatuko diogu, CD baten musikarekin lagunduta.

***JARDUERA 1: Alabaina, badaude beste dantza mota batzuk lantzen dituzten taldeak. Ezagutzen duzu halakorik?***
***JARDUERA 2: Zein dantza mota dakizu?***

**Oso dantza zaleak izan gara XX. mendearen hainbat hamarkadetan, domeka arratsaldeetan Herriko plazan dantzaldia izaten zen eta geroago gazteentzat azoka estalian / Berduri Hall" ere, dantzaldiak. Mutilek dantza eskatzen zieten neskei eta bikote ugari sortu ziren urte askoan**.

*Koadernoko 21.orrialdea.*

## 17.- IDAZLEAK.

Unitate didaktikoan aipatu ditugu hainbat idazle arrasatear. **Esteban Garibaikoa** (1533-1599) errege bibliotekaria eta errege kronikaria izan zen, eta "Compendio historial de las crónicas y universal de todos los reinos de España" izeneko liburua idatzi zuen.

**Seber Altube ( 1876-1963)** 1879. urtean jaio zen Maalako errebalan. Arrasaten jaio bazen ere, bere bizitza gehiena Gernikan eman zuen. Gernikako orfeoiaren eta bandaren zuzendaria izatera iritsi zen eta herri hartako alkatea 1931. urtean.

Erbestean izan zen, Argentinan eta Paben, eta herri horretan, hain zuzen ere, bere herriaren sufrimenduari buruz "La Fonction de la douler" izeneko saio filosofiko ezaguna idatzi zuen.

Literaturgilea eta hizkuntzalari aparta izan zen, sintaxiari, azentuari, hizkuntzaren batasunari buruz asko idatzi zuen. Arlo horretan bere lanik interesgarrienak "Euskararen bizitza" eta "Erderismos" izan ziren eta euskaltzaina izan zen 1920. urteaz geroztik.

**Juan Arana Ezpeleta** (1907-1933). " Bedoñako Fray Joakin". Bedoñako "Mendibitsu" baserrian jaio zen Bedoña Aretxabaleta zenean. Oso gazte hasi zen idazten, poesia landu zuen bereziki. Sari asko jaso zituen, baina zorigaiztoko apendizitis erasoaldi batek jota aldendu zitzaigun betiko, 26 urte bete zituen egunean. Bi omenaldi handi egin zioten garai hartan, baina ospetsuena 1959. urtean egindakoa izan zen, garai hartako idazle, bertsolari handiak izan zirelako.

**Jokin Zaitegi** (1906-1979) Arrasaten jaioa, 1906ko uztailaren 26an, Jesusen Lagundian sartu zen 14 urterekin eta Loiolan izan zen. Euskara sustatzeko helburuarekin, latin eta grezierazko idazle klasikoen lanak euskaratzeari ekin zion, Sofoklesen bi lan hartu eta bi liburu mardul argitaratu: "Sofoklesen antzerkiak I eta II".

Loiolatik Oñako (Burgos) santutegira joan zen 1926an, eta handik Venezuelara bidali zuten**.** Geroztik urte ugari eman zituen Euskal Herritik urrun: Belgika, Venezuela, Mexiko, Panama, Guatemala.. baina sekula ez zuen euskara bazterrean utzi.

Eusko Olerti Eguneko lehen saria irabazi zuen 1934an "Tori nire edontzia" izeneko poemarekin. Erdialdeko Amerikara bidali zuten berriro 1938an eta Jesusen Lagundiak euskara kulturarekin zeukan jarrera dela-eta, 1944an utzi egin zuen konpainia eta Guatemalara joan zen eta 1946an "Goldaketan" poema liburua argitaratu zuen. Antzinako greziarren munduetara itzultzea gustokoa zuen eta Platonen, Euripidesen ...itzultzaile trebea izan zen.

Guatemalan, 1950ean, "Euzko Gogoa" aldizkaria sortu zuen, gerra osteko lehen euskarazko argitalpena.

**Jose Letona Arrieta** (1908-1987**).** Anaiarekin batera Arrasateko udalerrian zeuden kobazuloak aztertu zituen eta Aranzadi elkarterako fitxategi bat egin zuen. Halaber, Arkeologia arloan, 1956. urtetik 1965. urtera bitartean Lezetxikiko haitzuloa aztertzeko Jose Miguel Barandiaranek eta Jesus Altunak antolaturiko kanpainetan parte hartu zuen.




Udal artxibozaina izan zen eta, Arrasate herriaren inguruan, Juan Leibarrekin batera egindako monografia, "Mondragón" izenekoa saritu zuten "Pueblos Gipuzkoanos" literatura lehiaketan. 1973. urtean Leintz bailararen gainean egindako bi liburu: "Generalidades y Salinas" y "Arechavaleta y Eskoriaza con sus Anteiglesias" ere aipatzekoak dira.

Prentsa artikuluxka ugari argitaratu zituen eta herriko historia eta elkarteen inguruan hainbat liburuxka argitaratu zituen, beste batzuen artean: "Mondragón y sus calles", "Kurtzebarri", "Pequeña historia del futbol en Mondragón".

Etnologia arloan, Aranzadi etnologia mintegia zuzentzen zuen JM. Barandiarekin lan egin zuen Garagartza-Udalako zonari zegozkion lanak egiteko.

Idazleak, hildakoan, eginiko lan guztiak utzi zizkion familiak Udalari eta, harrezkero, bere artxibategia kontsulta gai dago Kulturaten. Era berean, **Jose Luis Urangak** arrasatearrak asko idatzi zuen herriko historiaz, eta Letonarekin gertatu zen bezala, familiak ere lan guztiak Udalari utzi zizkion.

**Juan de Goyarte**. Marruekoseko gerran izan ondoren Argentinara joan zen eta han hainbat liburu idatzi zituen:" *La semilla que trae el viento"(19409, " La semilla en la tierra" (1942), "La quemazón", " Campos de hierros",(1951), "Lunes de Carnaval", " Lago Argentino" (1955), " El ventisquero", " Tres mujeres", " kilometro 25", " Farsa", eta " Gestación" (1967)*

Herriaren historiaren inguruan azken urteotan **Jose Maria Velez de Mendizabalek** (1949-) liburu asko argitaratatu ditu: Seber Altube (1979), Jokin Zaitegi (1981), lainopean kantari, "Pedro Ignacio de Barrutia", "zeu zara carmen", , "Nire aitaren etxea", "Amuarrantza", "Yehuda", "Nire haurtzaroko Arrasate", "Moskuko Gereziek","Maalako errebala", "Bizi izan juat", "Sebero Altube", "Aramaio eta Arrasate", "Ama Cerrajera" (beste bi idazle gehiagorekin") eta Euskal Herriko aldizkari eta egunkarietan prentsa artikulu ugari idatzi ditu. Halaber, Arrasateko Doke antzerki taldearentzat antzerki obra batzuk idatzi ditu.

**Juan Ramón Garaik** (1949-) "Oktubre taldeko partaideekin batera "Arrasate 1936, belaunaldi etena" eta "Celestino Uriarte _Clandestinidad y resistencia comunista" izeneko liburua idatzi zuen. Velez de Mendizabal eta Jose Angel Barrutiarekin batera "Ama Cerrajera idatzi du". Eskualdean gerra zibilak eragindako egoeraren eta Biteri eskolen zein Maisu Arano eta Teresa Garciaren inguruan prentsa artikuluxka ugari idatzi ditu.

XX. mendearen 1970.eko hamarkadako hasieran **"Bazkun lagunak"** literatura lehiaketa antolatzen zuten herrian, baina ez zuten jarraitu. Gaur egun **AED elkarteak** antolatzen du Jokin Zaitegi literatura sariketa; urtero literatura nobel saria irabazten duen idazlearen obra bat itzuli behar da. Horretaz gain, Leintz eta Ugaran bailaretako ikasleentzako literatur lehiaketak antolatzen ditu urtero, ipuin, poesia, komiki eta bertso paper kategorietan.




***JARDUERA 1: Inoiz hartu duz parte literatur lehiaketaren batean?***
***JARDUERA 2: Arrasate, badago literatur lehiketarik ?***
***JARDUERA 3: Idazle hauetatik zeinek daukate kale izena herrian?***

*Koadernoko 22.orrialdea.*

## 18- ANTZERKIA . ZINEA.

Pedro Ignacio de Barrutia Basagoitia Aramaion jaio zen, baina familiako gehienen sustraiak Arrasaten zeuzkan eta antzerki obra idatzi zuen. "Actto para la noche buena" izeneko obra idatzi zuen eta Resurrección Maria de Azkuek 1897. urtean "Euskaltzale" aldizkarian argitaratu zuen aurreneko aldiz "Gabon Gaberako ikuskizuna" izenpean. Denbora luzean, obra birritan antzeztua zen, baina literatura kritikoek lana mugarri interesgarritzat jotzen dute euskal literaturan.

Unitate didaktikoan jaso dugun bezala, a**ntzerkizaletasuna** betidanik izan da herrian**.** Desagerturiko Trinketean, Accion Catolicaren zentroan eta Gurean funtzioak egiten ziren**.**Garai batean desagerturiko Gurea zineman herriko jendeak, Danok elkarteak sustatuta, funtzioak egiten zituen.

Gero ere Amaia antzokia zabaldu zenez geroztik, talde profesionalek eta amateurrek emanaldi ugari eman dituzte eta hilero Udalak egiten dituen programazioetan presente egoten da antzerkiaren kultura adierazpena, antzokian zein kalean.

Eskoletan betidanik landu da antzerkia eta **Udalak ikastetxeekin batera** urtero antolatzen ditu eskola antzerkiaren jardunaldiak. Jardunaldiok 20. edizioa bete dute aurten.

Garai batean **"Los tunantes del Norte**" izeneko taldea zegoen herrian eta 2004.urtean **Doke taldea** sortu zen herrian eta harrezkero obra ugari antzeztu du, kalean eta eszenatokietan:

Goikobalu abesbatzak herriko hainbat kultura talderekin elkarlanean,bultzaturiko "Eskuak elkarri" obraren antzezpenean lehendabiziko aldiz parte hartu zuten Doke taldekoek.Arrasateko historiaren gaineko antzezpena izan zen.Geroago, JM Velez de Mendizabalek moldaturiko "Acto para la Nochebuena" izeneko obra antzeztu zuten Doke taldeko aktore zein aktoresek eta baita Velez de Mendizabalek idatzitako " Antzinako Arrasate" obra ere.2010.urtean "Iragana iragan" obra taularatzeko asmoa dute.

2011an **"Bagara**" taldeak sortu ditu "toberak" izeneko antzerki obrak Debagoieneko herrien arteko antzarki topaketa egiteko. Toberak Erdi Aroko tradiziotik datorren herria antzerki satirikoa da, eta 2011an, Arrasate herria akusatu bezala agertu zen eta Bergara akusatzaile gisa.




***JARDUERA 1: Ikusi al duzu antzerki lanik inoiz? Non?***

***JARDUERA 2: Banatu taldeetan, eta prestatu antzezlanen bat lagunei eskaintzeko.***
*Koadernoko 18.orrialdea.*

**ZINEA**

Arrasaten eman zen lehen film mutua, azpititulurik gabea eta ibiltaria izan zen eta udaletxeko areto nagusian eman zuten. Ibañezek -Txomin txikik- lehndik ikusia zuen eta filmeko gorabeheren berri ematen zien han biildutakoei. Macario Zabartek Erdikok alean zituen etxabeetan ere eman ziiren filmak noizean behin.

Lehendabiziko zinema-aretoa Olarte kalean ireki zuten. Benito Abarrategiren familiarena zen aretoa, baino "Mardoren zinema" izenez ezagutzen zen herrian. Hango emanaldiak ere mutuak ziiren, baina azpitituluak zituzten eta jende guztiak ozen irakurtzen zituen, zalaparta handia sortuz.

Zine soinudunaren lehen emanaldiak zinema berrian ematen zituzten: Maalako Errabaleko Okendo etxean zegoen trinketeko zinean. Frontoi bezala , dantzaldiak egiteko eta larunbat eta igandeetan filmak ematen zituzten.

1926.urte inguruan Kristobal Bediaren zinema zabaldu zen, Zaldibar frontoiaren aurrean.Zine hori Trinketekoa baina erosoagoa zenezez gero, lehia handia sortu zen bien artean.Trinketea 1931.urtean sozialisten egoitza bihurtu zen eta zineko nagusiek beste areto bata zabaldu zuten Resusta kalean ( Iturriotz) " zine popularra " izenez ezagutzen zena. Bedia zinemak ateak itxi zituen gerra hasi baino lehen.

Gerra ostean, Trinketea zine areto eta frontoi bezala erabili zen eta urte batzuk beranduago Juventud Deportiva de Mondragon zabaldu zuen Gurea ekipamendua non gehien batean zine eta frontoi jarduerak garatu zituzten.

1960ko hamarkadaren hasieran Arrasaten sortu zen lehenetariko Euskal Herriko zine kluba. Juventud Deportibak sortutako Gurea zinematik zenbat belaunaldi pasatu ziren filmak eta beste ikuskizun batzuk ikusteko.

Herrian beste bi areto izan ziren zinea ikusteko, Ideal ( Alai) zinema ( 2003.urtean itxi zituen bere ateak) eta Amaia Antzokia ( 1972.urtean inaguratuta), baina gaur egun udalarena den Amaia Antzokia gelditzen da.

Zinemari dagokionez, arrasatearrak hasi dira saioak egiten azken urteotan. **Manu Gomez arrasatearrak** "Hilarri" izenburuko film laburra egin zuen duela urte batzuk eta film labur horren aktoresa Maider Egues arrasatearra izan zen.

**Jon Anduezak** hainbat film labur egin ditu "Laugarren galeariatik" "Bernar", " Aita guria", "Bilintx" izenekoak eta geroago " Fatimetu, la llamada del desierto" dokumentala egin zuen.Zuzendari laguntzaile gisa "Clara" (1999) telefilmean eta "baserri galdua"n (2005) parte hartu zuen, eta 2009. urtean " Simplemente"izeneko filma egin du. Halaber, zineko aktoresa moduan nabarmendu da, antzerki mundutik, Doke antzerki taldetik, hain juxtu ere, **Mari Asun Pagoaga arrasatearrak** parte hartu zuen oso saritua izan zen "80 egunean " izeneko filmean.

**Iban Del Campok** lehendabiziko dokumentala "Gas man" izenekoa 2001. urtean estreinatu zuen eta gero "Un tal Eusebi" fikzio dokumentala, 2004. urtean. Arrasaten 2008. urtean estreinatu zuen bere lehendabiziko film laburra, euskaraz, "lo bakarrik" izenburuarekin.

## 19.- ZEIN KULTURA JARDUERETAN PARTE HARTZEN OTE DUGUN.

Gure ikasle gehienek eskolaz kanpoko ekintzak egiten dituzte. Ekintza horietatik asko, seguruenik, kultura arlokoak izango dira, eta aipatu ditugun talderen batekin egingo dituzte. Interesgarria izango litzateke horren azterketa eta hausnarketa egitea. Horretarako, datozen jardueretan hainbat galdera proposatuko dizkiegu ikasleei. Horren ondoren taula beteko dugu. Hala ere, nahi izanez gero, sakontzen jarraitu dezakegu. Esate baterako, egiten dituzten jarduerak herrian egiten ote dituzten edo beste herriren batera joaten diren, herrian dagoen eskaintza nahikoa ote den, zer jarduera egiten duten gehienek, eta abar.

***JARDUERA 1: Eta zuk, egiten duzu kultura jardueraren bat: zein?***

***JARDUERA 2: Zure etxekoak kultura talderen bateko partaide dira?***

***JARDUERA 3: Joan zara inoiz ikuskizunen batera? Edo kultura emankizunen bat ikusi edo entzun duzu?***

***JARDUERA 4: Zein kultura jardueratan nahi izango zenuke parte hartu?***
***JARDUERA 5: Eta zure gelako lagunek zer egiten dute? Galdetu eta bete taula.***

***JARDUERA 6: Zein da gehienok egiten duzuen jarduera?***

***JARDUERA 7: Zer da gutxienok egiten duzuena?***

***JARDUERA 8: Lagunen batek egiten du jardueraren bat herritik kanpo? Zein eta non?***

*Koadernoko 23. orrialdea.*




## 20.- GURE JAIAK.

***INAUTERIAK (KUKUMARRU DESFILEA)**

Festa eta tradizio ugari dugu herrian. Haien artean inauterietakoa dugu, ezaugarriengatik eta izan duen historiagatik.

Artxibategian dauden agirietan herrian ospatutako inauteriei buruzko data esanguratsuenetarikoa da **1855ko otsailaren 7koa**. Gogora ekarri nahi dugu Jose Maria Mendiak, Arrasateko alkatea zenak, inauterietarako eman zuen bandoa. Originala gazteleraz zegoen, euskaraz horrela izango zen:

*"Datozen inauteria egunetan ohikoak diren dibertsioak herri honetako bizilagunen kulturaren eta zibilizazioaren kontra joan gabe ospatu daitezen, udal agintariek ordena publikoa kaltetzen dutenen eta bihurrien kontrako neurriak hartu beharrik izan ez dezaten, ondorengo arauok betetzea agintzen dut:*
*1.- Baimena dago, inauterietako hiru egunetan, kalean mozorroarekin eta karetarekin ilunkara arte ibiltzeko.*
*2.- Debekatuta dago erlijioaren ministroen jantziak erabiltzea.*
*3.- Mozorrotutako inork ezin izango du armarik aldean izan.*
*4.- Irain eta mehatxuak debekatuta daude, mozorrotuta zein mozorrotu barik egon. Gizalegearen eta moral publikoaren kontrako hitzak eta ekintzak ere debekatuta daude.*
*5.- Inork ere ezin izango dio, mozorrotuta egon edo ez, beste inori kareta kendu, ez eta kentzera behartu ere, gehiegikeriaren bat egin izan arren, jabeari kalte eginez; baina agintarien aurrera eraman ditzakete, mozorrotuak egindako akatsa ikusteko, behar den erabakia har dezan.*
*6.- Debekatuta dago ostatuetan eta tabernetan kareta jantzita izatea, jabeen ardurapean.*
*7.- Edozein tresna erabiliz jantziak zikindu edo apurtzen dituztenei, behar den zigorra ezarriko die autoritateak.*
*8.- Aurreko arauok betearaztearen ardura udaletxeko aguazilek izango dute.*

Garai hartan domekan, astelehenean eta martitzenean ospatzen zituzten inauterietako jaiak, martitzenean jai zen lantegietan, baina gero egiten ziren gehiegikeriak dela-eta kendu egin zituzten. Primo de Riveraren Diktadurak debekatu egin zituen -aratustiak, aragui-ustia, haratuzteak-inauteriak- (1923-1930), II. Errepublikak (1931-1936) berreskuratu zituen.
Baina gerra zibilaren garaian, 1936an, inauteria festak debekatu egin zituen Espainiako gobernuak.

Igandean ez zen oso jendetsua, urte batzuetan arratsaldean zezena ateratzen zuten eta gauean mozorro batzuk agertzen ziren (kukumarru). Astelehena lan eguna zen eta ez zegoen gauza handirik. Egunik handiena martitzena zen. Irteten zuten kalerik kale (zezena) goizean eta arratsaldean. Egun bakarra zen eguerdian Arrasaten dantzatzen zela lehenengo umeek dantza –txikia edo beren aurreskuak eta gero nagusiek aurreskua dantzatzen zuten. Eguerdian irteten zuten kukumarro batzuek eta arratsaldean askok.

Musika banda udalarena izan aurretik, zaletu batzuk kontratua zeukaten udalarekin eta hark baimena ematen zien dirua jasotzeko eta goizean dirua jasotzen zuten kanta hau abestuz: ***Emongo boizu emoizu/ bestela ezetz esaiozu/ aizia ere otza dago ta/ nere lagunak Irritu/ atzo zar begi urdiña/ zutan erreko sorguiña/ beiñguan etxonau jango/ik emondako zardiña / bekoki illun beelndriña/ zistriñ, erkiñ ta sorguiña/ beiñguan etxonau jango hik emondako sardiña.***

Hauekin batera neska batzuk joaten ziren izara batekin. Beste kanta hau ere kantatzen zuten:
***Artillero dale fuego/ ezkontzen zaigu ba pastelero./ ¿zeñekin edo norekin?/ Pepa zikiñen alabarekin./ Pepa zikiñen esteixetan/ zazpi katakuma frateletan/joten zioten "zirrin da zarran"/ zergaitxik neskatxa zatarra zen.(bis).***

Hainbat herritan, debekuari izkin egiteko, inauteriak ospatzen jarraitu zuten, "Udaberri jaiak" izenarekin. Gipuzkoako gainerako herrietan, gurean ere bai, ohitura zaharrak utzi zituzten, hargatik ahaztu ez bazituzten ere.

Debekua altxa baino lehen, frankismoaren bukaera aldean (1975) herrietan hasi ziren lehenengo aldiz antolatzen inauteriak. Gure herrian inauteri urbanoa berreskuratu zen, jendea mozorrotu, kurrumarro jantzi eta hasieran zapatuetan eta martitzenetan hasi ziren ospatzen.

Hala ere, ahalegin berezi bat egin nahi izan zen herriko inaute festa errekuperatzeko.Bi bide landu ziren errekuperatze lan horretarako:Inauteriak debekatu aurretik egiten ziren jai haietaz jendeak zituen oroimenak biltzea eta beste herrietan egiten ziren ekitaldiak nolabait bereganatu bertan,

Hasieratik, **zapatuan eta martitzenean** hasi ziren antolatzen jaiak, baina larunbatekoa indarra galtzen joan zen eta duela gutxi arte martitzena zen egunik handiena. Arrasateko elkarte gastronomikoen elkarteak (SUDC) Udalarekin batera antolatu izan ditu jaiak.

Martitzenean, arratsalde partean mozorro desfilea egiten da, ikuskizunak izaten dira, txaranga, erraldoi eta kilikien kalejira, dantzaldia eta Sardinaren hileta egoten dira.
Bederatzi urtean **Amaia antzokian play back** ikuskizuna antolatu zen, arrakasta handiarekin.
Aspalditxotik zapatuan ospatzen bazen ere, nahiko eskas gelditzen zen herrian, baina **2005. urteaz geroztik, herriko koadrilek bultzatuta lortu dute inauterietako zapatua berpiztea**, eta bihurtzea zapatua egun handi jaietan.

**Zapatuan, pregoia** egiten dute herriko plazan, udaletxeko balkoitik. Geroago, eguerdian, **kukumarro (mozorro) desfilea** handia egiten dute Biteri plazatik abiatuta Arbolapetaraino. **Herri bazkaria** egiten dute Uarkapen eta **dantzaldia** plazan.



**Martitzenean,** arratsaldean **kukumarro desfilea** egiten dute herriko plazan, ikasleak ikastetxeetatik etortzen dira mozorrotuta, hainbat ikuskizun egoten dira eta gauerdi aldean "Sardinaren hileta"egiten dute. Segizioak erdialdeko kaleetan ibili ondoren, Herriko plazan bukatzen dute desfilea, sardina bertan erretzeko.

***JARDUERA: Irakurri 1855eko ediktuaren edukia, ikasleek ikusi dezatela iraganetik datorren jaia dela eta zelakoa zen garai hartan. Gero, azken bi pasarteak irakurri eta unitate didaktikoan dauden lau lerro horietan saiatu behar dira ikasleek jartzen inauterietako ekitaldirik garrantzitsuak, zapatuan (1. eta 2. ean) eta martitzenean (3. eta 4. ean).***

*Koadernoko 24.orrialdea.*

***SANTAMASAK (FERIA).**

1351eko irailaren 20an Gaztelako Pedro I. erregeak baimendu zuen Santamas feria egitea eta Meatzerreka auzoan egiten zen. Baina baimen hori baino lehen feria eta jaia aurretik ospatzen zela gauza nabaria da.

J.M. Barandiaranek ikertutakoaren arabera gure arbasoentzat, Euskal Herrira kristautasuna iritsi baino lehen, **uda eta neguko solstizioek zuten garrantzia handia** zen.Beraien erritoak eta ospakizunak egiten zituzten egun hauetan, eguzkia bere punturik gorenean zegonean eta baita urteko egunik motzenean ere. Geroago, Elizak jarraitu zuen kristautze prozesuaren ondorioz, ziur asko, jai "erritual" hauek santuekin lotzen joan zen eta horrela iritsi da gure egunetara.

1727ko urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabaki zuten jenderik bizi ez zen lekuetako feria guztiak aurrerantzean herrian egin behar zirela, eta harrezkero Portaloi aldean hsi ziren feria egiten eta 1926.urtetik aurrera Uarkapen.

Antzina Santamasetako feriak hiru egun irauten zuen, hots, abenduaren 21etik 23era bitartean. Bigarren egunean erromeria handi bat antolatzen zuten eta 1957. urte arte herriko lantegiek jai zeukaten abenduaren 22ko arratsaldean, eta hortik aurrera egun osoan. Bigarren egunean (abenduaren 22an), goizean egiten zuten lan eta arratsaldean jai hartzen zuten, baina erromeria ospetsua egiten zuten. Alabaina, galtzen joan zen eta harrezkero 1959.urterako hasi zen erromeria galtzen.

Erromeria arratsaldean egiten zuten, 4 edo 6 musika taldeek animatuta, Biteri etorbidearen aldean, eskolen aurrean, geroago Garibai kalean eta azkenean Biteriko lorategietan, estatuaren inguruan.



1976. urtetik aurrera izan zen gaur ezagutzen dugun Santamas jaiaren hasiera eta jarraipena; harrez gero, hainbat kuadrila, auzoetako elkarteetako kideak eta kultura taldeetako partaideak elkartu ziren Santamas jaia berreskuratzeko asmoz eta Santamas komisiñue sortu zuten.

Egun, **abenduaren 22a**, Santamas eguna da Arrasaten eta urteko feria egunik handiena da. Bezperan eta aurreko astebukaeran ere hainbat ikuskizun eta gauza egoten badira ere, Santamas eguna hainbat feriaren elkargune bihurtzen da: azokako produktuak (frutak, barazkiak, jakiak), hegaztiak, ganadu feria, artisauen erakusketa, herri kirolen erakusketa... Herriko dantza taldeek, gaiteroek, txistulariek, Iturengo joaldunek, txarangak... parte hartzen dute jaian eta gero herri bazkari bat dago. Eguerdian dantza taldeek dantzatzen dute herriko plazan eta, arratsaldean, Larrain dantza eta txerri dantza.

***JARDUERA: Azkeneko pasartea irakurri eta unitate didaktikoan dauden lau lerro horietan ikasleak saiatu behar dira jartzen Santamasetako ekitaldirik garrantzitsuenak, (1. eta 2.ean, aipatzen diren ferietako bi), 3.ean (haien gustukoa den ikuskizunik politena) eta 4.ean, idaztea zeintzuk diren, arratsalde partean, Herriko plazan, dantzatzen dituzten bi euskal dantzak.***

*Koadernoko 24.orrialdea.*

***OLENTZERO**

Pertsonaia sinbolikoa, neguko solstizioaren bukaera iragartzen duena, eta ziklo berri baten hasiera. Hiru elementu erritual ditu: Postulazioa eta harturiko elikagaiak jatea, sua eta hainbat zeremonia babesle.

Lehenengo aipamena XVII. mendean agertzen da Martinez de Isasti historiagile lezoarraren eskutik eta JM Barandiaranek aipatu zuen Oiartzun, Lesaka eta Arakil aldean egiten zutela Olentzeroaren pertsonifikazioa, baina Manuel Lekuonak ezagutu zuen Oiartzunen 1922an gaur ezagutzen dugun Olentzero. Edozein modutan ere, Lesakakoek diote lehen Olentzeroa bertan sortu edo errekuperatu zutela.

Diotenez, Arrasaten, **1942. urtean, Jose Maria Arizmendiarrieta**, Accion Catolicako 70 gazte, buzoekin jantzita, kalera irten ziren sorbaldan eramaten zutela Olentzero, gaur ezagutzen ditugun koplak kantatzen zituztela:

> (...)
> Botila arduakin
>
> Olentzero guria
> Ezin degu ase
> Bakarrik jan dizkigu
> Hamar txerri gazte
> Saieski ta solomo

Majina bat heste
Jesus jaio da eta
Kontsola zaitezte.

Horra, horra,
(...)

Arrasaten, hainbat herritan bezala, frankismoaren bukaeran herria saiatu zen errekuperatzen Olentzeroaren figura eta eszenifikazioa euskal usadio bezala. Ikastolan, ikastetxeetan, auzo batean eta kalean Olentzero errekuperatzen hasi ziren, baina Olentzero bakarra ateratzeko proposamena landu zuen sortu berria zen Santamas komisiñuak. Komisioan aritzen ziren herriko hainbat kultura talde eta denon artean adostu zuten herrian Olentzero bakarra ateratzea eta, harrezkero, herriko kultura taldeekin elkarlanean ariturik, Olentzeroren eszenifikazioa 1979. urtetik aurrera izan dugu Arrasaten, abenduaren 24an.

**Olentzerok** bi lagun ditu, Txoronpio eta Txoronpia, eta mitologiako hainbat lagun. Lagun horiek auzoz auzo, tronkomobilarekin, abenduaren 24ko eguerdian joaten dira umeen gutunak jasotzen, auzo bakoitzean kantatu eta dantzatu ostean. Umeak baserritar jantzita egoten dira, haien zain, Olentzerorentzako gutuna emateko.

Abenduaren 24ko arratsaldean Olentzerok, herriko kaleetatik zehar, ibilbidea egiten du eta, gero, agurra egiten diote plazan, mutil dantza eta herri dantza dantzatzen dute.

Ikastetxeetan ere Olentzeroren eszenifikazioak egiten dituzte garai horretan.

***JARDUERA:Azkeneko lau pasarteak irakurri eta unitate didaktikoan dauden lau lerro horietan ikasleak saiatu behar dira jartzen Arrasateri dagokionez, Olentzeroren ezaugarririk nabarmenenak: (1. eta 2.ean, zein egunetan den eta Olentzeroren lagunak zeintzuk diren) , 3.ean (zeintzuk diren plazan dantzantzen diren dantzak) eta 4.ean, idatzi iaz zein opari ekarri zizkizun Olentzerok.***

*Koadernoko 24.orrialdea.*

***SANTA AGEDA**

Uranga historiagile arrasatearrak dioenaren arabera, Santa Agedaren bezperan kantatzearen ohitura Bizkaitik dator eta Gipuzkoarekin egiten dituen muga herrietan sustraitu zen ohitura.

San Balerio egunetik (urtarrilaren 29tik) otsailaren 5era arte Meatzerrekatik abiatuta, eliza hartako meza laguntzaileek baserrietara eta etxeetara joateko ohitura zuten, San Agedaren bertsoak kantatzen, emandako zerbitzuen truke dirua eta jakiak jasotzeko. Halaber, Santa



Agedaren eguna bino bi edo hiru egun lehenago, Santa Agedako gaixo batzuek gauza berbera egiten zuten ospitalerako dirua jasotzeko asmoz.

Baina Santa Agedaren bezperan zen gazteek makilekin eta blusa zein txapelarekin jantzita kalera irteten ziren eguna kantatzen. Baserrietara eta etxeetara joaten ziren Santa Agedaren omenez egindako koplak kantatzen eta baita diruemaleen eskuzabaltasunari eta zekentasunari buruzko koplak ere.

Taldeek ezinbestean zeramaten soinujole bat eta solista bat, eta hark kopla kantatzen zuen eta koroak errepikatu egiten zuen

Otsailaren 5ean ospatzen da San Ageda. Egun, koroak bezperan irteten dira kalera diru eske. Lehen herriko baserrietara, auzo gehienetara, sozietateetara, tabernetara... joaten dira dirua biltzeko. Diru hori ongizate helburuetarako izaten da.

Koroak goizean goiz irteten dira, bitan banatzen dira eta arratsaldearen hasieran udaletxean lau kanta kantatzen dituzte bazkaltzen joan aurretik. Bazkaldutakoan, ilunabarrera arte jarraitzen zuten kantatzen. Jarraian daude Arrasaten kantatzen diren estrofak:

### ONETSI

(Denok)

*Onetsi dezatela guztiak*
*etxe hontako sendia.*
*Apal ta txiro dabiltzanentzat*
*oso ugari dut eskerra.*

(Bakarlaria)

*Martiri saindu maitea*
*dago errukiz betea*
*berak oparo emango digu*
*osasuna ta pakea.*

(Denok)

*Martiri saindu maitea*
*dago errukiz betea*
*berak oparo emango digu*
*osasuna ta pakea.*

(Beste bakarlaria)

*Aurrez baimena eskatzen diot*
*etxeko nausi jaunari.*
*Agate Deunaren goraldiak*
*abestutzera noa ni.*

(Denok)

***Aurrez baimena eskatzen diot***
***etxeko nausi jaunari.***
***Agate Deunaren goraldiak***
***abestutzera noa ni.***

Beste abestixen izenburuak:

-**Fe y Esperanza** (4 ahots grabek osatua) Hitzak:Antonin Lugniere Musika:A.Dard Jamín
**-Agate Deunaren Abestiak**
**-Boga -Boga**
**-Ilun Abarra**
**-Festara (J.Guridi)**
**-Ruinas De Un Monasterio**
**-L,Ampordá (Morera)**
**-Ume Eder Bat (V.Arín)**
**-Elurra Mara-Mara (Jarof)**

***JARDUERA: Santa Agedako kanta denek elkarrekin kantatu. Azkeneko hiru pasarteak irakurri eta unitate didaktikoan dauden lau lerro horietan ikasleak saiatu behar dira jartzen Arrasateri dagokionez, Santa Ageda egunaren ezaugarririk nabarmenenak: (1. eta 2.ean, zein egunetan kantatzen den eta zer eskatu edo jasotzen duten kantatutakoan) , 3.ean (aipatzea kantatzen duten abestiren bat?) eta 4.ean, idaztea Santa Agedako ospitalea non dagoen****.*

*Koadernoko 24.orrialdea.*

## 21.- SAN JUAN GAUEKO SUA. SAN JUAN JAIAK

Kristautasuna heldu aurreko jaia da. Urteko gau motzenean, San Juan bezperan, ekainaren 23an, gure arbasoek udako solztizioa ospatzen zuten. Gau horretan, sua omentzen zuten, eta goizaldera arte irauten zuen ospakizunak. Orduan, goizaldean egiten zituzten hainbat errito eguzkia urteko punturik gorenean zegoenean. Gaua, sua, eguzkia, errito eta dantza, gau magiko baten osagaiak.

Arrasaten, antzinean, bezperaren gauerdian hainbat gazte talde aldez aurretik aukeraturiko makal bat mozten zuten, azala kendu eta goiko abarrekin uzten zuten. Makal herriko plazara ekartzen zuten eta zuhaitzaren goialdean loreak-margaritak ( San Juan lorak), klabelinak eta landareak-kipulak, berakatz berdeak, porruak-) jartzen zituzten eta horrekin batera herriko bandera. Makalaren gora igotzen zuen onena eta bandera hartu saritzen zen.



Kristautasunarekin batera, Elizak errito horiek bereganatu zituen eta bere liturgian, bedeinkapenak...sartu zituen.

Hainbat urtetan, Resurrekzio Maria de Azkuek San Juan egunean, Arrasaten meza nagusia kantatzen zuen, Jose Joakin Arin parrokoaren eskaerarengatik. Azkuek "Euskalerriaren Yakintza" izeneko liburuan eta J.M.Barandiaranek idatziako "Eusko Folklore" urtekarietan legenda ugari jaso zituzten San Juaneko bezperaren gaua eta goizaldearekin erlazionatuta. Sinesmen orokorra zen su hauen ginetik salto egiteak gaisotasun asko sendatzen zuela.
" Lapurrak eta sorginak erre, erre; artoak eta garixak gorde, gorde".

San Juanen bederatziurrenak ekainaren 16an hasten zuen San Juan egunean bukatzeko.Baina kontuan harturik, bazkaria luzatzen zela eta pilota partiduak hasten zirela, hasiera, ekainaren 15ean izaten zen eta jaiaren bezperan bukatzen zuten, Salbe eta San Jaun himnoarekin, zeina bederatziurren osoan kantatzen zen.
San Juanen himnoaren letra Enbeitar batena da, Jose Joakin Arin eta Juan Carlos Guerraren enkarguz eta xehetasunekin .

Korporazioak San Juanen irudia zeraman elizara, gero meza nagusia baino lehenago egiten zen prozeziorara eramateko . Behin meza nagusia bukatutakoan, Korporazioak danboril eta txistularien bandakoekin lagunduta Udaletxera eramaten zen.
Meza nagusiak hasten zuen santuaren prosezioarekin, Korporazioaren asistentziarekin eta Parrokiaren kofradia guztiak plazatik buelta ematen. Bukatzen zuen San Juan himnoaren kantatzen. Alkateak bandeja pasatzen zuen kuestazioa eginez, "San Juan argitxarako".

Errepublika garaian (1931-1936) meza nagusira zinegotzi karlistak eta nazionalistak bakarrik joaten ziren.

Korporazioa mezetara joaten zenean Txistulariek jotzen zuten "Alkate soiñua" baina San Juan egunean "San Juanen himnoa".

Ofizialki jaiak arratsaldeko hiruretan hasten ziren, etxafleruen jaurtiketarekin eta ezkilen jotzearekin. Txistulariek eta danborileroak kaleetan zehar San Juanen martxa jotzen zuten.
Ilunabarrenean, tipikoa zen mutilek eta gizonek beraien solapan krabelin gorri bat jartzea, parrandarako prest zeudela adierazteko.

Arratsaldean, pilota partiduak egoten ziren, harmailekin eta zurekin egokitutako Zaldibarko frontoian. Gainontzeko San Juanetako hiru egunetan ere pilota partiduak jokatzen zuten. Partiduen hasiera nahiko goiz izaten ziren, gero Goikobalun jarritako egurrezko plaza batean zekorketak egiteko.

Lehen Arrasaten, zezenzaletasun handia zegoen eta jai askotan ezinbesteko jaialdia.Udaletxea inaguratu zenean (1766.urtean) , plazan bertan zezenak izan ziren "hiltzekoak". Herrian zezen plaza iraunkorra izan zen., Maalako errabalaren bukaeran,

errekaren ezkerraldean. Plaza inauguratu zen 1886ko San Juan egunean eta 1911an bota zuten. San Juanetan, Santiago egunean eta urte batzuetan abuztuaren 15ean zezenketak egoten ziren. Garai hartan Gesalibar eta Aretxabaletako bainuetxeetan "turista" ugari zeudelako. Zezen plaza bota zuten eta toki horretan " Villa Amparo" etxea eraiki zuen Dagoberto Resustak.

Santiago eguna,uztailaren 25ean, herrikoen errolda eta soldadutzare joateko alistamientua egiten zen eta "alarde" ospatzen zen, jai ekintza ugarirekin baina denborarekin desagertu zen.

XX.mendearen hasieran, zezenak jaien ezinbesteko protagonistak ziren eta horiek gabe ez ziren ulertzen jaiak.

Geroago, hainbat urtez, hasi ziren muntantzen zezen plaza Goikobalun. Plaza joaten zenean, zaldien eta gurdien desfilea egiten zuten toreorekin eta "Manolekin"-peineteekin eta Manilako mantoiekin-. musika bandeekin ( Herrikoa eta militarrez osatutakoa) alaitzen zute desfilea . Billeten salmenta plazan eta herriko hainbat tabernatan egiten zen. Azkeneko zekorketak 1957ko San Juanetan egin ziren, Zigarrolako plazan. Ordu arte San Juanetako egun guztietan zezen espektakulua izan zen.

Egun, bezperan, gazteek beraien sorbaldeetan makala ekartzen dute plazara eta kanta eta musikaren artean altxatzen dute bertan. Duela urte batzuk, danborradaren bukaeran eta 1993. urteaz geroztik, **errementari dantza sortu zen.**Arrasateko herensugearen kondairan eta altzairugintzako tradizioan oinarritzen da.
1993an sortu zen eta J**ose Ramon Vitoriak** eginiko musikak garrantzi handia du dantzan. Kantaren bertsoak J**on Iñaki Izarzelaia** arrasatearrak egin zituen.
Bezperan dantzatzen dute, behin eta berriz errementarien mailuan hotsa imitatzen da, eta txalapartak eta toberak etengabe jotzen jarraitzen dute.

Horren ostean, Alkateak herensugea agurtzen du eta zortzikoa dantzatzen du, txirula eta ttunttun soinuek lagunduta. Espartinak kendu eta sutara botatzen ditu, aspaldiko usadioari jarraituz. Gero, herensugeak sua pizten du. Suaren inguruan "ingurutxo" eta "polka" bat dantzatu ostean eta kalejiran irteten dute guztiek plazatik.

Lehen 2.egunean txirrindulari lasterketa, hamarretakoa, folklorea, kontziertoa, pilota partiduak, su artifiziala k eta Gasteizko banda militarraren eskutik dantzaldiak egoten ziren.

Hirugarren egunean, txistulariek eta danborileroek kalejiran "Idiarena" kanta kotzen zuten. Lasturreko zezenak, adar enbolatuekin askatzen ziren eta "sokeruak" zezenari nolabaiteko soka jarriaz kontrolatzen zuten. Zezena Maalako errabalaren bukaeratik irteten zen eta hasieran botatzen zioten muñeko bat ( txorimalua ixeguitxa). Honen ostean, plazara eramaten zuten eta plazako udalaetxearen zoluan zegoen argoila bati lotzen zioten, musika banda jotzen zuen bitartean .



Egun, Bezpera eta hiru egun dira San Jaunak. Bezperan, suaren inguruan dantzatzea, danborrada eta egun, errementari dantza dira ekintzarik . Bigarren eguna San Juan, Kontzertua eta meza eta haurren eta gaztetxoen eguna izaten da, egun, Eguzkilaru"ren bisitaterekin eta hirugarrena, lehen "zezen eguna",kuadrileen eguna eta soka dantza dantzatzen da.Eguargitan, jaien hirugarren egunean bertako dantza taldeek dantzatzen dituzten euskal dantza tradizionalak: soka dantza eta larrain dantza.

Soka dantzako parte hartzaileek elkarri eskua ematen diote, eta giza soka edo giza kate bat osatzen dute. Soka koloretsu horrek zirkulu ireki baten forma hartzen du eta alde batera eta bestera mugitzen da. Sokaren bi muturreko dantzariek, hain justu ere, aurresku edo aurrendari eta atzesku edo azkendari izenekoek gidatzen dute dantza.

Lehen baino gutxiago ikusten bada ere, gau horretan hainbat auzotan eta baserritan sua pizten dute.
Nahiz eta unitatean jarduerarik ez proposatu, auzoak lantzen ari garen neurrian, ondoko jarduera proposatzen dugu:

***JARDUERA: Nola ospatzen duzue San Juan gaua zuen auzoan?***

*Koadernoko 25. orrialdean.*

## 22.- MARITXU KAJOI.

Arrasaten**, txikiteoaren gizarte ohitura** oso sustraituta zegoen 1960-1970ko hamarkadaren bukaeran. Urte haietan, lantegietatik eta ikastetxeetatik irten eta gero**,** koadrila ugari eta handiak ibiltzen ziren txikiteoan, tabernaz taberna txikitoak edaten. Garai hartan txikiteoan jende gaztea eta heldua ibiltzen zen. Horien artean ere Pepe Txantxote.

Pepe Txantxote Arrasateko gizon alaia eta saltseroa zen, muletekin ibiltzen zen txikiteoan eta koadrila batzuek, Txantxote ikusten zuten bakoitzean, trago batera gonbidatzen zuten. Txantxotek edalontzia altxatu eta esaten zuen:¡por Maritxu!

Behin koadrila horietako gazte batzuk Maritxu hura bere emaztea zelakoan adarra jotzen hasi zitzaizkion. Zalantzak argitzeko, Erdiko kaleko parrokiaren ate nagusira begiratu eta zera erantzun zien: "Ez daukazue ideiarik ere, Maritxu hori da Errosarioko Amabirjinaren irudia, kajoi batean sartuta, Maritxu Kajoi txikiteroen zaindaria".

Orduan koadrilek Maritxu Kajoi ezagutu zuten eta hasi ziren pentsatzen **jai bat antolatzeaz, txikiteroen zaindaritzat hartzeko eta gorazarre egiteko.**



Izan ere, garai hartan kultura ekintzak antolatzen zebiltzan koadriletako hainbat partaide bilerak egiten hasi ziren, Maritxu Kajoi festa antolatzeko, eta Maritxu Kajoi komisiñue sortu zuten.

Lehendabiziko aldiz, 1977ko urriaren 5ean, ostiralean, ospatu zen jaia, Errosarioko Amabirjinaren egunean, hain zuzen ere, eta harrezkero, urriko lehenengo egubakoitzean ospatzen da jai herrikoi eta laiko hau, txikiteroen zaindaria Maritxu Kajoi omentzeko.

Halaber, jaiaren barruan 1987. urteaz geroztik, jaiaren atarian, aurreko asteko egubakoitzean, **nobenaixue** antolatzen du Komisiñuek, elizak duen hizkuntza liturgikoa erabiliz, jaia ospatzeko atzerako kontaketa hasten dela iragartzeko. Hor, Maritxu azpian, komisiñukoek herritarrei gazta, ogia eta ardoa ematen dizkiete doan.

Maritxuri lore eskaintza egitea, jaiaren oroigarria -eskapulaixua-, dotore jantzita joatearena eta Maritxuk mirariren bat egiteko duen gaitasuna dira jai horren ezaugarri garrantzitsuenak.

Jaiaren hastapenetan ohitura zen txikiteoa egin egubakoitz arratsaldean eta gero lagunekin afaltzera joatea, jaia ospatzen jarraitzeko. Azken urteotan ohituretan aldaketak izan dira eta gazteak afaltzen joan beharrean bazkaltzen joaten dira eta horrela egun osoko jaia bihurtzen ari da.

**Unitate didaktikoan jarduerarik proposatzen ez bada ere**, jaiaren originaltasuna kontuan harturik, jaiaren ezagutza ikasleekin partekatzeko, ondoko jarduerak lantzea proposatzen dugu:

***JARDUERA 1: Azaldu Maritxu Kajoi egunean zer egiten duzun.***
***JARDUERA 2: Inoiz ikusi al duzu Maritxu Kajoik egin duen "mirariren" bat? Zein?***
***JARDUERA 3: "Nobenaixuen" zer ematen zaie herritarrei doan?***

*Koadernoko 25. orrialdea.*

## 23.- SAN NIKOLAS.

Zaila da San Nikolas egunaren ospakizunaren jatorria zehaztea, baina esaten dute Done Jakuren erromesek ekarri zutela, marinelen eta erromesen zaindaria baita.

Unitatean dagoen herri kanta hau mendez mende, ahoz ahoz transmititu den neurrian ziur asko kantaren estrofak degeneratu dira ,bai kontzeptuak zein hizkuntza (gaztelera-euskara).
Historiagile batzuk diote Errege magoen ospakizuna egonkortu baino lehen, Iparraldeko Europan San Nikolas eguna ospatzen zuten bezala, hemen egiten zela umeentzako "jakiak,

fruitu sikuak"banatzea eta horregatik, horren lekuko gelditu da hainbat herritan SNikolasen eguna ospatzearena, Arrasaten, Seguran, Nafarroako hainbat herritan...

Antzinako tradizioa da San Nikolas egunean ematen dena. Umeak lehen baserriz baserriz eta etxez etxe joaten ziren gauzak jasotzeko, eta San Nikolasen kantua kantatzen zuten jakiak eta litxarkeriak jasotzeko. Arrasatekoa da ondoen kontserbatu den ohitura, baina kantaren estrofa batzuk antza daukate Nafarroako hainbat herritan (Oroz Betelu, Garinoain, Eskarotz) kantatzen dutenekin.

Oiartzunen eta Seguran ere kontserbatu dira antzinako estrofa batzuk San Nikolasaren inguruan.

Juan Carlos Guerrak San Nikolas egunari buruz 1911. urtean idatzi zuen:
" En Mondragon es siempre esperako con ilusión por la gente menuda" " Cuando las sombras de las largas noches decembrinas cubren aun nuestro suelo salen ya impacientes los muchachos de sus casas, reunidos en numerosos turba y al fulgor de algunos fajos de paja (lasto moltzuak) briosamente blandidos acuden primero a la puesta del Campo santo, donde rezan un Padre Nuestro "Paternoster" por los difuntos. Regresan al pueblo en confusa algarabia, recorren las calles cantando frente a las casas de los principales vecinos la copla bilingüe.....

Satisficiendo el anhelo de los más pequeños, ábrese el balcón y aparece la etxekoandra, sosteniendo en sus manos la mencionada gamella (Kamelia) recipiente de madera de medición de cereales y otros frutos) o bien una moderna bandeja colmada de manzanas y nueces, algunas veces con aditamento de nísperos, avellanas y algunas otras golosinas"
Entonces cae sobre ellos como pedrisco la regalada fruta, cuya recolección se disputan los niños en confuso hormiguero y graciosos remolinos, soltando unos sobre otros y arrastrándose por los suelos, sin reparar en el barro que ordinariamente los encharca en tan lluviosa estación"

Jaiaren ospakizuna laster datorrela eta, ondo legoke eztarriak berotzeko egunen batean saioak egitea ondo kantatzeko interes berezia jarriz neskek eta mutilek kantaren bukaeran kantatu behar duten estrofan..

***JARDUERA 1: Unitatean dagoen kanta kantatzea. Auzo bat baino gehiagoko ikasleak izanez gero ikasgelan, taldeka antolatu eta talde bakoitzak idatz dezala egun horretan zein ibilbide egin edo non ibiltzen diren, eta informazio hori arbelean jasotzea.***

*Koadernoko 25. orrialdea.*



**24.- AUZOETAKO ETA KALEETAKO JAIAK.**

Zerrendaren lehendabiziko tokietan herri osoko jaiak agertzen dira (San Juanak, Santamasak, Maritxu Kajoi eta Inauteriak) eta gero auzo eta kaleetako jaiak noiz ospatzen diren agertzen da zerrenda horretan, ordena kronologikoan.

***JARDUERA1: Kokatu itzazu goian azaltzen diren jaiak egutegiaren taulan. Herriko jaiak gorriz, auzokoak berdez eta besteak urdinez.***
*Koadernoko 26. orrialdea.*

**25.- JAKINGO OTE ZENUKE.**
Iritsi gara hirugarren unitatearen amaierara. Aurreko unitateetan egin duzun moduan, ikasleei ikasi dutenari buruz hausnartzeko tarte bat emango diegu orrialde honetan.

Horretarako, hainbat ariketa proposatu nahi ditugu. Egokiak ikusiz gero, ebaluazio modura erabili daitezke.

Aurrekoetan bezala, oraingoan ere, ariketa horiek banaka, talde txikitan nahiz talde handian egin daitezke; aukeran duzue nola lan egin.
***JARDUERA 1: Zer da?***
***Lehenengo hainbat izen eskaintzen dira, ikasleek definitu ditzaten.Unitate didaktikoan agerturiko izenak dira. Gogoratzeko landutakoa proposatzen da lerro bakoitzean idaztea izen bakoitza zer den. Auzo, idazle, kultur elkarte… baten izena..***

***JARDUERA2: Aukeratu zuzen dagoena.***
***Hainbat galdera sorta duzue jarraian. Bakoitzak balizko hiru erantzun ditu, baina bat bakarra da zuzena.***

***Bukatzeko, herrian egiten diren kultura jarduerei begiratuko diegu.***
***JARDUERA 3: Aipatuko zenituzke herrian ospatzen ditugun ren kultur jarduerak?***
*Koadernoko 27. orria.*

GEHIAGO JAKITEKO
**BIBLIOGRAFIA**
*LIBURUAK/txostenak/ artikuluxkak.
HIK HASI aldizkaria. " Herria ezagutzen 3.unitate didaktikoa eta bere gida pedagogikoa"
IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA: "Arrasate gure herria", Arrasateko udala, 1993.
JOSE ANGEL ACHON:*"La voz de concejo*", Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995-
JOSE ANTONIO AZPIAZU:*"El acero de Mondragón*" en la época de Garibay",Arrasateko Udala, 1999.
JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL*:"Maalako errebala*", Arrasateko udala, 2000.
JOSE MARIA VELEZ DE MENDIZABAL*:"Aramaio eta/y Arrasate: Dos pueblos unidos por la historia"* , Arabako Aldundia..
JOSE LETONA.- "*Mondragón y sus calles*". Gipuzkoako Aurrezki kutxa.1984.urtea. "*Jose Letonaren artxibategia".*




ANA ISABEL UGALDE. 2010.urtean emandako hitzaldiak.
JOSE LUIS URANGAREN ARTXIBATEGIA.
AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA.http: //www.euskomedia.org/aunamendi
JOSE LUIS ORMAETXEA LASAGA*:* " *Arrasateko Toponimia*"Euskaltzaindia .1996
JM Velez de Mendizabal, JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA, JUAN RAMON GARAI: " Ama Cerrajera""101".2007.urtea.
OKTUBRE TALDEA: " Arrasate 1936. Belaundaldi etena".Arabera. 2003.
JOSE MANUEL ARRIOLA: "Mondragoiko kalezainaren bertsoak". Antonio Zavala. Gipuzkoako Aldundia .2008.urtea.
JOSE MANUEL ARRIOLA: "Nekez bada ere".
SANTAMAS KOMISIÑUE "Arrasateko baserrien erakusketarako prestaturiko testuak" (2008).
ANTXON AGIRRE SORONDO. Euskonews.
ALBERTO SANTANA . "*Baserriaren historia*" Gipuzkoako Aldundia.
GOTZON ARZELUS GARAI: " *Arrasateko baserri auzoetako bideak*." Arrasateko Udala/ Gipuzkoako Foru Aldundia"1995.urtea
UDAL ARTXIBAZAINAK jasotako hainbat testu.
LEIRE PARRA/ISABEL ARAMENDIA**."Arrasate, langileek eraikitako herria**". Arrasateko Udala.2004.urtea.
ARRASATEKO UDALAREN KULTURA SAILA:Hainbat informazio eta kultura programazioaren gaineko informazioa.
ARRASATEKO UDALAREN ENPLEGU SAILA: Museo industriala sortzeko prestaturiko hainbat informazio.
. Arrasate Press"Gazteluondo kalearen edo errabalaren gainekoa".
DIARIO VASCO" De San Valerio a Santa Agueda".
ARRASATEKO ESPERIENTZIA ESKOLA"Ermita de la Ascensión del Señor en Udalaitz".
EUSKONEWS & MEDIA."Jose Mari Velez de Mendizabal " Juan Arana, Loramendi: ehun urte"
Zuztarrak errotuz taldeak .2012ko abendua. **Begira Arrasate** !! erakusketa
WEB ORRIAK

http://www.arrasate-mondragon.org

http://www.euskomedia.org/aunamendi

http://www.wikipedia.org

http://www.mondraberri.com/mondraberri

http://www.goiena.net

http://www.argia.com

http://www.euskonews.com
http://www.euskomedia.org/aunamendi

# ERANSKINA

# A)1353.URTEA.

**Eskritura ematearen parte hartzaileen zerrenda**

Elkarrekin kontzeju erara, hiri honetako homes buenos pregoialariaren pregoian, ohitura den legez, Alfonso Lopez Alcibarkoa eta Sancho Martinez Urrupainekoa Arrasateko alkate ordinarioen aurrean.

| Homes buenos | Jasotzen dugula egilestea | egilesten dugu |
|---|---|---|
| Garcia Lopez Zapatero | | |
| Pedro Martinez Urrietakoa | | |
| Pedro Ibañez Oleaganosekoa | | |
| Pedro Miguel Garagartzakoa ( apaiza) | | |
| Fortún Ibanez Ibarretakoa | | |
| Rodrigo Ibarrondokoa | • Rodrigo Bañez Ibarrondokoa | • Rodrigo Ibañez |
| Martin Martinez Barrutiakoa | | • Martín Ibañez |
| Pedro Asturreakoa | • Pedro Auzarrizakoa | • Pedro Austarizakoa |
| Juan Balz | | |
| Pedro Mortal | | |
| Juan Gesalibarkoa | • Sancho Gesalibarkoa | • Juan Gesalibarkoa |
| Juan Zuri | • Juan Zuri | • Juan Zurikoa |
| Juan Iguriakoa | | |
| Juan ibañez Isasigañakoa | • Sancho Ibañez Isasigañakoa | • Sancho Ibañez Isasigañakoa |
| Juan Gebarakoa | | |
| Juan Arraniskoa | | |
| Pascual Oxinagakoa | | |
| Juan Oleagakoa | | |
| Garcia, Juan Oleagakoaren suhia | | • Pedro García, bere suhia |
| Garcia Eyantekoa | • García Záratekoa | • García Zarraldekoa |
| Fortuno Ortuzarrikoa | | • Fortuno Ortuzarrikoa |
| Juan Aranburukoa | | |

Garagarza, Udala, Erenuzqueta, Isasigaña, Guesalibar, Uribarri, eta Oleagako bizilagunak(moradores que somos)

Alkatea(Garcia Ibañez)

| Herri eskribauak | Eskribauen sinaduraren lekukoak | Honen lekukoak direnak, deituta eta eskatuta |
|---|---|---|
| Martin Ibañez<br>Juan Ibañez Apatriakoa<br>Juan Ibañez Salinaskoa<br>Juan Ibañez | Juan Martínez Sudube o Ochoa Martínez<br><br>Martín Martínez | Rodrigo Ibañez Abendañokoa (ezkutaria)<br>Lope Garcia Cortazarkoa ( ezkutaria) |



| | | |
|---|---|---|
| Artazubiagakoa<br>(Martin Ibañezen semea) | Ozaetakoa.<br>Juan Pérez Otálorakoa | Pedro Perez Otalorakoa(Azpeitia)<br>Sancho Martínez Agrakoa(Azpeitia).<br>Juan García Goiburu(Azpeitia)<br>Lope Beizamakoa(Azpeitia)<br>Nicolás Pérez Mercado(Gasteizkoa), eta beste batzuk |

**b))Gipuzkoa probintziaren sortzen eta kontsolidazio prozesua (Kronologiaren bidez)**

Arrasateri buruzko aipamenik zaharrena, zeharkakoa den arren, 1080koa da. Garai hartako "Ypuçcha"-tik kanpo zegoen Leintz bailarako hiribildu (villa) bezala azaltzen da.
Ypuçcha-tik (XI.m) Gipuzkoara (XXI.a).
1025: Gipuzkoa lehen aldiz agertzen da, idatziz aipatua, "Ypuçcha" bezala.
1076: Egungo Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Bureba, Gaztelako Alfonso VI.ak bereganatzen ditu.
1080: Orbita Azenariz-ek Arrasate baino izan ez daitekeen hiribildua aipatzen du ("in villa de Leniz").
1109: Gipuzkoa, berriz nafar erresuman.
1135-74: Gebaratarrak (Oñatiko kondea), Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko nafar erregeen ordezkari.
1180-1383: Egungo Gipuzkoan, 25 hiribildu sortzen dira. Arrasate zaharragoa
1200: Egungo Araba eta Gipuzkoa, Gaztelak konkistatuak. 1202, Alfonso VIII.ak dio: "reinando in tota Castela et...in Alava et in Bizcaya et in Ypuzqua et in Sancto Sebastiano".
1260: Gaztelako Alfonso X.ak Arrasateri Hiri gutuna "eman", Leintzetik bereiziz.
"Ez dirudi zilegi denik, 1260an, 200 urtez hiribildu zenari, Alfonso X.ak, Arrasateko Hiri Gutunean, dioen bezala, "puebla" deitu eta hiribildu izendatzea". (T.Urzainqui).
1262: Kontzejuari buruzko lehen aipamen idatzia.
1280: Leintzeko aitonen semeen (fijosdalgo) eta arrasatearren arteko eztabaidak, hainbat jabegogatik.
1282: Arrasaten, alkate eta juradoen lehen aipamen idatzia. Ermandade baten lehen aipamen idatzia.
XVI. mendera arte iraungo duten Ahaide Nagusien arteko liskarrak, 1076an, Santxo IV.a nafar erregearen erailketa gertatu eta, nafar erresuma gaztelau eta aragoitarren artean banatu ondoren, hasten dira. (Oinatz eta Ganboa askoz beranduago agertuko dira). Ahaideak, gaztelar zale eta nafar zale artean banatzen dira.
XIII-XIV. mendeetan, Ahaideak, Ermandadeen aurka arituko dira, abolituak izan arte. Halere, hiribilduetan integratu eta hauek kontrolatzera iritsiko dira.
Udal ordezkariak, kooptazio sistemaz aukeratuak dira.
1295: Beste ermandade (komertzial) baten aipamena (Gatzaga herria partaide?).
1304: Gebara buru, aitonen seme leinztarrak, Arrasateren aurka, lurren jurisdikzioagatik.
1305: Arrasateren erreketa bat.
1318: Liskarrak, Gebara buru dela, Leintzeko aitonen semeen eta arrasatearren artean.
1329: "Hermandad de los Hipuzcoanos e de los Navarros".
1339: Donostia, Getaria eta Mutrikuk, Ermandadea sortzen dute komertziorako.
1353: Gesalibar, Garagartza, Uribarri, Udala, Enuzketa, Isasigain eta Oleaga, Arrasaterekin bat.




1370: Gaztelako Erregeak, Leintzeko “jabetza jurisdikzionala” (señorío jurisdiccional) Oñatiko kondeari.
1374: Enrike II.a gaztelarra Gipuzkoara, arrasatear ordezkariak hartzen ditu.
1375: Tolosako Ermandadearen Juntatan, Ermandadeko 7 alkateak izendatzen dira lehen aldiz (Segura,Tolosa, Donostia, Arrasate, Elgoibar, Getaria, Azpeitia), ermandadeko justizia egiteko.
1378: Interes komunak kudeatzeko eta Ahaideei aurre egiteko, hiribilduen arteko Ermandadeak sortuz doaz. Arrasaten, “Gipuzkoako hiribilduen eta Oinatz eta Ganboarren ordezkariek osatutako Ermandadeko Juntak” ospatzen dira, Ruy Díaz de Rojas Merino nagusiaren zuzendaritzapean.
1379: Lehen antolaketa juridiko idatzia, Getariako Ermandadean.
1387: “Gipuzkoa”ko Ermandadea.
1390: Jurisdikzio, muga edo izendapenei buruzko auzia, Gebara eta Arrasate artean (urkamendia non jarri).
1397: Getarian “Gipuzkoako Ermandadeko” Juntak (Leintz eta Oñati ez daude). Gonzalo Moro Korrejidore. Arrasateko ordezkariak, Oro (oinaztarra) eta Bañez (ganboarra) dira.
1419: Ugaran bailarako elizateek diote: "non otorgamos ser tenidos a pagar…nin mantener vecindad salvo…la jurisdiçión (justizia) de la dicha villa". Epaiak ordea, dio: “vecinos e pecheros (zergadunak) de la dicha villa (Arrasate)” direla.
1426: Zaldibarko Gebaratarren dorretxearen lehen eraispena.
1429: Dorretxea berreraikitzeko baimena. Leintz, Oñati eta Arrasate arteko mugarriztapena.
1430: Ermandadeko Juntak Arrasaten.
1434: San Valerioko Kofradiako Ordenantzak.
1448: Arrasateko erreketa. (2 etxe bakarrik erre barik).
1450: Zaldibarko dorretxearen behin betiko eraispena.
Nekazaritza, industria, merkataritza eta arrantzaren garapena hasten da.
1451: Arrasateko Kontzejuak, Oñatiko kondearen Zaldibarko lurrak erosi.
1455: Masukeroen Kofradiako Ordenantzak.
1457: Ahaide Nagusien botere galera. Goikobaluko gaztelua eraitsi.
1463: Gipuzkoako Ermandadeko Juntak Arrasaten, “Cuaderno Nuevo” idazten da. Probintzia izaera Gipuzkoari, Diputazio Forala, exekutiboa.
1469: Rodrigo de Balzateguiri, amabirjina agertzen zaio, “Arantzan zu?”.
1472: Ermandadeko Ordenantzak. Gipuzkoa jaio. “Corporación de corporaciones urbanas”.
1477: Arrasateren beste erreketa bat.
1479: “Reino de Gipuzkoa” izendatua. Gipuzkoa (oraindik osatu gabe), “reino” izendatua.
1490: BBNN Arrasaten. Insakulazio sistema ezartzen da udal ordezkariak aukeratzeko (S. Migel egunez, S. Joan Baptistaren elizan…). Hautesle edo hautetsi izateko, millaristak izan eta gazteleraz irakurtzen eta idazten jakin beharra, “casa, vecindad, hidalguía…”; “no ayan…ni bandos dellas de Guraya e Bañes… mas que todos juntamente hos llameis de Mondragon”.
1497: Leintz bailara (Aretxabaleta eta Eskoriatza batera), Gipuzkoako Ermandadean sartzen da.
1512: Nafarroa Garaiaren konkista, (Albako Dukea).
1516: Arrasateren beste erreketa bat. Korrejidorea Arrasatera etortzea eskatzen da, “para poner paz y concordia… e quitar las diferencias”, kargu bererako 2 pertsona hautatu nahi direlako.
1520: Lekeitioko udaletxea (EH-ko lehena) eraikitzen hasi.
1533: Esteban de Garibai, historialaria jaio Arrasaten.
1540: Sancti Spiritus, Oñatiko Unibertsitatea, Hernanin sortu zen. 1548an Oñatira ekarria.
1545: Linguae Vasconum Primitiae argitara.




1559: BBNN-etan, altzairua lantzeko arauak onartu.

1566: Kontzejutik "... algunos atrevidos han roto algunas hojas de las listas de hijosdalgo..." . Ondoren, elizatan, ofertorio garaian, oharra: "...la obligación de ir a la villa a jurar la condición de cada uno, de su padre y abuelo..."; "...que por vecinos no sean admitidos, ninguno que no fuese hidalgo e que non tuviese domicilio y naturaleza...".
1586: Frantziskotarrak Arrasatera.
1589: Antonio Lopez Zelaa (hijo de clérigo), "...siendo cura su padre, tiene prohibidos los oficios concejiles...".
1593: Alkatea, erregidorea eta sindikoa, kartzelara, korrejidorearen delegatuari kontuak ez erakustearren.
1608: Gipuzkoarrak "hijosdalgo de sangre" izendatuak.
1615: 29 udalerri "berri" Ermandadean: "villazgo", "jurisdicción real" eta "asiento en Juntas" lortuta.
1618: San Francisco eraikitzen hasi.
1630: Aretxabaleta eta Eskoriatza bereizi.
1666: Arrasateren beste erreketa bat.
1688: Ermandadeko 7 alkateen kargua ezabatuta.
1700: Azken Junta partikularrak.
1717: Gaztelarekiko mugak, itsasertzera eta Bidasoara.
1722: Mugak Ebrora berritzuli.
1752: BBNN Arrasaten.
1756: Arrasateko udaletxea eraikitzen hasi. Ardoari zerga berezi bat ezartzen zaio.
1757: Juntak Arrasaten, errepidea konpontzea erabaki (Arrasateren pisua Juntatan).
1763: Sociedad Vascongada de Amigos del País.
1764: Juntatan, errepidea Bergaratik egitea erabaki (Soraluzen armagintza).
1766: Udaletxearen eraikitzea bukatu.
1772: Bergara-Soraluze-Eibar-Elgoibar-Alzola errepidea egiten da.
1775: Arrasate-Kanpanzar-Elorrio errepidea proiektatu.
1797: Diputazioaren eta korrejidorearen egoitzak Donostian finkatzeko errege ordena.
1799: Diputazioaren eta Korrejidorearen egoitzak Tolosan finkatu, Juntatan.
1802: Diputazioaren eta Korrejidorearen egoitzak, berriro tandako 4 herrietan.
1805: Irun, Lezo eta Hondarribia, Nafarroara pasatzen dira.
1810: Diputazio Forala, "Consejo Provincial" bihurtuta, errege dekretuz.
1811: Agosti Xaho jaio.
1812: Cadiz-eko Gorteek, "La Pepa" onartu.
1813: Diputazio Forala berreskuratzen da.
1814: Gipuzkoak gehi Oñatik, 108.000 biztanle. "La Pepa"-ren abolizioa (Fernando VII.a).
1829: Nafarroako Gorteen azken bilera.
1830: Arrasaten BBNN.
1833: "quedan suspendidos los fueros y privilegios"; Lehen Karlistada hasi (Zumalakarregi).
1834: Diputazioaren eta Korrejidorearen egoitzak, Tolosan.
1836: Desamortizazioa (Mendizabal).
1839: Bergarako besarkada; 3 probintzietan, foruak errespetatzea agindu baina ez da betetzen.
1840: Frantziskotarrak Arrasatetik kanporatuak. Korrejidorea, Gobernadore zibil bihurtu.
1841: Mugak, berriro ere, itsasertzera eta Bidasoara. Pase forala ezabatu. Nafar Foruak desegin.




1842: Santa Cruz apaiza jaio.
1844: Tolosa, Gipuzkoako hiriburu.
1845: Oñati Gipuzkoan sartzen da.
1849: Lau "casas de socorro" antolatzen dira Gipuzkoan: Donostia, Tolosa, Azpeitia, Arrasate. Ume abandonatuak.
1853: Arrasateko BBNN-etan, Diputatu Nagusia tandako 4 herrien proposamen barik izendatzea erabaki.
1854: Donostia hiriburu, Diputazioa Tolosan.
1859: Vergarajauregui, Resusta y Cía sortzen da.
1877: Diputazio forala desegin eta Diputación Provincial izendatu.
1878: Lehen Kontzertu ekonomikoa.
(1878-87-93-94-1900-06-13-20-25-26-37(Biz/Gip,abol.)-81-2002-07)
1890: Gizonezkoen sufragio unibertsala.
1896: Arrasateko Udalak, kale izenak euskara hutsez ipiniko dituela erantzuten dio Aldundiko aginduari1897: Angiolillok, Antonio Canovas del Castillo hil, Gesalibarko bainuetxean.
1896.- Gipukaoko Aldundiak "Euskal jaiak " antolatzen ditu Arrasaten,

**Zuztarrak errotuz taldea**.2012ko abendua."Begira Arrasate !!" erakusketa

**C) XX. ETA XXI. MENDETAKO ARRASATEKO ALKATEAK**

| Alkatea | Karguaren iraupena |
|---|---|
| Fermin Resusta | 1900-1-1/1902-1-1 |
| Jose Maria Herrasti Ozaeta | 1902-1-1/1910-1-1 |
| Higinio Resusta Madinabeitia | 1910-1-1/1912-1-1 |
| Esteban Garay Garay | 1912-1-1/1914-1-1 |
| Jose Maria Herrasti | 1914-1-1/1916-1-1 |
| Juan Martin Arejola Leiva | 1916-1-1/1918-1-1 |
| Juan Goñi | 1918-1-1/1919-10-1 |
| Andres Inda ( Alcalde acc.) | 1919-10-1/1920ko apiril arte |
| Mariano Adan de Yarza | 1920-4-30/1921ko otsaila |
| Domingo Arzamendi Aranzabal | 1921ko otsaila/1923-10-2 |
| Melquiades Jaureguibarria | 1923-10-2/1924-3-29 |
| Dagoberto Resusta Mugica | 1924-3-29/1928-6-22 |
| Ricardo Azcoaga Resusta | 1928-6-22//1930ko martxoa |
| Juan Goñi Aranguren | 1930ko martxoa/1931-4-14 |
| Eugenio Resusta Olañeta | 1931-4-14/1933ko uztaila |
| Luis Martinez de Ubago Milicua | 1933ko uztaila/1936ko martxoaren 11 |
| Nicolas Uriarte Ceberio | 1936-3-11/1936-10-19 |
| Jesus Gorosabel Mendia | 1936-10-16/1938-6-18 |
| Isidoro Echevarria Maidagan | 1938-6-18/1938-10-10 (Funtziotan alkatearen gaixotasunagatik) |
| Domingo Arzamendi Aranzabal | 1938-10-10/1948-10-6 |

| | |
|---|---|
| Isidoro Echevarria Maidagan | 1948-10-6/1949-3-1 |
| Santiago Bastida Mondragon | 1949-3-1/1952-4-30 |
| Julio Otaduy Riviere | 1952-5-1/1961ko iraila |
| Justo Uribarrena | 1961ko iraila(1963ko martxoa |
| Andres Bidaburu | 1963ko martxoa/1963ko iraila(Funtziotan, Uribarrenaren heriotzagatik) |
| Juan Manuel Azcoaga Cano | 1963ko iraila/1971-9-3 |
| Pedro Basterrechea Varela | 1971-9-3/1976-5-31 |
| Jose Antonio Altuna Gallastegui | 1976-5-31/1979-4-19 |
| 1978-11-24ko plenoan korporazioaren dimisioagatik eta gestora bat sortu zen funtziotan 1979ko urtarril arte.Koorporazioak bere funtzioak hartu zituen eta "koorporazio demokratikoa osatu bitartean bere funtziotan jarraitu zuen" | |
| Jose Antonio Ardanza Garro | 1979-4-19/ 1983-5-23 |
| Alvaro Arregui Otaduy | 1983-5-23/1987-6-30 |
| Xabier Zubizarreta Lasagabaster | 1987-6-30/1991-6-15 |
| Xabier Zubizarreta Lasagabaster | 1991-6-15/1995ko uztaila. |
| Xabier Zubizarreta Lasagabaster | 1995ko uztaila 1997ko abuztuaren 7 |
| Jose Maria Loiti Aguirre | 1997-8-7/ 1999-7-4 |
| Xabier Zubizarreta Lasagabaster | 1999-7-4/2003-6-13 |
| Ignacio Lakunza Anton | 2003-6-13/2007-6-16 |
| Ino Galparsoro Marcaide | 2007-6-16//2011-6-11 |
| Inazio Azkarragaurizar Larrea | 2011-6-11/2015-6-13 |
| Maria Ubarretxena Cid | 2015-6-13 |

## D) AUZOEI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Behin lur lauak okupatuta, etxegintza enpresak mendian gora hasi ziren lur merkeen bila. Hala sortu ziren hainbat auzo. Herria, egunetik gauera, "lotarako hiri" bihurtu zen. Hondeamakinak herriko paisaia beren mende hartu zuten protagonista berriak bilakatu ziren.

Horrenbesteko abiadan ari zen hazten herria, herritarrek beraiek ere beren artean ezagutzeko zailtasunak izaten hasi zirela.

Atal hau lantzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak duen htttp://b5m.gipuzkoa.net/b5map/1/es/mapa/lekutu/M_055/geruza/ortofotoa helbide elektronikoan landu dezakezu auzo bakoitzaren kokagunea. Helbide honetan aurkituko dituzue Aldundiak dituen txoribista eta baita mapak ere.
Horrela topatzen ez baduzue, bilatzaile baten bidez, Googleren bidez edo, "Arrasate ortofotoa" testua jarriz gero topa dezakezue.



***MUSAKOLA/ZIGORROLA**

Musakola ala Zigorrola, zein da auzoko izena?, nondik dator izena?.

1901. urtean, gaur egun San Isidro eliza dagoen tokian, Zigorrolaazpikoa baserria zegoen, errota zeukan baserriak eta haren aztarnak 1951. urte arte izan ziren. Baserria bota eta gero, hortik gertu Union Cerrajerak lantegi bat eraiki zuen eta baita San Isidro kapera ere.
Zigorrola hortik dator eta hirigunea Zigorrola dela ematen du, baina auzoaren izena bere osotasunean Musakola zen.

Gaur ,Zigarrola idazteko joera badago ere, jatorrian Zi(g)orrola zen. Aipatzekoa ere erdaraz aritzean Cigarrola esaten dela eta euskaraz Ziorla. Hor izan diren bi baserriak desagertu ondoren, izen hori geratu da orain etxez beteriko ingurua adierazteko. Batzuen arabera, gainera, Musakola baserrialdea da eta Zigorrola kalealdea.

1923. urteko maiatzaren 15eko eguna gogoangarria da Musakola auzoarentzat, bertako eskola unitarioak bere ateak lehendabiziko aldiz zabaldu baitzituen.

Izan ere, bazkaltiarrek erabaki zuten, azkenburuetan zeudela, auzoko jaien zaindaria izatea, eta harrez gero Musakola auzoko jaia maiatzaren 15ean ospatzen da, San Isidro egunean, hain juxtu ere.

Lehen aipatu dugun bezala, eskola unitarioa inaguratu zenez geroztik Musakola auzko jaia maiatzaren 15ean ospatzen da. Egun horretan auzoko gazteriak Zubikoa tabernan bazkaria antolatzen zuen eta baita erromeria jendetsua ere.

Letonak adierazten duen moduan, 1929. urtean  auzotarrek ikustean euren zaindariaren irudirik ez zeukatela, jaia behar bezala ospatzeko, diru bilketa hartaz arduratu zirenak, hau da, Emilia Narvaizak eta Francisca Erguinek, Antonio Armengou marrazki irakaslearengana jo zuten, Dnearen koadro bat margotu zezan. Irakasleak gogo onez margotu zuen koadroa eta gero eman egin zien egindako obra. Egun, koadro hori San Isidro labrador elkarteko horma batean dago eskegita.

Urte batzuk geroago, 1943. urtean, Union Cerrajerak bere langileentzako eraiki zituen lehendabiziko hogei etxebizitzen giltzak entregatu zituen eta geroago pertsona haiek erlijio zerbitzuak izan zitzaten eta bide batez baserritarren nahia betez, 1945. urtean San Isidro nekazariaren kapera eraiki zuen.

Kapera 1945eko maiatzaren 15ean inaguratu zen, meza nagusia eginez. Eraikina bedeinkatu eta Meza ematen zuen Arrasateko parrokiaren Jose Luis Iñarra parroko artzipresteak, laguntzaile izan zituen Justino Uribesalgo diakonoa eta Jose Mari Arizmendiarreta kodiakonoa eta  parrokiako abesbatzak Perossiren 2. pontifikala abestu zuen.

Ospakizun haien zuzendaritzan Arrasateko alkatea Domingo Arzamendi eta Union Cerrajera enpresaren zuzendaritza izan ziren.

XX. menderaren 1950eko hamarkadatik auzoak zituen lur lauetan hasi ziren etxebizitzak egiten, bertakoentzat eta lantegietara kanpotik etorri berri ziren langileen familientzat. Sarri enpresek sustaturiko etxeak egin zituzten, Sailuente (Zerrajera enpresak -1955) Elkano kaleko bi bloke- Roneok enpresak), Elkano kaleko bloke bat (Ifam enpresak-1972) eta garai hartako Ministerioak ere sustaturikoa (San Antolingo etxeak 1957-1963). Nekazaritzarako ziren lursailak etxebizitzez okupatzen joan ziren, Grupo Amiama (1966-1972), Elkano kaleko azkeneko etxeak eta gaur egungo Doktor Bolibar kaleko etxeak, kiroldegitik gertu daudenak, eta baserriak joan ziren desagertzen auzotik. Halaber, Itsasondo eta Bidekurtzegainekoa baserriak botatakoan, Elorza etxeak hasi ziren egiten (Elkano, Antso Abarka, Oñati kalea, Kaletxi kaleez osaturikoa).

Urkuluko ura Arrasatera ekarri baino lehen (1982. urtean inaguratu zen urtegia), ur depositu bat zegoen Antoñina baserritik gertu, Antoniña errekatxotik ura hartu eta depuratu zuena etxeetara bidaltzeko.

1922-1928 denbora tartean, Galarrako meategitik kable metaliko baten bidez garraiatzen zuten minerala Antoñina errekan garbitzeko eta garbitoki bat, behintzat, oraindik badago auzoan. Egun, auzoan, kirol instalazioak daude (kiroldegia, igeritokia) (1977. urtean egindakoak) eta errugbi eta futbol zelaiak zein atletismo pistak (2007. urtean eginda) eta merkataritza zentro bat (hiperra).

***MINERALAREN GARBITOKIA**

Hainbat mendetan Udalatxeko meategien jarduera handia izan zen, baina XVIII. mendearen bukaeran itzaltzen joan zen.

XX. mendearen hasieran, 1922tik 1936ra bitartean, Mietza eta Galarragako meategietatik Musakolako Antoñina errekaraino minerala garraiatzen zuten, bertan garbitzeko. Poleen bidez mugituriko kable metaliko baten bidez garraiatzen zuten lokatz eta lurrarekin nahastuta zegoen minerala, saskitxo batzuetan. Antoñako garbitokian garbitzen zuten minerala eta handik Bergarako Labe Garaietara, hasieran gurdietan eta geroago kamioietan.

Meategien behealdetik kargamentu bat garbitokirako irteten zen bakoitzean, langile batek korneta bat jotzen zuen, Musakolako beharginei ohartarazteko.

Institutuaren atzealdean, Antoniñaetxebarri baserriaren bidean daude garbitoki horren aztarnak eta apur bat gorago instalazio horren harrizko horma batzuk.



***SANTA MARINA/ KRISTO OBRERO/ SANTA TERESA/MAKATZENA**

**Santa Marinako** lehendabiziko etxeak 1963. urtean hasi ziren egiten eta Santa Marina baserriaren izena hartu zuen auzoak, nahiz eta baserria 1967. urtean bota zuten, La Merced ikastetxea egiteko. Lehendabiziko unitatean azaldu genuen bezala, baserrian lehen Arrasateko 1. parrokia zegoen, oraingo parrokia baino lehenagokoa izanik. Baserri hura berez, Zaldibar auzoan zegoen arren, izena eman zion auzuneari. Geroago, etxebizitza gehiago egin ziren 1965. urtean eta geroago Obenerrekako etxebizitzak, 1971-1973an. Kalearen izena 1899. urtean botatako baserri batena da (Ogenerreka) eta hortik pasatzen den errekatxo baten izena ere bada. Liburuetan baserri hura batzuetan Musakolakoa zela agertzen da eta beste batzuetan Zaldibarkoa.

**Kristo Obrero.**

Agirre baserria botatakoan, mendiaren maldan Kristo Obrero deitu zioten etxe-multzoa hasi zen egiten 1967. urtean. Etxe txikiak ziren eta gune horretako kaleak baserriaren izena hartu zuten eta beste batek Galizia kalea jarri zioten. Etxeak ezpondetan egin ziren eta hasieran gaizki hiritartuta zeuden.

**Santa Teresa**

Mariano Espino promotoreak 1964. urtean 310 etxebizitza eraikitzeko baimena jaso zuen eta Agirretxebarri baserritik Kristo Obreroko etxe multzotik gerturaino 1966-1969 denbora tartean eraiki zituen, Santa Teresa kaleko eta San Esteban del Puertoko etxebizitzak. San Esteban del Puerto da hiri gutuna sinatu zen herria eta etxebizitza horiek, Kristo Obrerokoak bezala, mendiaren maldan eraiki zituzten. Etxebizitzak egiteaz gain, eskola bat eta eliza bat egin zituen, eskola, egun Santa Teresa ikastolaren zati bat dena, eskola "nazionala"izan zen eta eliza Musakola auzoan egin zen, 1970-1972. denbora tartean.

**Makatzena.**

Santa Marinako etxebizitzak zeuden tokian baino gorago egin zituzten kooperatiba erregimenean Makatzenako etxeak 1980-1982 denbora tartean. Etxebizitzak egiteaz gain, kiroldegia eta frontoi bat egin zituzten, baina auzora igotzeko aldapa handia igo behar da. Udalak 2010. urtean Ferixalekutik jarri duen igogailuaren bidez, auzoaren bizi kalitatea hobetu da, horra joateko baliabide mekanikoak jarri direlako. Makatzena (Iparragirre) da hor zegoen baserri baten izena eta etxe horiek egiteko bota zuten.

Duela urte batzuk lau auzune horiek jaiak batera ospatzen zituzuten"Distrito 33" izenpean, baina azkeneko urteotan, denek batera ospatzen dituzte uztailaren 3. astean, Santa Marina zaindari hartuta.




***SAN ANDRES (BEDOÑABE")/ San Josepe**
Dokumentu historiek Arrasate barruan kokatu dute betidanik San Andres eta Oñatiko kondeak (lurrak bereganatzeko irrika bizia zeukana) San Andresi ("Bedoñabe) deitzen zion jada 1352. urtean, Bedoñabe. 1352. urteko dokumentuetan Bedoñabe zela jasotzen da. Toponimo hori agertzen da 1511ko dokumentu batean: Arrasatearrak eta aretxabaletarrak adostasun batera heldu ziren, herri lurrei buruzko gatazka batean, eta akordioa sinatu zuten San Andres de Bedoñabe izeneko ermitan. Baseliza hura zegoen gaur egun Fagor Arrasate ondoan dauden ortuetan.
San Andresko auzo alkateak izendatu dira, gutxienez, 1879az geroztik. Urte hartan Mendia Azurmendi izendatu zuten.

San Josepe "auzoa" ikusiko dugu, 1959. urtean inauguratuta, Nuestra Señora de la Blanca izeneko ermita zegoen bertan eta **erromeria** ospetsua egiten zuten. Oso ospetsuak ziren San Josepe zelaian egiten zituzten erromeriak, maiatzeko San Joseren Patrocinioaren egunean. Herri osoa joaten zen hara meriendatzera eta olgeta egitera.

Dokumentuetan, lehendabiziko aldiz,1614an agertzen da San Josepe ermitaren lehenengo aipamena.

Erromeriaren estanpa primeran margotu zuen Pablo Uranga pintoreak egindako oliozko koadro batean; egun koadro hori, "San Jose ermitaren erromerixa" izenburuarekin, ikusgai dago Donostiako San Telmo museoan.

**San Jose kofradiak** bi urtez behin maiordomoa aldatzen zuen eta meza bat egiten zuten 3 apaizekin eta bukatutakoan, txokolate, esne eta txurruez osatutako gosari banarekin opatzen zien maiordomoak eliztarrei. Maiordomoa ere aste santuko egunean prozesioan irteten zen Ortuko otoitzaren pasoaren arduraduna zen.

1936ko gerra arte, ohitura zen berba egiteko arazoak zituzten umeak eramatea ermitako San Andres irudiaren aurrera, eta umeei erroskilla bana jartzen zieten atzamar artean, "Aita gurea" errezatzen zuten eta jakina...gehienetan umeak jan egiten zuen erroskilla hura, baina ez dakigu haien arazoa sendatzen zuen edo ez.

Beste ermita bat Olandion zegoen. Kristo berpiztuari zegoen eskainia eta deitzen zitzaion "Amabimendisetakua". 1769.urtean bota zen eta bertan zegoen Kristoari eskainitako irudia San Josepera eraman zen

Etxebizitzetatik gertu, saihesbidea egiterakoan 1987. urtean aurkitu zuten **Labeko koba** (1. unitatean landutako gaia).

San Andres auzoa egiteko lehen harria 1959. urtean jarri zuten eta esan genezake, hiri auzoa azalera txikian etxe asko eta kasu batzuetan etxe orratzak eginez joan zen egiten. Horrela, etapaz etapa, 1961tik 1967. urtera arte etxebizitzak egiten joan ziren (Doktor

Bañez, Maisu Guridi, Andaluzia, Navas de Tolosa, Aramaio kalekoak) eta 1968an Foruen plazako etxebizitzak.

Litekeena da auzoaren izena goian aipatu baselizaren izenetik etortzea edo 1962. urtean botatako baserri batetik (San Andres) etortzea, baina geroan aztertu beharko genuke auzoari jartzea Bedoñabe izena. Auzoak hiru baserri izan ditu eta dauka Bedoñabe terminoarekin:
Bedoñabeetxebarri ( Takolo), Bedoñabeekoa-Bedoñabe lehenengoa (Atxena) (1962.urtean botata) et Bedoñabeerdikoa ( Axeri)

2010ko irailean Etxaluze eraikin berria egin dute auzoan, 2006. urtean Etxaluze baserria botatakoan, eta eraikin horretan jarri dituzte jubilatuen etxea, auzo alkatetzaren bulegoa, ikasgelak, hainbat areto.

Desagerturiko baserri honen lursailetan Mondragon Futbol kirol klubak 1913. urtetik 1916. urtera bere futbol zelaia izan zuen.
Auzoa eraiki baino lehen, errekaren ibilbidea bideratu zuten, eremu horretan errebueltak egiten zituen eta.

Dorretzarrak egin dira auzoan eta garapena ziztu bizikoa izan da. Horregatik, hirigintza arazoak eta auzoa zerbitzuez hornitzeko beharrak zeudela-eta, auzotarren elkarte bat sortu zen eta duela gutxi arte indartsu izan da auzokideen eskubideak defentsan.

1956. urtean Ulgor izeneko lehendabiziko kooperatiba sortu zen auzoan, eta harrezkero herrian, Euskal Herrian eta munduan ezaguna izan da hemendik sortu den mugimendu kooperatiboa.

Baserri ugari ditu auzoak, Bedoña auzorantz eta Olandixo mendirantz. Aipatzea Bedoñan dauden baserri guztietatik bat San Andreskoa dela (Otamendi) eta Olandi(x)on dauden baserriak- etxeak, Lan Kide Aurrezkitik gertu daudenak ere San Andreskoak direla.

***URIBARRI/ ERGUIN**

1353. urtean Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri, (parrokiadun herrixkak-"aldeas"-) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga ( parrokiarik gabeko tokiak-"lugares") auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian, "kontzejuan", integratu ziren.

Zein da auzoaren izena? Jatorriz auzoaren izena osotasunean **Uribarri** da, Munartik hasita muga egiten du San Andres auzoarekin, Udala auzoarekin, Garagartza auzoarekin, Gesalibar auzoarekin eta Aretxabaleta herriarekin baina erabileraren ondorioz, Erguin auzoari dagokionez, auzoaren alde batek beste izena (Erguin) hartu du. Erguin baserria 1965ko azaroan bota zuten etxeak egiteko eta hor joan ziren eraikitzen Uriburu (1963-1964), Erguin, Elizalde, Anboto, Jauregibarria (1965) kaletako etxebizitzak.



Toponimia irizpideari jarraituz, kale baten izenak edo botatako baserriak hartu zuen auzoaren izena, eta jendea, eguneroko erabileran, hasi zen esaten auzoari Erguin, eta Uribarri izena landa auzorako eta Udala plazatik aurrera, Uribarri etorbidea zeharkatuz dauden etxebizitza multzoak Uribe auzoa (1977) izendatzeko.

Udalako bidea dagoen Erguin eskola 1980-1981 ikasturtean hasi zen martxan eta errepidearen beste aldean, beste batzuen artean Maitena eta Olarantxiki baserriak botatakoan (1981-1982), Gorostiza auzoa apurka apurka egiten joan zen. Urte hartan Argentinaren eta Erresuma Batuaren artean Malvinas uharteengatik gerra izan zen eta harrezkero Uribarri auzoko auzune honi "Malvinas" esaten diote".

Munar kalearen ondoan baserri bat Larrea izeneko botatakoan, 1992. urtean Larrea eta Usaetxe etxe multzoak egin zituzten eta gaur hortxe daude auzoko jubilatuen etxea eta gaztetxokoa.

Arimazubiko etxeak 1980. urtean egin zituzten, esparru horretan zeuden industriak (ABC...) bota eta gero. Hortik gertu Iturripen lehenengo futbol zelaia izan zen (1923ko uztailean inaguratuta) eta zelaia Uribarzubi baserriaren lursailetan zegoen. Iturripeko zelai berria, berriz, 1945eko ekainean inaguratu zen eta jardunean 1985. urtera arte izan zen.

Hortik gertu Eskola Politeknikoak bere instalazio berriak jarri zituen 1963.urtean Jose Maria Arizmendarrietak 1943. urtean sortu zuen eta 1952.urtean lehenengo eraikina zentro asistentzial (gaur egungo ospitalearen atzealdea) ezagutzen dugun izan zen.
Uribe auzotik aurrera lehen Trefasa (lehen Ñito) lantegia zegoen tokia Mondragon Unibertsitateko kanpus berria eraikitzen ari da eta handik eskuma aldean Garaia berritzegune ikerkuntza eta garapenerako polo handia egin dute, geroan arian-arian lantegiez betetzeko asmoz.

Historiari dagokionez, Ibarretagain burdinolaren kanpoaldean Martin Bañez de Artazubiaga eta Juan Ibañez de Barrutia ganboarrak hil zituzten bost oinaztarrek, Arrasateko erreketaren mendekuz, 1464ko maiatzean, eta Uribarriko garbigunearen ondoan hilketa haren oroigarria dago, bi gurutze eta Antsa Ozaetakoak egindako eresia.("endetxa").

***BARRENATXO ERROTA**

Errota honi buruzko lehen erreferentzia XVIII. mendean jasotzen da. Duela gutxi arte, Polmetasa eraikin industriala egin artean, Ibarretagain baserritik ikusgai zegoen, errepidearen ondoan dago eta Urdaixena baserriko lurrekin muga egiten du.

*Antzinatik San Balerioko meategitik garraiatzen zuten minerala bertan garbitzen zuten.
Inguru horretan, Ibarretaazpi eta Ibarretagain baserrien inguruan hain zuzen ere, minerala funditzeko erabiltzen zituzten haizeola-labeen aztarnak agertu izan dira.




*XIX. mendearen bukaeran, "Barrenatxo" errota bihurtu zen. XX. mendearen hasieran Iramendi baserriko Franzizko Otaduy Ibargurenek erosi zuen, "okre" pintura ekoizteko, eta jarduera hartan sei urtean aritu zen.

*Marmol konprimituzko harraskak egiteko fabrika bihurtu zen geroago, materiala Kobateko harrobitik ekartzen zuten, geroago zerrategia izan zen eta azkenean ganaduarentzako pentsu-fabrika, jarduera horrekin lehen errota izandako eraikina 1920.urtean itxi zuten.

Hainbat auzotar ahaleginak egiten ari dira Aldundian eta Arrasateko Udalean, errota hori zaharberritzeko (kultura ondasunaren izendapena du). Egun errota eraikina jausteko zorian dago.

Jaiak abuztuaren 24an ospatzen dituzte, San Bartolome egunean, hain zuzen ere, eta urte batean Erguingo auzotarrekin batera ospatu bazituzten ere, Erguin "auzokoek" irailaren 21ean, San Mateo egunean, ospatzen dituzte.

***ZALDIBAR**

1200.urtean Gaztelako konikista baino lehen**,** Leintz bailara osoa Nafarroako Erresumaren baitan zegoen, Atxorrotzeko tenentziaren barruan, eta Gebaratarrak zituen gazteluzain. Behin erregeak Arrasateri hiri gutuna emandakoan, istilu ugari mendeetan izan ziren Gebatarrekin, beste gauza batzuen artean, muga, zerga eta lurren erabilerekin.

Garai hartan, Oñatiko jauntxoak- Pedro Belez Gebarakoa-ganboar alderdiko pertsonaiarik eraginkorrenetakoa zen eta Leintz bailara osoan agintzen zuen, Arrasaten izan ezik. Haren lurraldeko mugak gure herriaren harresietaraino iristen ziren. Adibidez, Zaldibarko eta Musakolako hainbat lur Oñatiko kondearenak ziren eta Zaldibarren dorretxe, errota, mendi eta lurrak zeuzkan.

Arrasatearrek 1426.urtean Zaldibarko dorrea bota zuten eta hainbat historiagilek diote Arrasateko erreketaren ostean(1448), Gaztelako erregeak Oñatiko kondeari jarritako zigor neurrien artean- kalte ordainketa eta barkamen gisa, kokatzen dute Zaldibarko lursailen jabetza.
1470-11-22an, salerosketa kontratuan 300.000 marabeditan finkatzen zen Arrasatek Pedro Velez Gebarakoa Oñatiko kondeari ordaindu behar ziona, herrian kondeak zeuzkan jabego guztien truke(Zaldibarren, Hidalgo basoa, Musakolako hainbat lur ..) . Arrasate erosi zizkion baina 50.000 marabedi ordainduz.

Zaldibar auzoak esparrua handia hartzen du, Kurtzetxiki, Larragain altzoaren ondoan 100 urte baino gehiago izan den Union Zerrajerako instalazioak izan baitziren.

Baserriei dagokienez, gaur Musakolako edo Makatzenakoentzat hartzen ditugu hainbat baserri (Loo, Makatzena, Ogenerreka, Bidekrutze, Legarra) Zaldibarkoak ziren eta dira, nahiz eta egun, ematen duen Zaldibar (eta Zalduspe) bakarrik frontoitik ospitaleraino den.

Egun, etxebizitza ugari egin dira Union Zerrajera zegoen toki beretsuan eta Osasun instalazioak daude( Anbulategia, ospitalea).

***ERDIALDEA**
Udalerriko erdigunea osatzen du eta hor bertan daude zerbitzu gehienak.
Gune garrantzitsuenak hauek dira: hiribildua, Maalako errebala, Zarugalde errebala, Gazteluondo errebala, Olarte kalea, San Juan etxe taldea, Garibai etorbidea, Uarkape, Ferixalekua, Jokin Zaitegi plaza. Erdialdean propio ez badaude ere, barruti moduan erdialdean daude: Etxetxikiak, Aldai, Aldaigain, Altamirako etxebizitzak.

Multzo horietatik, kale batzuek oraindik ere bere jaiak ospatzen dituzte: Maala errebalak uztailaren 22an eta Ferrerias kaleak uztailaren 26an. Lehen Zarugaldeko kalekoek abuztuaren 28an, San Agustin egunean ospatzen zituzten, baina gaur ez dira ospatzen. Halaber, Iturriotz kaleko jaia abuztuaren 29an zen, San Juan lepo-moztuaren eguna, baina gaurko egunean ez da ospatzen.

***ZABALGUNEA**
Gelma enpresa zegoen tokian hasi ziren egiten etxebizitza ugari 2006. urtean, eta egun etxeak bukatzeke baldin badaude ere, toki horri esaten diogu zabalgunea, hots, Etxetxikiak kaletik Legarreko industria pabiloietaraino. (Deba etorbidea, Elma kalea, Euskal Herria plaza, Martxoaren 8ko kalea).

***UDALA (Ugaran bailara)**
Udalatx mendiaren magalean, ipar-haizearen babesean dago Udala auzoa. Arrasateko auzorik altuena, orografiagatik lur landu gutxirekin, baina bereziki abeltzaintzara emana.
1353. urtean Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri, (parrokiadun herrixkak-"aldeas"-) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga ( parrokiarik gabeko tokiak-"lugares") auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian, "kontzejuan", integratu ziren.

Bi baserri multzotan banatuta dago eta behekoan San Esteban eliza dago.Eliza honen bobeda 1609. urtean eraiki zuen Salturriko Juan Bautista hargin maisuak.

Altare nagusia 1763. urtean Ordiziako Antonio Antiak eta Oñatiko Manuel Olaran eskultoreek egin zuten. Jose de Lastrak funditu zuen Aramaion 1774. urtean kanpandorreko ezkila bat .



***Udalatx mendiaren gailurrean Igokunderen ermita zegoen**.-"en la sumidad suya tiene una fuerte basílica de cantería, qual para semejante lugar conviene que es del título y nombre de lal sancta ascensión de nuestro señor a los cielos; tomando esta admirable advocación por nombre por la grande ascensión y altura de la peña, donde ha habido ermitaños y personas de letras.Garibaikoa (1570).

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, 1769. urtean Tolosan egindako bileran, beharrezko ez ziren ermiten itxiera agindu zuen eta horren ondorioz, 1771. urtean ixteko agindua eman zuen eta harrez gero, bertan behera utzi zuten.

XVI eta XVII. mendeetan dokumentuetan agertzen den bezala mezak, prozesioak eta beste zerbitzu batzuk egiten zituzten, baina honezkero 1733 .urterako Udala auzoko liburu batean jasotzen zen itxita izatea komeni zela, eskumikuaren zigorpean, eta inguru basati horretan erabili ez izanak eragin zuen hura hondatzea.

1925ean Juan Carlos Guerra arrasatearrak kanpaina bat antolatu zuen ermita hori berreraikitzeko, baina ez zuen lortu. Egun aiurrian dago, bi gailurren oinarrian.

*** Auzoko leienda.- Udalako Martin abadea.**

Elezharrak dioenez, Udalako eliza zaintzen zuen Martin abadeak, baina haren benetako zaletasuna zen ehizan egitea. Halako batean, meza ematen ari zela, erbi baten atzetik zihoazen zakur batzuen zaunkak aditu omen zituen. Apaizak meza bertan behera utzi, eskopeta hartu eta erbien atzetik jo zuen, ziztu bizian. Berehala ezkutatu zen goi mendi artean eta ez da geroztik haren berririk izan. Zer gertatu ote zen, bada? Inork ere ez daki, baina artzainek esaten dute, Udalatxeko harkaitza lainoak inguratzen duenean, oraindik entzuten direla txakurren zaunkak, abadearen oihuek xaxatuta**.**

Jaiak abuztuaren 3an, San Esteban egunean, ospatzen dira.

***GARAGARTZA (Ugaran bailara)**

1353. urtean Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri, (parrokiadun herrixkak-"aldeas"-) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga ( parrokiarik gabeko tokiak-"lugares") auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian, "kontzejuan", integratu ziren.

Arrasateren sorrera **historiaurrean kokatzen da, Musteriense aroan**, hain zuzen ere. Izan ere, Garagartzako Lezetxiki kobazuloan giza besondo bat aurkitu zuten, Euskal Herrian ezagutzen dugun giza aztarnarik zaharrena, 80.000 bat urte daukana.
Beste harpe gehiago ditu auzoak Lezetxe, Kobaundi, Oterreta.. eta adituak ikertzen ibili dira horietan aurkitutako aztarnak.



Asko izan dira azken hamarkadetan Garagartzako etnografia aztertu duten adituak, besteak beste, Jose Migel Barandiaran antropologoa, Jose Letona udaletxeko artxibategiko arduradun izandakoa edo Juan Carlos Guerra arrasatearra (Gipuzkoako Padroi historikoaren ikerketa). Jose Migel Barandiaranek 1983. urtean inkesta etnografikorako prestatutako gida jarraituz, Jose Letona Arrietak lagunduta, Garagartzako datu etnografikoak jaso zituen: etxearen funtzioak, heriotzaren inguruko sinesmenak, ezkontza, datu geografikoak, toponimikoak, gaixotasunak eta sendabideak, sinesmen erlijiosoak, kondairak...Letonak, Aranzadi zientzia elkartearen laguntzaz eta Etniker ikerketak lagunduta, Garagartzako etnografia izeneko lana argitaratu zuen.

Hirigintza ikuspegitik auzoarentzat eragin handikoa izan da Fagor Garagartza lantegia auzoaren ondoan izatea, zarata, aparkalekuen hiritartze lanak, autoen kutsadura, eta 1985-1986 denbora tartean futbol zein errugbi zelai berriak (gaur egun bertan behera utzita) egiteko lurren ordenamendua. Halaber, aspalditxotik auzoko etxebizitzetatik gertu dagoen harrobiak eragina izan du betidanik auzoan.

XX. mendearen bukaeran, 2000-2001 denbora tartean auzoko baserri etxeen atzealdean etxe berriak egin zituzten eta Istizabal-Garagartza kalea osatu eta itxura berria eman zioten auzoari.
Azkeneko bi urteotan auzoko lursailetan Abiadura handiko trenaren obrak hasi dira eta auzoaren fisonomia eta ingurua nabarmen aldatzen ari da, obren eragin handiarengatik.

Jaiak San Migeletan izaten dira, irailaren 29an.

***GESALIBAR (Ugaran bailara)**
1353. urtean Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri, (parrokiadun herrixkak-"aldeas"-) eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga ( parrokiarik gabeko tokiak-"lugares") auzotartasun kontratu baten bidez Arrasateko herrian, "kontzejuan", integratu ziren.

Auzoaren izenak "ur gazien ibarra" esan nahi du. Aspaldidanik da ezaguna sulfurozko uren (uretza) ezaugarri medizinalengatik eta osasun eta higienearen kulturagatik. Sulfurozko iturburuak gaixotasunak sendatzeko erabiltzen zuten eta bainuetxe ospetsua zegoen. Garibai historialariak 1567an idatzitako "Compendio Historial de España"n, min batzuk sendatzeko, ur haien egokitasuna aipatzen du.

Ur horiek lortutako ospearen eraginez, bainuzale ugariren bisita handitzea ekarri zuen. Inguruko etxeetan egurrezko bainu-ontziak ezartzea ekarri zuen hark, 1825ean Ramon de Mendia arrasatearrak ostatudun bainuetxea eraiki zuen arte. Bainuetxea 1827.urtean inaguratu zen.

1845.urteko udan Isabel II. Erregina bertara etorri zela-eta, Arrasatetik Gesalibarrera zihoan erregebidea egin zuten.



Bigarren gerra karlistan( 1873-1875) bainuetxea ospital militar gisa erabili zuten eta hilerri berria egin zuten eta harrezkero honi, egungo udalarena dena, kanposantu "karlista" deitu zioten.

Santa Ageda bainuetxean Antonio Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua hil zuen Angiolillo anarkistak 1897ko abuztuaren 8an. Denbora gutxira, bainuetxea bere izen ona galtzen hasi zen, eta urtarrilean bertan "El Iris" eta "La Rosa" merkataritza baltzuek erosi zuten. Beharrezko berrikuntza lanak egin ondoren, 1898ko ekainean berriz ere ateak ireki zituen, osasun etxe bilakatuta.

Eraikuntza horiek, gaur egun, ospitale psikiatriko monumentu multzoa osatzen dute, bertan Aita Meni ospitalea ( emakumeentzat) eta San Juan de Dios ospitalea ( gizonezkoentzat) daude.
Kontatzen dute, Txirrita bertsolari famatuak behin, Donostiako udaletxean (lehenago kasinoa), topo egin zuela Canovasen alargunarekin eta bi bertso bota zizkiola:

Il da Canovas, fuera Cánovas,
Pikaro gaizki eziya,
Galdu zituen gari-zelaiak,
gallendu zaio sasiya;
Galdu zituen ipar garbiyak,
Gallendu trumoi nasiya,
Galdu zituen fueruak eta
Jaungoikuaren graziya,
Galdu zituen bizi-lekuak,
Galdu du bere biziya .

Iru relejo, iruna kate,
Iru mallakin bakoitza,
Buruan iru korona eta,
petxuan iru orratza,
amoriyua iru dobletan,
tximista bezain zorrotza,
iru tirotan utzi zizuten
zuri senarra illotza,
iru ezpatak zulatzen dute
señora, zure biotza



***GESALIBARKO ERROMERIA**
Antzina. Santa Ageda jaien egitarauaren barruan hainbat ekitaldi ospatzen ziren, eta horietako batek erakarpen handia sortzen zuen herritarrengan, Gesalibarko erromeria zen. Otsailaren 5ean, zaindariaren egunaren ospakizunean, jende asko etortzen zen meza nagusira, eta arratsalde partean erromeria egiten zuten.

Erromeria hartan, Arrasate, Aramaio eta inguruko herrietako gazteria biltzen zen eta errepidean bertan korro asko sortzen ziren. Autoen trafikoa handitzen joan zenean, 1930ean-edo, Diputazioak debekatu egin zuen errepideetan erromeriak egitea. Gauza berbera gertatu zen Bergarako Elorregi auzoan ospatzen zuten jaiarekin eta Arrasaten Santo Tomasaren erromeriarekin.

Probintzien mugetan egoten ziren "konfinak"/ gantxuarekin itxitako errepideak-kataia-) eta probintziako arbitrioak kobratzeko tokiak egoten ziren. Gesalibarkoak Aramaio herriarekin muga egiten zuen eta bertan Aramaiokoek aire librean taberna bat muntatzen zuten, Araba aldean eta jendea paseoan joaten zen tabernara, non prezioak Gipuzkoan baino merkeagoak ziren.

1930. urteaz geroztik, errepideen erdian horrelako erromeriak ospatzeko debekuarekin, ospitalearen atzealdeko plaza batera aldatu zen erromeria, baina denboraren poderioz, erromeria galdu egin zen.

Azkeneko bi urteotan auzoko lursailetan Abiadura Handiko Trenaren obrak hasi dira eta auzoaren fisonomia eta ingurua nabarmen aldatzen ari da, obren eragin handiarengatik.

Jaiak otsailaren 5ean izaten dira, Santa Ageda egunean.

***MEATZERREKA**
Arrasateko meatzeetako mearen ugaritasuna eta kalitatearen ondorioz, XIII. mendetik altzairugintza eta hura merkaturatzea izan da Arrasateko herritarren jardun nagusia.

Burdina lantzeko ezagutza eta usadioa antzinatik zegoen zabalduta, eta antzinatik izan da garrantzi handiko industria Arrasaterentzat eta munduan ezaguna zen herrian egiten zen altzairua. Noiztik datorren ezagutza hori? Erromatarrengandik jasotako jakintza izan liteke, baina XIII. mendetik aurrera meatzaritzak sekulako aroa ezagutu zuen Arrasaten.

Meatzerrekak (Veneras) ziren gure udalerriko meatokirik garrantzitsuenak: **Lastaobia, Jaunporobia, Kirixaobia, Lurgorri, Barrenobia, Pisaobia, Sendaobia, Errealobia..**

Euskal Herrian izan dugun gremiorik zaharrena sortu zuten; San Balerioko benakeroen Kofradiaren 1434ko ordenantzak dira horren lekuko, eta San Balerio (Meatzerrekako elizaren adbokazioa) meatzarien zaindaria zen.

Tradizioak dio San Valerio auzoko honetako aitzulo batean (Galarra) gorde zen eta hil artean bertan izan zela.
1845ko udan Santa Agedako bainuetxean zegoen errege familia( Isabel II eta bere ama Maria Cristina) harpe hau bisitatzera joan zen eta barruan plaka bat dago horren lekuko.

Antzina ere Santamas feria auzo honetan ospatzen zen, 1351. urteaz geroztik, baimendua eta bertan 1727ra arte izan zen, Gipuzkoako Juntek jende gutxi bizi zen eremuetan feriarik ez egiteko agindua eman artean.

1750.urtetik aurrera meategien ustiakuntza gainbehera joan zen baina esan daiteke hainbat mendetan auzoa meategiekin batera Arrasateko historiaren toki garrantzitsu eta erreferantziala izan dela.

Auzoaren izena Meatzerreka da eta gaztelaniaz Veneras ( meak /venas) da eta biek jasotzen berez auzo honen historia eta kultura.

***SAN BALERIO KOFRADIA**
Benakero asko Garagartza eta Udalako auzoen auzotarrak ziren eta baserriko lanak benakero lanekin tartekatzen zituzten. Lanbide estimatua zen eta kolektibo indartsu baten partaideak ziren, eta zaindaria, San Balerio, eta kofradia zuten. Kofradiaren egoitza San Balerio ermita zen eta serora bat zeukaten ermita zaintzeko.

Ziur asko, 1434. urtea baino lehenago existituko zen kofradia, baina urte horretakoa da lehendabiziko erreferentzia, eta 1437.urtean Gaztelako Juan IIk onartu zituen eta erresuma osorako kopiatu zituen ordenantzak, meatzaritza erregulatzeko asmoz. Kofradiak 1958ko abenduaren 4 arte iraun zuen.

Ostegunetan lan egitea debekatzen zuten ordenantzek eta lan eginez gero, 1.000 marabedien isuna ordaindu behar zuten. Kofradiaren kideen artean auziren bat izanez gero, San Balerioren aurrean zin egin behar zuten eta testimonio faltsua eginez gero, isuna urrezko dobloi bat izaten zen.

Historialari batzuk esaten dute ostegunetan lan ez egitea lotuta dagoela euskaldunek kristautasuna ezarri aurreko aste propioari, astelehena, asteartea, asteazkena eta atsedena.

Elezaharrak dio San Balerio Arrasaten izan zela behin Daciano enperadoreak IV. mendean Cesaragustatik (Zaragozatik) Balerio donea bota eta gero bere ihesean Galarra kobazuloan ezkutu omen zela.

Jaiak urtarrilaren 29an , San Balerio egunean ospatzen dituzte.




**BEDOÑA.-**
1966. urtean, Foru Aldundiak erabaki zuen Bedoña auzoa Arrasate herriari atxikitzea. Ordu arte Aretxabaleta herrikoa zen, baina 1959. urtean Bedoñako auzotarrek hainbat ziorengatik (Arrasatetik errepidea zegoelako, baserrien lursail asko Arrasatekoak zirelako, auzotarrek gehienek Arrasaten lan egiten zutelako, baserriko produktuak saltzen Arrasatera jaisten zirelako, ikasten Arrasateko Eskola profesionalera joaten zirelako…) eskatu zioten Arrasateko Udalari eta Udalak Diputazioari bidali zion eskaera hori.

Baserri auzoa, han "Mendibitzu" baserrian, 1907. urtean jaio zen Juan Arana Ezpeleta eta garai hartan poeta euskaldunik handienetarikoa izan zen. Literatura lanetan Loramendi izengoitia hartu zuen, baina zorigaiztoko peritonitis erasoaldi batek jota hil zen 26 urte bete zituen egunean.

1935eko ekainean "Euskaltzaleak" taldeak "Olerti Eguna" Bedoñara ekarri zuten eta han gorazarrea egin zioten oroitarri bat jarriz. Testua hauxe da:" Loramendi, Bedoñatar Iokin. 1907-1933. Aranatar Jon. Mendibitsuko lekaide olerkariari. Eusklatzaleak 1933-6-2 .

